

# anaitasuna

1980 EKO APIRILAREN LEHEN ETA BIGARREN HAMABOSTALDIA 400.ALEA.60 PZTA.

4000


10 URTE ANAITASUNAREN  
DOSSIER BEREZIA

Carlos Arkorekin hizketan


**BILBOKO AZKEN KABARETA**

Informaziorako. Zientzi Unitatea:  
egoera zaila.

# Herriarekin eta herriarentzat.



CAJA LABORAL. *Euskadiko*  
*Kutxa* 




# aurkibidea



3. Aurkibidea
4. Artikulubura
5. Agiriak
6. Carlos Arcorekin hizketan. X. Gomez - Idazkuntza.
8. Bilboko udalak euskarari muzin? B. Barandiaran.
9. Leireko Zina. R. Garai
10. Informazio Zientzi - Unitatea: Egoera Zaila Jorge. Idazkuntza.
12. Bilbo Gautxori. Imanol X.
16. Hamabost egun hankaz gora. Bixer.
20. Munduko zenbait berri nahas mahas M.J. Esteban.
22. Elkarriaketa biziak.
25. Anaitasuna 400.
26. Hamar urte Anaitasunarekin
33. Anaitasunari buruzko inkesta
36. Anaitasunarekin hizketan. Felipe Aldaiturriaga.
40. Arraultzak saskian. B. Barandiaran
42. Amaia Lasa. A. Eguzkitza.
43. Baserritarrek erakutsi zidatena. K. Barrentsoro.
44. Malcon Lowry Labyrinthoa. J. Sarrionaindia.
48. Demokrazia edo faxismo onartua. J. Sendagorta.
49. Sinetsi behar. K. Santisteban
50. Antropologia eta emakumea: Marta Moia. M.A. Landa
51. Botila. K. Santisteban
52. Leyreko zina. J.C. Egillor
53. Gramatika. J.R. Etxebarria
54. Txinako euskal menu bat.





Apirilaren 22tik, Maiatzaren 17ra.

KONFERENTZI XORTA  
BERGARAKO UNEDEN

PLAZERRAREN  
ERREPRESIOA  
GIZARTEAN

**Ordua eta tokia:** astearte eta ostirategi, arratsaldeko 7,30 etan, UNEDen; larunbatetan, goizeko 11etan, Compañía de María Ikastetxean.

**Izenak eman:** Apirileko 15etik aurrera, UNEDeko Idazkaritzan.

**Eraketa:** HEZKUNTZA KULTURALEKO DEPARTAMENTUA.

**Asteartea, Apirilak 22**  
PLAZARRAREN ERREIBINDIKAPENA ETA EZKERRA.

Itziar Etxebarria, Bergarako UNEDeko Psikologiako Irakaslea.

**Ostirala, Apirilak, 25**  
SEXUARI BURUZKO IDEOLOGIA.

Josep Vicent Marques, Valenciako Ekonomi Fakultateko Soziologiako Irakaslea.

**Larunbata, Apirilak 26**  
GIZONEZKOAREN DOMINANAZIO SISTEMA ETA GIZONAREN KRISIA.

Josep Vicent Marques, Valenciako Ekonomi Fakultateko Soziologiako Irakaslea.

**Asteartea, Apirilak 29**  
NORMA SOZIALEN BARNERATZEA HAURTZARROAN.

Enrique Freijo Balsebre, Donostiako Mezkuntz Zientzien Fakultateko Psikologiako Irakaslea.

**Larunbata, Maiatzak 3**  
MANIPULAZIOA; ASKATASUNA ENRIQUE: Freijo Balsebre, Donostiako Hezkuntz Zientzien Fakultateko Psikologiako Irakaslea.

**Ostirala, Maiatzak 16**  
NEUROSIAREN SOZIOLOGIA  
Enrique Gonzalez Duro, Psikiatra.

**Larunbata, Maiatzak 17**  
FAMILIA ETA KONTROLE SOZIALA.  
Enrique Gonzalez Duro, Psikiatra.



## TXOMIN BARULLO

Barrenkale 40 an, lehen-go astean Txomin Barullo inauguratu zen. Diotenez, Euskal Pub, edo kafe-teatro, edo tertulietarako bilbotar kafetegia hibrido edo definigaitza izanen da. Teatrotik musikara, literaturatik zinera, denak eta denek izanen dute leku heurenan. Ea egia den!

Inaugurazioan, progresia asko baino ugari. Erdal kazetaritza, ez askorik baina polito. Herri irratia, EGIN, Askatasuna, R. Bilbao, Juventud etab. Erdara nagusi, eta ez dut uste erdalduenen errua denik, erdalduenak ba dira zer egin dezakete besterik? Baina Bilbok ez al du euskal—progresiarik; non daude? Euskara eskola ematen?, Errosarioa errezatzen?, Aditzak asmatzen? Umeak zaintzen? Bonbak fabrikatzen?. Ez dakigu. Baina jakin ez arren, Txomin Barullo ere noizbehinka euskal-saioak, euskaraz emandako jaialdiak edo, antolatuko dituela espero dugu. Hala bedi!

## IDONEOAK PAILASOAREN EGITEN

Euskara Irakasle idoneoak greban aurkitzen direla eta Apiriliak 22an Bilbon zehar kalean goira, kalean behera pailasoz jantzita agertu dira Lantzeko ihauterietan bezala. Euskal arloetan mugitzen garenok maizetan pailasoarena egiten ari garen sentimentua dugu guztiz barneratuta. Bitartean Eusko Kontseilu Nagusiak erdal agiriak, erdaraz soil-soilik bidaltzen, segitzen du lasai, lasai, Gotzon Garateren sinadurarekin eta guzti.

# CARLOS ARKOREKIN HIZKETAN



Nik ez dut sinesten ondore onez. Bata zein bestea izan, denok elkar bizi zenituzu. Batari mikrofonoa ezartzen zaio, besteari ziztailua eta niri General Elctrica-n karraka bat.

**Ba dakizue nor den Carlos Arko, bai, F.M.-ko edasle ber baldun eta begiko-hori. Bilbo irratietxeko sabairaino igo ez zen bada Anaitasunako taldea eta denbora luze samarrez zain egon ondoren, ondoko elkar hizketa edo ikuska hau lortu genuen. Aurrea.**

**Anaitasuna.-** Hasteko, nor da Carlos Arko?

**C. Arko.-** Beno, hasi baino lehen, zera, jeneralean ez dut nahi elkarrizketarik ez baitut ezer esateko; zuek zarete beraz, nirekin solasean arituko diren lehenak.

**A.-** Ez. Baina hau ez da horretarako. Nola ikusten duzun zeure burua esan behar diguzu?

**C.A.-** Nire buru! kaka kirastutzat eduki dut beti, nik galdutakotzat jotzen dut neure burua. Hala ere, jendeak nire irratsaioen bidez juzkatu behar nau, nire mozkorraldiak ikusi eta nire begiei adi egon dadin nahiago dut.

**A.-** Zu nola topatzen zara, edasle edi disko-jockeya?

**C.A.-** Disko-jockeya. Musikarengatik seguru. Musika, nazioarteko hizkera bat da, bakarra agian. Edasle bat adimenen atzemailea da, morroia norbera da. Lehen bezalako kaka berbera.

**A.-** Eta zure irratietxeko lagunei buruz zer penstaszen duzu?

**C.A.-** Nik ez dut hitzegiten hortaz. F.M.

a zuek aztertu behar duzue.

**A.-** Nola iritsi zinen disko-jockey izatera?

**C.A.-** Kukuka edo bultzatu eginez. Batiaren bidez F.M.a irekitzeko zuek ohartu nintzen eta hemengo zuzendariak iri idatzi nion ene egokitasunaren istorio luze bat kondatuz. Ez zidaten inolako azterketarik egin eta ba daramatza hiru urte luze.

**A.-** Zergatik C. Arcoren ondorena disko eragiketan?

**C.A.-** Nik ez dut sinesten ondorena Bata zein bestea izan, denok elkar bizi gaituzu. Batari mikrofonoa ezartzen zaio, besteari ziztailua (1) eta niri General Electrica-n karraka (2) bat. Batzuek zuzentzen dira eta besteak aldiz trabatu. Ondore onik bat dut, jendeari galda izateko.







# LEIREKO ZINA

Apirilaren bostean, Aberri Egunaren bezperan hain zuzen, ekitaldi umil baina historikoa gertatu zen Leiren.

Egun horretan, Hego Euskal Herriko hogeitalau deputatu-senadore-parlamentarik (guztiak Herri Batasunakoak) zin egin zuten, Euskal Herri osoaren berjabetasuna lortu arte burrukan segituko dutela. Egia esan, ez ziren hogeitalauko Leirera heldu, ongi baitakigu zernolako kontroleak egon ziren Nafarroan zehar

egun horretan. Dena den, guztiek sinatua izan da zin hori.

Jendearentzat jakingarri delakoan, hona hemen zinaren testua:

Zaharrena izanik, Telesforo Monzon izan zen beste guztien zin-hartzailea, gero, hango gazteenak, Xabier Onaindiak, berari hartu ziolarik. Esan beharra dago halaber, zina euskara hutsez burutu zela.

Leireko monastegi aurrean egin behar izan zuten zina, bertako abade nagusiak ez baitzien utzi barneko kriptan egiten. Historiarako anekdotaren bat behar eta... baina ez ote da lotsagarri?

Zin hori egin dutenen zerrenda, ondoko hau da:

Ez ote da egongo bestelako parlamentaririk, publikoki zin berbera egiteko gauza denik?

R.G.

Geu, Hego Euskadiko Herri Batasunaren hogeitalau deputatu eta senadore hautatuok,  
Gaur hemen —geure Nafarroako Kondairaren lekuko izana zaigun— Leire agurgarri honetan bildurik,

Nafarroako Errege izandakoen hezurak hementxe guri hurbil ditugula,  
Arabarrok, Bizkaitarrok, Gipuzkoarrok eta Nafarrok, zernahitarako talde bakar bat osatuz,  
Iparraldeko anaiak ere laister gurekin izango ditugulakoan,

Zin dagigu:

Ez dugula amore emango, baina bai eten gabe borrokan jarraituko, geure Aberri bakarraren, Euskal Herri osoaren, Batasuna eta Berjabetasuna lorte arte.

Ez dugula amore emango, baina bai eten gabe borrokan jarraituko, geure Aberri bakarraren, Euskal herri osoaren, Batasuna eta Berjabetasuna lortu arte.

Geure arteko zaharrena neu naizenez, galdetzen dizuet beraz:

- Zin dagizue?
- Bai, zin dagigu. Eta zeuk?
- Bai, neuk ere zin dagit.

Leire-n, mila bederatzirehun eta laurogeiko Apirilaren bostean.

Herri Batasunatik Foru-Parlamenturako batzarkide hautatuak:

ANGEL GARCIA DE DIOS  
IÑAKI ALDEKOA AZAZOLAZA  
JOSE ANTONIO URBIOLA MATXINADIARENA  
JOSE MANUEL ALEMAN ASTIZ  
IÑAKI ARTXANKO ALDABE  
FERNANDO SAEZ GARCIA FALCES  
JOSU GOYA ETXEBERRIA  
GERARDO DEL OLMO RAMIREZ  
ANGEL JAUREGI MARTINIKORENA.

Herri Batasunatik Araba, Bizkaia ta Gipuzkoak eraturako Parlamenturako batzarkide hautatuak:

TELESFORO MONZON ORTIZ DE URRUELA  
IÑAKI RUIZ DE PINEDO UNDIANO  
XABIER PEREZ DE HEREDIA  
JOSE RAMON ETXEBARRIA BILBAO  
JON IDIGORAS GERRIKABEITIA  
JOSU AIZPURUA SAN NIKOLAS  
XABIER ONAINDIA RIBERA  
MIGUEL CASTELLS ARTETXE  
JOKIN GOROSTIDI ARTOLA  
IÑAKI ESNAOLA ETCHEBERRY  
IÑAKI PIKABEA BURUNZA

Herri Batasunatik Estatu espainolerako Deputatu hautatuak:

FRANCISCO LETAMENDIA BELZUNZE  
PEDRO SOLABARRIA BILBAO  
ANTTON IBARGUREN JAUREGI

Herri Batasunatik Estatu espainolerako Senadore hautatua:

MIGUEL CASTELLS ARTETXE

# INFORMAZIO ZIEN

Orain dela hilabete batzu, orrialde hauen bidez, I.Z.U. (UCI) = (Informaziorako Zientzi Fakultatea-k) zeuzkan arazoei buruz eta hala nola bere egoera kaxkarrak ere, zenbait ideia azaldu genuen. Era berean. Euskal Herriak lan mailan behar zituen kazetariak mintzatu ere bai. Betekizun hauek aurrera eramateko eta etorkizunari begira geroaldietako informatzaile horiek euskal problematikan barne eratzea nahiko zaila dela iruditzen zaigu Informaziorako Zientzi Fakultaterik ezean.

## NOLA SORTU ZEN UNITATEA

Unitate honen historia Bartzelonan hasi zen. Bertan zeuden ikasletariko batzu haren beharrez konturatu ziren. Hasieran Euskal Herriaren halako unitate bat eratzeaz utopiatzat jo zuten baina geroago, mila ekintza eta gorabehera eginda, proiektua nolabait osaturik geratu zen.

Informaziorako Zientzi Unitatearen berehalako objektiboa, Euskadin fakultate bat eratzea zen. Euskal Herriko edozein ikasleak Bartzelonara joan barik, Euskadin bertan ikastaldi hauek ikasteko ahalbidea eduki beharko luke beraz. Modu honetaz, ikasleak diru askoz guttiago beharko luke eta bestaldetik, gure herriaren errealitatearekin bat egin lezake.

Gaur egunean beraz, 1.100 ikasle daukete matrikulatuta baina harrez gero irakaskuntza, ikasle eta irakasleen ahalegi-

**Bartzelonako Fakultateari loturik egoteak arazo lazgarriak sortzen dizkigu, bertatik dakarzkigun estudiatzeko arauak ez baitatoz bat. Herri honek dituen arazo kulturalekin ez eta Bilboko UCi-ko ikasleen nahi eta gogoekin.**

nei esker bizi da soilik eta oso gutti den arren, ahaleginok ditugu objektiboki egoera mantentzen dutenak.

Ikasleak kenduta, irakasten ez duteneko bost partaidek eta 50 irakasleak osatzen dute UCi. 50 hauek lau bakarrik, Bilboko unibertsitatearen babesean daude. Hots, gainerako beste irakasle guztiak ikasleok pagatzen ditugu geure

poltsikotik eta norberaren matrikula pagatuta ere, ikasle bakoitzari gaintzerga bat gehitzen zaio irakasleen soldatak PND eta dituzten medio kaskarren gastuak pagatzeko. UCi, fakultatea balitz, dohatzez beterik legoke, hala nola, katedratan, irakaslegoan, horniziotan (liburutegi, prentsarako laborategi, irrati, telebista).

Bartzelonako Fakultateari loturik egoteak arazo lazgarriak sortzen dizkigu,

**Halako galderok informaziorako profesionariaren kontzeptu mugatu batetan datzate. Ausart eta fier den kazetariaren kontzeptuan hain zuzen. Lehergailu, tiro eta bonbatan zehar bere sudurra sartzen duen kazetaria, alegia.**

bertatik dakarzkigun estudiatzeko arauak ez baitatoz bat Herri honek dituen arazo kulturalekin ez eta Bilboko UCi-ko ikasleen nahi eta gogoekin. Leioako estudianteontzat oso garrantzizkoa den ikus-entzun adarrik ez dago baina hala ere, aurtun, publizitate-adarra sartu dute eta ez dio ia inork horri berari kasu handirik egiten.

## DENOK DAUDE GUREKIN BAINA EZ DU INORK BATERE EGITEN

Azken hiru urteotan zehar UCi-ko fakultate bilakatzeko egin diren ahalegin eta gestio guztiak ugari samar izan dira baina hitzak eta promesa guztiak haizeak eraman ditu. Ihezko ikasturtean jadanik Unibertsitateko errektoreen kontseiluak, Eusko Kontseilu Nagusiak eta Euskadiko Indar politiko guztiak (UCDtik H.B.rai- no) UCi-ko fakultatea bilaka zedin dei bat egin zuten. Hala ere, UCi-ko partaideek ez dute orain arte nahi hori beterik ikusi.

Arazo honi buruz, Hezkuntza ministeritza eta Unibertsitate ministeritzak ere, hitz emana dute aspaldian zenbait guzuzatan. Baina oraintsu arte, fakultatea egiteko proiektua nonbait gorderik edo galdurik omen dago beste hainbeste proiektuarekin batera, hauek guztiauek multzo bat osatzen dutelarik eta azken hitza Estatuko ministrari Kontseiluak onartzea bakarrik falta izanki.

Bartzelonakoek ere, Bilbokoekin batera datoz arazo honi buruz eta hamaikata aldiz haien elkar laguntasuna erakutsi diote Bilbokoei. Horregatik hain zuzen, ezin esan dezakegu Bartzelonari loturik bagoaude, Bartzelonako borondateak errua duenik eta aldiz zera derrakegu: Nolabait mantetzen bagara, Bellaterrako unibertsitate autonomoa dela, egiten

baitugu. Hau guztiau hala izanik UCi-ko eogera gero eta zailagoa da, milioi defizita gero eta handiagoa baita.

## NOLA ETA ZERTARAKO EUSKADIKO INFORMAZIOARAKO ZIENTZI FAKULTATEA

“Periodismoa” ikasten ari diren —hala deitzen baitiogu ikastaldiaiea irakasten dieten edo eta zer nolako ikas-

gai egiten den “periodismoz” inaharduko galdetu egiten zaie. Halako galderok informaziorako profesionariaren kontzeptu mugatu batetan datzate. Ausart eta fier den kazetariaren kontzeptuan hain zuzen. Lehergailu, tiro eta bonbatan zehar bere sudurra sartzen duen kazetaria, halegia. Baina informaziorako zientzi fakultatea ez da idazleentzako eskola edo espioitza eskola.

UCi-ko ikasleentzat unitate homogeneo formazioak ukitzen dituen arlo guztiak garatu behar ditu, hots: informaziorako teknologia, komunikabideetan erabiltzen diren moduak, hauen eragin sozialak ez dudarik ez, gaurko gizarteari interpretatzen orokor bat ematen dioten zientziak (ekonomia, historia, soziologia, et...). Alderdi berezi asko duen fakultatea bera, non egunkari batetarako artikulu bat eskribatzea edo telebistarako saila egitea.

beraz, non egunkari batetarako artikulu bat eskribatzea edo telebistarako saila egitea, eskaintza eta eskaeraren legialde ekonomikoak ezagutzea edo eta entzuten bat ipintzearen, Estatu Batuetan arteko arteko burrukak sortzen dituen arazo politiko eta historikoak ere ezagutzea bezain garrantzitsuak baitira.

Geu bizi garen errealitate politiko eta sozio-kultural barne mugildurik egotea behar dela Informaziorako Fakultatearen pentsatzen dugu UCi-ko ikastoleok zehar eta horrela gure herriaren garapenei egingo baita zentzu guztietan. Heltzeruenetako bat, garrantzitsuena gainera euskararen bidez Euskal Herri honi hitzatea litzateke, euskara berreskuratzeko burrukan guk ere atal garrantzitsu bat eginez. Informaziorako Zientzi Fakultatean beraz, euskararen eta euskarazko irakaskuntza presente dago eta modu berean Fakultatean eta euskarazko irakaskuntza presente dago eta modu berean Fakultatean ere presente egon beharko litzateke. UCi-ko ikasleen ustaz hau guztiau ez da beraiek burutu ahal diren bat baizik eta mundu guztian zehar hedatzen hasi den gogo zehatza, zehar

# ZI UNITATEA: Egoera

## zaila

Informazioaren profesionari bat baino gehiago ahozabaliz geratu zen, Gipuzkoako Diputazioan hauteskunde gauean nola agertzen ziren paperez eta korrika egindako panel batzutan zenbaitzu herri-tako erresultatuak ikusi egin zutenean, hauteskunde erresultatuen inolako datu ofizialik oraindik ez izanik.



uste baita komunikabideak inguruarekin bizi behar direla. Hitz guttitan, profesionariak etorkizunean erabiliko ditugun informabideak ezagutu behar ditugu.

Baina informazioaz aritzen diren langileak eratzek ez du esan nahi titulu edo eta karneta delako horiei eskatu behar zaienik; eskatu behar dena aldiz, zera dateke: Informabide propioen erabilpen zuzena; sekula izan ez duten sektore guzti horiei, informazio askeaz oinarritzen den formazio profesionala eskeini behar zaie. Hau da, multinazionalak di-ruaren ahalmenez muntatzen duten espresio askatasunaren kontra doazen informazio sare propio horietatik pasatzerik behar ez izatea. Horrela eginez,

egoteko larrialdi hura azaldu nahian prentsa aurreko deia egin zen. Berau egin ondoren eta bertan kazetariei azaldu zitzaizenez Errektorearen bulegoetara sartu eta bertan giltzaperatu zen hainbat UCi-ko jendea, UCi-ri dagozkien hainbat arazoez eztabaidatuz.

Bestaldetik badago susmoa zenbait sektore abertzalek (nazionalistek, hobe) komunikabide institutu bat sortu nahi duela eta dudarik ez, halako ekintza horrek irakaskuntzaren pribatizazio itzela suposatuko luke. Gure ustez, irakaskuntzaren pribatizazio itzela suposatuko luke. Gure ustez, irakaskuntza, fakultate publiko baten bidez eskeini behar da, sektore guztiei zabal egonez.

**Ikerpen eta Unibertsitaterako ministraria den Gonzalez Seara-rekin egoteko asmoz, Donostiara Carlos Santamariarengana joan egin ziren Bilboko ikasle batzu. El-karrikuska honetatik baina, oso gauza gutti atera zen garbirik.**

informazioa, zentzurarik gabea bilakatu da.

### UNIBERTSITATEARENTZAT EZ DAGO DIRURIK

Ministrari Kontseiluak UCi-a Fakultate bilaka zedinako neurriak heltzen ez zirelarik, UCi-ko partaideek aurten jadanik errebindikapen kanpaina bat aurrera eramatea burutu zuten. Informabideei ezin

Ikerpen eta Unibertsitaterako ministraria den Gonzalez Seara-rekin egoteko asmoz, Donostiara Carlos Santamariarengana joan egin ziren Bilboko ikasle batzu. Elkarrikuska honetatik baina, oso gauza gutti atera zen garbirik. Konkretuki laguntza gutuna eta ez besterik; ba dirudi bada, Hezkuntza Kontseilaritzak eta Madril-eko oso harreman txar daukate-la elkarrekiko.

### AURREKOAK EZ BEZALAKO ESPERIENTZIA

Informazioaren profesionari bat baino gehiago ahozabilik geratu zen, Gipuzkoako Diputazioan hauteskunde gauean nola agertzen ziren paperez eta korrika egindako panel batzutan zenbaitzu herri-tako erresultatuak ikusi egin zutenean, hauteskunde erresultatuen inolako datu ofizialik oraindik ez izanik. Nork idazten zituen datuok? UCi-ren ikasle talde batek eta irakasle batek, informazio zerbitzu paraleloaren lehenengo datuak hartzen ari zirelarik, eta hura, Euskal Parlamenturako hauteskundeak zirela eta, Leioako kazetaritzaren ikasleek antolatu izan zuten. Medio teknikorik batere ez. Prestatseko denbora 48 ordukoa zen. Giza medioak, hirurehun bat lagun, lanean zihardutelarik ezer kobratu gabe hiru egun baino gehiagotan. Helburua zer hau zen: informazioaren ikasleek lan informatibo garrantziakoa burutzeko duten kapacitatea, eta haien egoera besteri ikuseraztea. Erresultatuak: parlamentari hautatuei buruzko datuak, informazio ofiziala baino ordu erdi lehenago emandakoak.

Telefono sare baten bidez zentralizatu ziren Martxoaren 9ko hauteskundeak datuak ezezik, UCi-ren kideak hauteskunde bileretako informazioa ematen aritu ziren egun osoan baina, autu-mautuak, egunaren abioa eta edonolako zertzeladak jakineraziz, holakorik eskatzen zuen edozein informabideri. Azken batean, UCi(Press)en — hola zeritzon tipustapasteko agentziari — egiazko arrakastak erakutsi egin zituen informazioaren informasionari hauen lanerako gogoa eta efektibitatea, ordinarore ofizialei labur eritzita utzi baitzieten.

Esperientzia honen ondoren, UCi-ren erkidegoak bere helburua lortzera ibiltzen segitzen du. Hartarako, asmotan daukate aldizkari txiki bat argitaratzea, bere problematika jendartera zabaltzeko; bestalde, nahi duten Fakultatea ezaguterazteari begira, dossier bat prestatu dute Euskal Herrirako nahi duten Informazioaren Zientzien irakaspenerako proiektuarekin. Azkenik, prestalanean dute Euskal Herriko Komunikabideen 3. Astea izango litzatekena; berau balantzaleku erabiliko lukete bere problematika jaurtikitzeko eta Euskal Herrian "4. boterearen" Fakultate baten garrantzia nabarierazteko.

# BILBO GAUTXORI BILBOKO AZKEN KABARETA

Euskal aldizkari bat ezin dugula egin "aditz sipnoptiko" az bakarrik mintzatuz, geratzen den edozertaz baizik. Eta gertatzen da gaua existitzen dela; eta gertatzen da Bilboko gaueko elementurik garrantzitsuen "Cortes" hauzategia dela; eta gertatzen da hantxe, Cortes kalean, Bilboko aintzineko kafe-kantari bakarra gelditzen dela bizirik; eta gertatzen da hara abiatu gara honako dokumentu bizi hau egiteko asmoz.



Gure kulturaren pertsonaia batek idatzi zuen berriki aldizkari honetara, ea abortoa, "marikak"... eta abar, euskal kultura zen galdetzen. Nik ez dakit hori euskal kultura izango den, baina dakidana zera da, euskal kultura izanik ala ez, gai horik biziak direla, existitzen direla bizi dugun gizartean, eta beraz ukitu behar ditugula. Oraingo hontan, zihur nago, berriro idatziko du, edo pentsatuko behintzat, joko dugun gai hau ere euskal kultura ez dela esanik. Baina behin eta berriro esango diot, euskal aldizkari bat ezin dugula egin "aditz sipnoptiko" az bakarrik mintzatu, gertatzen den edozertaz baizik. Eta gertatzen da gaua existentzen dela; eta gertatzen da Bilboko gaueko elementurik garrantzitsuen "Cortes" hauzategia dela; eta gertatzen da hantxe, Cortes kalean, Bilboko aintzineko kafe-kantari bakarra gelditzen dela bizirik; eta gertatzen da hara abiatu gara honako dokumentu bizi hau egiteko asmoz.

Bilboko "hauzo alaiari" gaude. Zenbait estadistikek esaten dutenez, hemen prostitutak, tabernak eta klubak pilokatzten dira, beste lekutan ezagutzen ez den proportzio batetan. Hauzoko kale

nagusian, Cortes hain zuzen, 30 zenbakian, aurkitzen da "VARIEDADES" a, Bilboko azken "kafe-kantaria"; holaxe deitzen baitiote bertakoek, eta holaxe omen dago lege aldetik. Atean artisten argazkiak, eta irudiezinezko eskilara piku bat jaitsi ondoren, horra hor lekua, benetan deskribagaitza dena. Ilun samar dago, hala ere irakur daiteke. Tokia zahar zaharra da, baina, edo horrexegatik halabeharrez, sapore berezi bat nabaritzen zaio berehala. Gazteontzat "Variedades" era sartzea beste mundu batetara joatea bezain harrigarria dateke.

## HERNANIARRA

Heldu, eta bagaude bi kantarirekin hizketan. Bata *Consuelo Reyes* da, arrazaz ijitoa ez da, baina horren antza dauka; bestea *Tania*, beti barrezka dabilen andre "panpina" bat.

**Anaitasuna.**- Zenbat denbora daramazue hemen?

**C.R.**- Nik bederatzirte.

**T.**- Nik urte bat eta hamabost egun.

**A.**- Nongoak zarete?

**C.R.**- Ni Malagakoa.

**T.**- Ni "hernanitarra", Hernanikoa. Aite euskalduna da, baina nik ia ez dakit ezer euskaraz.

**A.**- Zein moetakoa jendea etortzen da hona?

**C.R.**- Denetarikoa, moduoneko jendea dator, jende ona, eta baldresak ere bai. Zu entzutera datorrena, entzutera dator, eta entzutera ez datorrena... ba, badakizu...

**A.**- Non egin duzue lan eta nortzuekin?

**C.R.**- Uf! mundo osoan, Espainiako Estatuan eta kanpoan ere, flamenko egiten duten kantari ospetsu askorekin: *Mantolito* "el malagueño", "La niña de los peñes"... Eta hemen Bilbon dantzatzen guztietan: "Tropical", "Copacabana", "Bolero", "Villa Rosa"... Denak zeuden hemendik lehen. Orain bakarrik hau gelditzen da, eta "Bataclan" a, oraintsu berri ireki dutena.

**T.**- Nik hemen Cortesen dagoen "Variedades" en, eta baita ere "Capri" n, "Aranzazu" n, "Gure Kabi" n, Errekal den....

**A.- Zein estilo da gehien gustatzen zaizuen?**

**C.R.-** Andaluziako kanta, pasodoblea, zambra... baina noizean behin tãngoren bat ere abesten dut, eztarriari atsedenalditxo bat emateko.

**T.-** Nik denetarikoa kantatzen dut, baina gehien gustatzen zaidana Aragoiko jota da; hala ere horixe da guttien kantatzen dudana. Ez dakit, ez daukat gogorik...

*Beste kantari bat agertzen da gu gauden bazterretik, Miguel Heredia, aurkezle edo presentatzailearen ere egiten duena, hain zuzen.*

**A.-** Kontaiezaguzu nahi duzuna Miguel.

**M.H.-** Ni Valenciakoa naiz, baina ba daramat bederlatzi urte Bilbon. Lehen aldiz etorri nintzenean, Arriaga antzokian egon nintzen, Mati Mon, hil zen vedette oso afamatu baten konpainiarekin. Galai kantari bezala nentorren. Hilabetea egin genuen, bi errebistekin: "Mati Mon al aparato" eta "Oiga que son guapas". Lau urte emanak nituen konpainia hartan. Penintsula osotik ibili naiz, baina dantzatokitian edo kafe-teatroan izan beharrean, teatrotan beti.

Hemen oso pozik nago, publikoa oso atsegin da, herrikoa... Eta gainera, oraindik zuzenean kantatzen dugun guttiarikoak gara, eta musikariek. Lau soinulari hauk zoragarriak dira: piano, tronpeta, saxofoi eta bateria. Hamaika urte eman dituzte etxe honetan.

Nire kantak egile ezberdinenak dira, eta gainera lagun bat daukat, Vicente Arraga, letra egile dena, eta beronek ematen dizkit kantak neuk estrenatzeko, ez da?, baina gero beste batzuek grabatzen dituzte, nik ez baitut diskarik grabatzen. Valenciakoa da bera ere.



*COLORINES eta TANIA, senar-emazteak, elkar kantatzen.*

**ni ez naizela, adibidez, Juanita Reinaren kanta bat aldatzeko gai. Dena dela, nire kanta sorta oso handia izatean, Espainia edo espainol hitzak aipatzen ez dituzten abestiak aukeratzen saiatzen naiz, denok gustorago egoteko. Euskal kantetan berdin duzu. Iparragirre horrek kanta batetan Espainia aipatzen du"... Hara Espainia, lur hoberikan ez da Europa guztian!..."**

**"IPARRAGIRREK ERE ESPAINIA AIPATZEN ZUEN BERE KANTETAN"**

**A.-** Zergatik, uste duzu, Valencian horrenbeste artista dagoela?

**M.H.-** Bai, badago artista asko; soinulari ugari. Orain bertan, falletan, 150 falla egon dira, eta beraz 150 banda. Valencian umeek, irakurtzea baino solfeoa ikasten dute lehenago. Bai, artisten seaska omen da, pintoreena: Benlliure, Sorolla... Iturbe, piano jotzailea. Conchita Piquer, "tonadilla"ren erregina ere, hangoa zen.

Esaten nuenez, nik Andaluziako kanta landu dut batez ere, baina denetara moldatu naiz, tangoak, boleroak... Dena

dela, gogozkoen daukadana Andaluziako arraza kanta da, eta bolero politen bat... baina garrantzitsuena niretzat letrik zerbait esan dezatela da.

**A.-** Andaluziako kanta moeta horretako abesti askotan, Espainia aipatzen da, ez da?. Ez duzue inoiz problemarik izan holakoak kantatzean, Euskadin? bereziki?

**M.H.-** Ez ba. Batzutan norbaitek protestatzen du, baina nik esaten diot kanta hori ez dela neuk egin, eta ni ez naizela, adibidez, Juanita Reinaren kanta bat aldatzeko gai. Dena dela, nire kanta sorta oso handia izatean, Espainia edo espainol hitzak aipatzen ez dituzten abestiak aukeratzen saiatzen naiz, denok gustorago egoteko. Euskal kantetan

berdin duzu. Iparragirre horrek kanta batetan Espainia aipatzen du — "... Hara Espainia, lur hoberikan ez da Europa guztian!..." — Batzuk aldatzen dute eta Espainiaren orde, Euskadi edo Euskalerriri diote. Nik ez dut ondo ikusten. Kanta, den bezala da. Beharbada, denoi gustatuko litzagiguke bestela izan zedilla, baina hola da, eta ez dugu zertan aldatzekorik behar, ene eritziz.

**GIZON IZATETIK EMAKUME IZATERA**

Jeanette dator orain guregana. Guk ez genuen pentsatzen honekin hitz egitea, aldi honetan bederen, ez baitu orain hemen lan egiten baina etorri denez, probetxatu egin dugu.

**A.-** Jeanette, zuk aktuatu duzu hemen, ezta?

**J.-** Bost urte. Duela urtebete t'erdi utzi nuen. Oso ederki nengoen gainera, jabeak sekulakoak dira eta.

**A.-** Baina zu ezaguna zinen ere Cortesetik kanpo....

**j.-** Bai, "Tropical", "Royalti" eta abarretan aktuatu dut, denak alderdi honetakoak, baina gainera "Artagan" en eta

Barakaldon "Guridi"n ere kontaezinezko alditan egona naiz; Bilbon 18 urte daramatzate! Lehenengo, zinea botatzen zuten, eta gero bariedadeak. Ni "figura" bezala nindoan. Astero ostegun, larunbat eta igandetan Artaganen, eta ostiralean Guridin, arratsaldean eta gauetan. Baina, guttienez, duela 7 urte edo amaitu zen hori, jendea urritzen hasi baitzen, oraintsu egin diren bi jaialdi horiek ezik (Paquito el Trianero, hil zen trabesti baten omenez, eta gay mugimenduaren alde izan zena, zenbait hilaibete dela Aipaturiko jaialdiok Bilboko Artagan antzokian. Bietan bete zen teatroa). Nik "Juanito el Trianero" izena neukan, baina jadanik aldatuta eta guzti nago eta badakizu ni emakumea naizela orain. Nire lehengo izakia hilik dago, baina nik pertsona berbera izaten jarraitzen dut.

Lehen giroa askoz hobea zen "varietes" direlakoetarako, publiko asko zegoen, eta errebista antzeko ikuskizunak egiten ziren. Gero bingoak ireki ziren..., indarkeria kalean... Jendeak oso beldur haundia dauka alde honetara igoteko, eta hemen ez da ezer gertatzen, badakizu, hori jendearen hutsa da. Senar-emazte batzuk etortzen dira kopa bat hartzera, eta ez da ezer gertatzen. Jendea ba dator, bai, baina gehiago etorri beharko zen, hemen baitago Bilbon dibertitzeko leku jatorra.

*Jeanette, eskerrak eman ondoren, irten egiten da, berak daraman tabernara joan behar baitu.*

**BILBON JAIO ETA BIZI**

*Kabaret oso berezi honetan, Miguel, Consuelo eta Taniarekin batera, hiru neskek hartzen dute parte "showan"; "streap-tease" delakoa eginik, baina "izar" ukaezina Angelillo de Barredo "Colorines" da.*

**A.- Zu Bilbokoa zara, ez da?**

**C.-** Bai, bilbotarra. Fernandez del Campo kalean jaioa, eta "quinta parroquia-n bataiatua. 30 urte daramat honetan, eten gabe lanean, eta susma dezakezunez, leku gutti geratzen zait ezagutzeko. Orain hemen gaude ba... zirkunstantziengatik: familia. Bilbon egotea gustatzen zait... Tokia arrunta da, ttikia, baina egunero kobratzen dut, eta hori da interesatzen dena.

*Kamerinora pasatu gaitu. Gelatxo ttukun bat da, ormak artisten fotoz estalirik, eta jantziak, zapatak, kapela eta lukmak nonnahi.*

Orain egun batzu — jarraitzen du Colorinesek — beste elkarrikuska bat egin zidaten hemen bertan "Punto y Hora" aldizkarirako; bigarrena zen aldizkari berdinerako. Ez zenuen aurrekoa irakurri? Bai, gelditzen diren kafe-kantariei buruzko artikulu bat egiteko izan da. Oso gutti gelditzen dira, bat Zaragozan, "Plata" du izena; Bartzelonan "Arnau" deritzona, hau bezain ttikia da hori, orkestarekin ere, eta artista "solistekin".



*COLORINESek kamerinora pasa gintuen.*



*CONSUELO REYES. Arrazaz ijito ez izan arren, hola ba dirudi.*

Hemen bezala, hemen ez baitago talderik.

Leku hau duela 30 urte bezalaxe dago, ez dute ezer aldatu. Bilbon bakarrik hau gelditzen da, eta benetako "solera" rekin. Hona moeta guztietako jendea ba dator, baina gazteen proportzio nabaria dago. Hauzoa, eta zuk badakizu, bohemioa baita, eta bohemioa den jendea, jende modernoari ez dio axola. Gau batetan afaltzera edo irteten dira eta... "joño!-nora goaz? Ba goazen espektakulo bat ikustera", eta hona datoz. Gainera artista baloratzen dute, ez baituzu lekua begiratu behar, artistaren kalitatea baizik, eta lekua txarragoa den neurrian, hobeagoa izan behar du artistak jendea gustatzeko, ezta? Honelako toki batetan ez dago bozgorailu onik, lau edo bost mikrofono, hamabi laguneren orkestra bat..., ulertzen didazu, ez da? Ez dago publiko selekturik; hona, itsasportua izatean, errusiarra, inglesa... denetarikoa etortzen da.

**A.- Zer egiten duzu zuk eskenerioan?**

**C.-** Ni kantari izanez hasi nintzen, kantari fina. Gaur hori ez da jendearen gustokoa. Orduan dantzari sartu nintzen, beno, nik bizitza osoan egin dut dantza, baina dantza nire adinerako ez da dagoeneko. Beraz, komizitatera pasatu naiz, hau baita gaur egun gustatzen dena, ondo igarotzea, txantxa... Gainera, ikusi nauzu eta ez dizut ezer esan beharrik.

**A.- Ezkonduta zaude, ezta?**

**C.-** Bai, duela ia hamar urte. Zurekin lehen egon den Tania da nire andrea. Donostian "La Perla"n ezagutu nuen. Beno, gaur ez da existitzen, baina "tablaio flamenkoa" zen. Ba, han ezagutu nuen gutti gora behera orain hamalau urte, seme handienak 14 urte beteko baitu laster.

**A.- Zenbat seme-alaba duzu?**


**C.-** Lau. Ttikia 7 urtetakoa. Hiru neska eta mutil bat. Nagusiak Donostian dauka, ikasten, amonarekin, eta ttikiena gurekin daukagu hemen, neure amaren etxean bizi baikara, Bilbon.

Beste egun batetan etor zaitezte lasaitasunez, eta erakutsiko dizkizuet programak eta propaganda... egon naizen teatrokoak.

*Deskribatzen saiatu garen mundu nos talgiko hau ezagutzeko ez da ordaindu beharrik, sarrera dohanik baita. Konsumizioak 100pezeta balio du. Nik ez dakidana zera da, nola konponduko den jabea, horrenbeste jenderen soldaten dirua ateratzeko: 4 musikoa, 7 artista, 3 barrari...*


*Hau dela, bai, Bilboko azken kabareta esan dezakegu trankil. Beste batzu egongo dira, eta hurrengo batetan hitz egingo dugu haietaz, agian, baina bat ere ez hainbeste "jatortasun" eta aintzineko xarmandurarekin. Benetan merezi duela ikustatzea.*

# SEASKA



**adiskide,**

**Garai honetan, SEASKA Batasuna, kinka txarrean dago. Horregatik, aurten ere, IKASTOLA BIZI DADIN, EUSKALDUN BAKOITZAK 5 LIBERA Kanpaina egitea, erabaki dugu, Ikastolak zutik atxiki behar ditugu, eta hortarako denon laguntza beharrezkoa zaigu.**



# ESKOLARAKO LIBURU GORRIA

Nolako istiluak muntatu dituzten! De la Cierva ministroak dioenez, ka-ka bat da. Gure moralaren zaindarien eskuak burura eramane dituzte. Baina aluak izan behar! Egundainoko mesedea egin diete liburua argitaratu dutenei. Hamar mila ale saldu omen dituzte. Bestela, galdetu zenbat kostatu zaien egin dieten propaganda gutzia. Ezer gutxi! Telebistan, irrastian, egunkarietan...

Eta zergatik hau guztiau?

Irakaskuntza mailan, ikaslea, tradiziozko molde guztiak puskatzera bultzatzen duelako. Heziketa barruan demokrazia ere sar daitekeela esaten duelako.

Liburuaren helburua, ikasleen zentzu kritikoa bultzarazten duelako. Eskolaren planteiamendua zeharo aldatzen duelako.


Nola onar dezakete hori, mantendu nahi duten gizartearen oinarriak ahurtzeko arriskuan jartzen dituzte?

Batez ere, sexualitateaz egiten diren planteiamenduak aipatzen dituzte, eta esaten duen guztia honetan datza:

Honetaz jakin daiteken guztia ezagutzeko eskubidea dutela eta harreman sexualak edukitzeko orduan, arazorik ez sortzeko, neurriak hartzea komenigarria dela (antisorgailuak, jagongailuak, eta abar...)

Hau dela eta, argitaratzailea preso hartu dute eta "eskandalu publikoa" muntatzeagatik epaituko dute.

Eta, teorian, ez dago zentsuararik. Egongo balitz...!!!



# SAHARA-POLISARIO


Orain dela lau urte hasi zen sahariarren burruka, Marruecos, burruka hau bere interesen alde amai erazteko ahalegin guztia egiten saiatu arren, badirudi geroago eta zailago gertatuko zaiola.

Hasera batetan, Polisariokoek ez zuten ez behar beste harmarik ea eta indarririk ere; baina, orain, gauzak, bere alde jartzen ari dira.

Lehen Maroko eta Mauritania bakarrik utzi du Maroko bere saioetan. 35 estatuk onartzen du Sahauriar Errepublika Arabea eta bi edo hiru boto gehiago falta zaio Afrikako Batasunerako Erakundean sartu ahal izateko.

Gauzak honela, gero eta ilunago daude gauzak Marokoke gobernuarentzat. Eta, egia biribila da Polisariokoak, Saharako herria, edozein herrik berezko duten eskubidea defendatzearen burrukatzen dira: Autodeterminazioa... Independentzia.

Aurrera mutilok, zuena da eta!



# ALDERDIAK ETA EUSKARA

Egun euskara, alderdien mundu horretan, gai madarikatua dela dirudi. Honen alde, etengabe hitz egiten dute; baina... arraroa iruditu arren, erdaraz bakarrik mintzatzen dira euskara defendatzerakoan. Gure hizkuntza bigarren mailako hizkuntza bat da. Eta... noski! Euskara guttiak ulertzen dutenez eta erdara, gehienek edo denek, beren propaganda, mitin, aldizkari eta abar erdara hutsez ateratzen dituzte.

Sortu berriak dira Bizkaian "Euskal Herrian Euskaraz" taldeak. Ene ustez, garrantzi handia du guretzat gertara honek, zeren eta ikusten denez, alderdiei ez baitaie interesatzen gure hizkuntza defendatzeak suposatzen duen lana aurrera ateratzea. Horrela ba dirudi behintzat. Talde heuek, lehen lan bezala, txartelak egin dituzte. "Euskal Herrian Euskaraz" lema zabaltzeko asmoz. Gaztelera hutsez agertu ziren txartelen gainean edo ondoan ipini zituzten eta, ikusi duçanez, eltxoei egiten zaiena egin dute txartelekin:

plast! kendu eta kito! Eta, hauek dira euskararen alde duadenak?

Euskara ez dela inposatu behar diotela kontutan hartzen badugu... Behar beharrezkoa da, elebitasunera heltzea; baina... nola lortu euskarra inposatu gabe? Nik, behintzat, ez dut erantzunik aurkitzen.





# EL SALVADOR, GUATEMALA...


Urtarrilaren 22an Salvadorreko hiriburuan herriaren mobilizapen ikaragarria eman zen. Erantzuna ere ez zen txantxetako izan. Armada tirokoa hasi zen eta 80 pertsona inguru hil zuten. Normala den bezala, jendeak ez zuen armarik.

Ofizialki, eskuineko jendea izan omen da erruduna, baina nork sinetsi honelako trikimailu bat?

Bestalde, Guatemalan, nekazari talde bat Espainiako enbaxadaz jabetu zen. Honekin, han ematen den errepresioa mundu guztiaren aurrean salatu nahi izan zuten. Baina prezioa garestiegia izan zen: Indar armatuek denak asasinatu zituzten, baita enbaxadako enplegatuek ere. Bat bakarrik gelditu zen bizirik: Enbaxadore jauna. Eta mirakulua dirudi honela gertatzea. Beno, egia esan, beste bat ere bizirik irten zen, Gregorio Yuja Xona; baina, ospitalean zegoela, bahitu eta tiroz hil zuten "terrorista" zela argumentatuz.

Guk, berrogei urtetako diktadura jasan ondoren, ondo ezagutu behar genuke horrelako argumentuen oinarria eta gehiago azken urteotako "demokrazia" eta une honetan bizi dugun egoera gehietzen badiogu: Herria gutxi batzuen interespean mantentzea. Berdintsu da, hau lortzeko, fusilen indarra erabili behar bada ere. Ondorioak zapalduok sufritzen ditugunez...

Bitartean, Latinoamerika askatasuna egarria jasaten!



## RODRIGUEZ DE LA FUENTE HIL ZEN

Alaskara joan zen eta oinak aurretik zituela ekarri zuten. Bere bizitza guztia piztien mundura dedikatu zuen, asko gustatzen zitzaion eta. Denok ezagutzen ditugu berak egindako programak: "Fauna", "el planeta azul"... Egia esan, piztien mundua ondo ezagutuko zuen; baina egia da ere, irabazi ederrak atera zituela honi eskerrak.

Bestalde, eta "EGIN"en agertzen zen bezala, naturista zela esan daiteke; baina ez zen ekologista, zentrale nuklearren alde baitzegoen. Sistimaren langile edo enplegatu bat besterik ez zen izan.

Bestela, nola eraman batera aurreko baiezen hau eta animaliei buruzko zaletasuna? Gehien gustatzen zitzaion piztia otsoa omen zen. Ez ote da izango hau gaurko sistimari zion amorearen irudi bat? Horrela deitzen dituzte, behintzat, eta batzutan, gure zapaltzaileak.

Feministak ere, maitasun ikaragarria zioten, berak egindako deklarazio batzuegatik: Hauetan matxista bezala agertu zen.



## NAFARROAKO LAUREADA

1936.eko gerra amaitu ondoren, Frankok, Nafarroako ezkutuari laureada famatua ezarri zion. Eta euri asko egin du hau gertatu zene-tik. Egun, UCD eta antzekoei bakarrik interesatzen zaie trofeo hau mantentzea. Hala eta guztiz ere, nahiko normala iruditzen zait jarrera hau, demokrazia jantzi diren betiko frankistak baitira talde hau osatzen dutenak. Ez da hain normala, gerra galdu zutenen artean dagoen alderdi batek postura berdina mantentzea (nahiz eta egun bere politika, duen izenarekin (PSOE) oso ados ez egon).

Hau dela eta, Otsailaren 4an, Nafarroako herri batetan gertatutakoa asko adierazgarritzat har daiteke. Herriaren izena Kaskante. Egun horretan, herri honetako lau pertsonak, gobernadoreak aurretik jarri-lako munda baten berronespena hartu zuten. Arrazoiak: Udaletxeko balkoian Nafarroako ezkutua laureadarik gabe ipintzea.

Hau, 1.979.eko Abenduaren 25 ean gertatu zen, arratsaldeko bostetan. Udaletxera sartu eta, aipatutako ezkutua erantsita zuen zapi gorri bat jarri zuten. Arratsaldeko zortzi t'erdia arte egon zen balkoian. Gero, alkateak kentzeko agindu zuen.

Urtarrilaren 5ean mundaren berri hartu zuten eta Otsailaren 4an berronespena eta 8.000 pezetako munda berria alkatea "iraindu eta Udaletxean pankarta bat ipintzeagatik". Eta, mundatuek diotenez, ez zuten alkatearekin hitzik ere egin, ez baitzegoen une horretan. Bestalde, alkate sozialista batek, laureadarik gabeko ezkutua "pankarta" bezala kontsideratzeak harrituta utzi dituela diote.

Oraindik ere, gerran irabazitako trofeoak direla medio eztabaidatan ibili behar?

Ez dute esaten horrelako gauzak ahortzi behar ditugula? NOIZ? Adibide ederrak jartzen ari zaizkigu!

BIXER



## ANTISORGAILUEK ZERBAIT POSITIBOA ERE


Orain arte, eta antisorgailuak aipatzerakoan, beti bigarren mailako efektuak aipatu dira eta, beti ere, negatibotzat jo.

Haurrik ez edukitzeko ematen duten laguntasunetik aparte, txarrak direla esan ohi dute. Baina, guztiau, nire ustez, moral kristau eta hipokrita batetan oinarriturik esan ohi dute eta emakumea haurrek edukitzeko makina bezala kontsideratuz.

Orain, ikerketari batek diotenez, ba ditu efektu positiboak ere. Honen ustez, antisorgailuak hartzen dituzten emakumeek titietan eta beste zenbait lekuetan, hartzen ez dituztenek baino tumore benigno gutiago edukitzen omen dute eta hau, positibotzat har dezakegula dio. Ika-garrizko abantaila.

Eta gizonentzako antisorgailuak direla eta, zera dio: Oraingoz eta ditugula merkatuan aurkituko eta, epe laburrean, oso zaila dela ikustea ere.

Hala ere, Txinan gizonezkoentzat antisorgailuak erabiltzen dituzte eta diotenez, ondorio onak ematen dituzte.



## 97 URTE MARX HIL ZELA

Denbora asko igaro da hau gertatu zenetik baina, ukaezina da ere azken denboratako iraultzarik handiena egin zuela.

Marxek, gizarte batetan, ekonomia dela nagusi frogatu zuen. Ekonomia horren oinarriak aztertu eta bere minbizia ere aurkitu zuen: krisia, inflazioa, ... eta honi erantzun bezala, klase burruka planteiatu zuen; egun irauten duen klase burruka. Harez gero munduak buelta asko eman du baina bere teoriak bizirik dirau. Eta ez da hilko kapitalak irauten duen bitartean.

Bere heriotza ez da ospatu behar den gauza bat, noski. Baina, langile-riak egin diezaiokeen omenaldirik hoberena bere interesen aldeko burruka gogorrean jarraritzea litzateke. Einesteinek errelatibitatearen teoria aurkitu zuen bezala, Marxek, kapitalaren erreinua bukatuko den gauza bat dela erakutsi zigun. Eta burjeseriaren seme izanik, langile-riaren familia handian sartu eta integratu zen.

Gaur, askok ukatzen dute bere teoria baina, argi dago ere, gehienbat errealtatearekin bat doala. Noiz lortuko ote dugu, gaur egun amets bat den hori (gizarte sozialistara heltzea) errealtate bihurtzea?



## UCD, PSOE, UPN EUSKARAREN "ALDE"

Nafarroa ez da Euskadi eta Euskara ez da nafartarren hizkuntza. Une honetan gutxiengo batek bakarrik erabiltzen duenez, ez dago Nafarroako hizkuntza bezala onartzerik. Ez litzateke "demokratikoa" izango.

Eta, hor ditugu UCD, PSOE eta UPN jarrera hau defendatzen.

Konstituzioak dioenez, gaztelera jakiteko eskubidea eta beharra dugu. Euskarari buruz, eskubidea bakarrik dugu. Zer esan nahi du honek? Ba... legean oinarriturik, talde batetan denak bat ezik euskaldunak (euskaraz dakitenak) badira, ezagutzen ez duen horregatik guztiak gaztelera mintzatu beharko direla. Honen ondorioak ikustea oso erraza da. Gaztelera da eta izango da nagusi. Hauxe da elebitasuna seguraten duen legea. Eta noski!, hori da benetako elebitasuna; euskara hilibiratuko duena eta gaztelera mantendu eta oraindik gehiago nagusituko duena. Politika, ezta?

Beti txorradatan ibili behar! Orain arte kanpoko hizkuntza bai inopatu digute, eta orain, "demokratikoki" berdin jarraitu behar!

Euskara benetan interesatuko balitzaie epe zehatzak eta beharrezkoak diren bitartekoak jarriko lituzke; baina, epeak markatzea "faxismoa" denez...

Euskara bost axola zaie. Eta gainera, nola daiteke beti aurka saiatu direnak, orain, berreskuratzearen alde jartzea? Hori, haltzari fruitu bila joatea litzateke. Eta "demokrazia" guztiaren gain dagoenez...



# LA AMABILIDAD



## Atsegin izatea, ate iriki bat da.

Lanari lotuta egon eta eragiteko. Zure naiak eta premiak jasoaz, lagundu nai zaitugu. Giza-legezko artu-emanak serbitzu ohea bait dakarte.

Ta ori da, ain zuzen, guregandik zuk nai duzuna. Gure bezeroak ala sinisten dutelako, guregan jarri dute beren uste ona.



**Banco Guipuzcoano**

LA AMABILIDAD, UNA PUERTA ABIERTA

# MUNDUKO ZENBAIT

Zenbat gauza garrantzitsu ez diren gertatzen momentu berean mundu zabalean!, batzutan zailtxo egiten da gai konkretu bat aukeratzea, berataz iharduteko, alde batetik, beste guztiak ikutu gabe utzi behar direlako; bestetik, etorkizunerako, eta munduko martxarako zein den inportanteena erabakitzea, nahiko gogorra delako.

Hori dela eta, gaur nahaste-borraste hau idaztea erabaki dut. Ondo egongo da? Ez dakit, zeren zabaltasunaz irabaziko dudana, sakontasunaren aldetik galduko baitut, baina dena den, goazen aproba egitera.

## PALESTINDARRENTZAKO AUTODETERMINAZIOA

Palestindarrentzako autodeterminazioa eskatu du Giscard-ek Ekialde Hurbilera egin duen bidaiaren erdian. Ez zaizue miresgarria iruditzen? Noiztik eskatzen dute Frantziako lehendakariaren antzekoek autodeterminazioa herri zapalduentzat? Noski, tontoak ez bagara, laster kontura gaitzke, deklarazio horiek egiteko egon diren arrazoiak hain garbiak ez direla. Handik zebilen Giscard, beti bezala buztiekin ondo geratu nahiz; be-

no, oraingoan ondo geratzea baino gehiago interesatzen zitzaion, petrolioaren balioa baita; beraz, inguruan zeuzkaten belarriei plazerra eman nahiz, entzun nahi zutena esan die.

Ulergarria denez, erantzunak arin eta alde askotatik irten dira: alde batetik pozik ipini direnak, Giscard-en borondate ona goratu dutenak, azkenean Mendebaldeko Estatu handi batetako lehendakari batek esan dezakeenak zerbaitearako balioko bailitzaie, edo beraien eskubideak benetazkoak direla frogaturik geratuko bailitzen...

Beste aldetik, jakina, israeldarrak, eta beraien alde atera diren lau katua. Lili-ragarria, benetan, pertsona baten hitzek eduki dezaketen oihartzuna.

Baina egon diren erreakzio guztien artean, ba da horretaz hitz egiteko gogoak ematen dizkidan bat: joan den astean, Manifestazio bat egin zuten israeldar batzuek tel Aviv-en Korsiarren Autodeterminazioaren alde! Ez naiz hasiko pertsona horien ideologia, edo beraien arrazoiak aztertzen, baina ez duzue uste detalea oso bitxia izan dela, eta apur bat pentsatzeko beta ematen duela?



# BERRI NAHAS-NAHAS

Frantziako politikariek jarraikiz, badago bat, azken asteotan aldizkari eta egunkarien orri asko beterazten dituen; PCF-ko lehendakariak dihardut oraingoan, hots, Marchais Jaunaz.

## MARCHAIS JAUNAZ

Ez da beraren iraganak duda handiak sorrerazten dituen lehen aldia, baina oraingo honetan, eta agian, lehendakari-tzarako hauteskundeak urrunegi ez daudelarik, luzeak eta nahiko gogorrak izan dira eztabaidak.

Zer egin du bada, jaun honek aurreko urteetan? Azkenengoetan egin duenaz, ados edo kontra egon gaitezke, baina gutxi gora behera, horixe da edozein politikariren aurrean eduki ohi dugun jarrera. Baina ez da beraren militantzia, edo PCE-ko lehendakari-tzar egin duenak buru asko arduratu dutena. Ez, arazo 2. gerraren garaian Marchais-ek egin duena jakitea da. Ezaguna da bera atxiloturik egon zela Alemanian, baina kanpotik irten ondoren egin zuenaz sortu da eztabaida: berak dioena, arin Frantziara bihurtu zela da, baina bi aste direla, aldizkari ezagun batetan, han, alemanekin "kolaboratuz", urte bat egon zela frogatu daitekeela esaten duen artikulua bat agertu zen.

Oraingoan ere, ulerterraza da horri buruz egon den polemikaren zergatia zein den ikustea. Hasteko, gehiegi izango litzateke, PCE-ko 1. sekretariak hori egitea. Beste aldetik, ondo, oso ondo etortzen zaio asuntu hori askori, hauteskundeak hurbiltzen direlarik, PCF-ko izena horrela zikintzea.

Akusazioak grabeak izan dira; nola ez, guztiek hartu dute parte eztabaidan, bai atakaturik, bai argitasuna egin dadila eskatuz. Egia bakarrik batzuek ezagutzen dute. Agian guk ez dugu hori guztiz ezagutuko. Baina, dena den, ez dut uste pertsona konkretuen bizitza erabil daitekeela politika konkretu baten alde edo kontra egiten denean. Argudioek bestelakoak izan beharko lukete, eta seguru aski, bestelakoak ez badira, beste horiek existitzen ez direlako da. Eta benetan, zikinegi deritxot metodoari.

## RODESIA

Rodesian ezin lor zitekeen erresultatu hoberik! Hauteskundeak egongo zirela jakin genuenean, denok genekien nazionalistek benetak gehiengoaren ahotza edukiko zutela, baina nork pentsa zezakeen, orain arte boterea eskuetan eduki duten zuriak beren pribilegioak galtzea onartuko zutela?

Egia esan, orain arte nazionalistek, eta



batez ere gerrilerok eduki duten jarraial beldurra bakarrik sortu ahal zien momentuz politikoki eta sozialki goren zuden. Hala ere, hor daude hauteskundeen erresultatuak: Mugabe-ren ZANU-k gehiengoz irabazi ditu, eta ZANU, seguru aski, nazionalista erradikalenean osatuta dago. Pentsatzekoa zen zer gertatuko zen orain Estatuko organismo eta esturkturaren, zer ekonomian, hau da, ea nazionalizazioak arin egingo ziren, ea zer gertatuko zen Zuriak dauzkaten lur eta bestelako gauza guztiek; baina ez, orain arte ez da ezer handirik gertatu. Ulergaitza iruditu ere, egoteko itxura ematen zuten guztiek; denek zioten Mugabe zela Rodesiarako ongien atera zitekeen pertsona, berarekin, denak ados eta pozik egoten, bakea errealitate bat bihurtuko zela laster, eta Rodesiako etorkizuna on eta aberats ikusten zutela.

Laster erreakzionatu dute aintzinako boteretsuek gorde ahal zehiena ez galtzarren, eta batez ere, Mugabe eta ingurukoak larregi anima ez daitezten.

Alde batetik, dauden indar errealak beraren kontra ez ipintzarren, oso zuhur agertu da Mugabe orain arte; eratu duen gobernuaren tendentzia guztia-

ko ordezkariak daude, eta dauden bi Zuriak beraien balioagatik izan dira aukeratuta, nahiz eta politikoki, orain arte, etsai amorratuak izan diren. Baina ba dirudi ikusiezina baztertzea ondo datorkieke denei...

Sarritan jazotzen den legez, argi dago Mugabe eta ZANUk iraganeko erradikal-talsuneko zati handi bat galduko dutela, errealitatea eta arazo konkretuen aurrean aurkituko direnean. Eta horretan, gainera, ondo lagunduko dute besteek; nazionalizazioak bide bat zatekeen, baina ez dirudi oraingoz asko egingo direnik, eta horrela izanik, derrigorrezkoa da onartzea hein handi batetan botere ekonomiko Zurien eskuetan jarraituko dela. Azken hauek jadanik plan handiak prestatzen hasi dira; plan horik, batez ere, zenbait estatu atzeritarren laguntzarekin izango ziren burututa eta horrek, noski, Mugabe eta beraren gobernuaren eskuak asko lotuko litzuke.

Ikusiko dugu non hasten den Mugabe eta beraren mogimenduaren iraultzatasuna edo gutxienez, progresismoa, aldi berean, Zurien maltzurkeria noraino hel daitekeen ikusi ahal izango dugularik.

MARIA JESUS ESTEBAN

## SARRERA

\*\*\*

Jende arrunta, gure betiko jende ixil edo bozgailugabedunari, kazetariak normalean ez diogu kasu askorik egiten. Haien aburuak baliogabeak kontsideratzen dira. Haien esanak, mesanak direla sinestarazi nahi digute. Hala ere, balako jendeak, historiaren atal garrantzitsuenak idazten obi du.

Jende ezezagunaren eritziak ez dira batere fruitugabeak. Giza arruntaren ideiak gure pertsonaia famatuaren desmitifikapenerako balio dute. Denak bezala, herriaren jakituria adierazgabeari lapurtu egiten diote beren sentimendu, eguneroko lanez probetxatuz.

Horregatik bain zuzen, ANAITASUNAK irakurle guztiei norberaren ideiak azaltzeko, sail ireki bat proposatzen die. Sail ireki bat eta joko psikologiko bat batera. Urte honetan zehar elkarrizketen bidez irakurleen eritziak azaldu nahi ditugu. Proposatzen dugun elkarrizketa guztiz libre eta atipikoa izan daiteke. Hala ere erantzuleak 10 galdera zehatzi beharrezkoak luke erantzutea, beste gainerako galdera—erantzunak berak gehituz; nahi izanzen duen modu eta erara. Beraz, galderaerantzun guztiak, irakurleak egiten ditu, 10 horiek ezik. Hamar hauei ere erantzun behar dio.

Elkarrizketa guztiak anonimoak izanen dira. Hau da, Anaitasunak ez du argitaratuko inongo elkarrizketaren egilearen izena. Hala ere, idazten duenak beraren karnetaren zenbakia, izena, adina eta lanbidea azal batean bidaldu beharko digu. Azalpen horiek gabe ez dira argitaraturik izanen.

Honarte gure asmoaren erdia azaldu dugu. Goazen orain sail honen bigarren parteaz azaltzera.

Bigarren parte hau joko psikologikoa duzue. Irakurleek elkarriztatutaren nortasunaren ageri batzu igerririk behar ditu. Hauek dira: Adina (bost urtez gorra behera), lanbidea, sexua, bizilekua (hiri edo herri handi batetan bizi den ala herri txiki edo baserri batetan bizi den). Azkenean, elkarrizketa bakoitzari puntuak eman beharko dizkio, -5tik hasita +5 arte.

Puntu gehien hartuko duen inkesta irabazlea izanen da. Lehenengo hiru inkestei Anaitasunak txapela eta zerbaite gehiago sarritzat emanen dio.

Elkarriztatuen datuak igerririk dituenari Anaitasunak urte beteko harpidetza dohaina eskeintzen dio.

Jokoaren bigarren parte honetan, ANAITASUNAREKIN lan loturak dauzkatenek ezin izanen dute parterik hartzea; bai aldiz, elkarrizketak prestatze kotan.

# 3

\*Zer duzu maiteen mundu honetan. Bakea.

\*Zer pentsatzen duzu hemengo talde politikoei buruz?

Jende txarrik eta jende jatorrek antolatuta daude, baina azkenean denak txarrak.

\*Zeintzu izen aipatuko zenituzke gustora? Zergatik?

Straus, M. Caballi, Mikel Laboa, M<sup>a</sup> Ostiz-abar. musika asko gustatzen zaidalako.

\*Zer nolako literatura gustatzen zaigu?

Zienzi-Fikzio edo Pikareska.

\*Zilegia al da belaunaldi biziak etorkizunekoengatik sakrifikatzea? nire ustez bai, gizona ezagutzeko aski da norbere burua ezagutzea.

Esaten da, denok berdinak garela baina ni ez nago addos.

\*Zer pentsatzen duzu iraultzari buruz?

Justizia ba dago ez da beharrezkoa iraultza.

\*Euskarak etorkizunik al du?

Nirekin, uste dut ezetz.

\*Anaitasuna aldizkariari bagogozkio gai berririk sartuko zenuke?

Artikulu gehiago euskara errezagot ipiniko nuke.

\*Anaitasunaz balorapen bat egin ezazu mesedez.

Ezin dut egin. Nik oraindik ez dut ulertzen ondo artikulu osoa, ez zen izango etikoa.

# 4

\*Zer duzu maiteen mundu honetan?

Lasai bizitzea eta aberatsa izatea.

\*Zer pentsatzen duzu hemengo talde politikoei buruz?

Denak "praxis" batzu direla, hitz asko baino egin gutxi.

\*Zeintzu izen aipatuko zenituzke gustora. Zergatik?

Nire irakasle Milian eta alde egin zuena, Jon. Oso begikoak direlako, eta oso alaiak gainera!

\*Zer nolako literatura gustatzen zaizu?

Literatura pornografikoa.

\*Zilegia al da belaunaldi biziak etorkizunekoengatik sakrifikatzea?

Ez zait gustatzen galdera, oso luzea da.

\*Zer pentsatzen duzu iraultzari buruz?

Mundu honetan beharrezkoa dela.

\*Gizona ezagutzeko aski al da norbere burua ezagutzea?

Norbere burua ezagutzea nahiko da.

\*Euskarak etorkizunik aldu?

Uste dut baietz horregatik euskarazko eskoletara etorten gara.

\*Anaitasuna aldizkariari bagogozkio, gai berririk sartuko zenuke?

Nik uste dut erdara gehiago ekarriko balu gehiago salduko litzateke.

\*Anaitasunaz balorapen bat egin ezazu mesedez.

Beste galderan erantzun dodan bezela euskara larregi dator, baina beste aldeetik nahiko "instruktiboa" da.

# 5

## \*Zer duzu maiteen mundu honetan?

Dena maite dut. Batez ere dauzka-  
gun lasaitasun eta erresponsabilita-  
tea, gure haize garbi eta freskoa, gure  
lorategiak, gure elkartasuna.

## \*Zer pentsatzen duzu hemengo tal- de politikoei buruz?

Nik ez dut pentsatzen baina oso na-  
gusiak direla iruditzen zaizkit. Edozein  
gauza ondo erabakitzeke gai direla.  
"Politika" ona egiten ari direla eta de-

## JOKOAREN BALDINTZAK

### ● INKESTARI DAGOZKIONAK

- 1) Irakurle guztiek parte har dezakete. Gure kolaboratzaileek ere bai.
- 2) Makinaz edo eskuz idatziriko hiru orralde bidali beharko dituzu.
- 3) Euskaraz. (Edozein euskalkiz). Ez kezkarik izan ortografiaz edo eta joskeraz. Zuzentzekotan geuk zuzen dezakegu.
- 3) ASTERIZKOZ DOAZEN HAMAR GALDEREI BEHARREZKOA DUZU ERANTZUTEA.
- 4) Zuk zure buruari gehiago galdetzeko eta erantzuteko libre zara.
- 5) Izengabetasuna gordeko da inkesta guztietan. Hala ere bidaltzaileak kar-  
netaren zenbakia, zuzenbidea eta izena bidali beharko ditu. Alderantziz, ez  
da argitaraturik izanen.

### ● IKERKETARI ETA PUNTU EMATEARI

- 1) Irakurle guztiek parte har dezakete.
- 2) Anaitasunako erredakzioa, idazleek edo eta kolaboratzaileek ezin dute atal  
honetan parterik hartu.
- 3) Postaz, eta bidaltzailearen izenarekin batera, ematen dituzun puntuak garbi  
azaldu beharko dituzu, puntuazioaren laukitxoan gurutzatze bat markatuz.
- 4) Berdin egizi ikerketari dagozkion galderekin, laukitxoan gurutzatze bat mar-  
katuz.

## PUNTU EMATEA

Elkarrizketa honi zuk zenbat puntu ematen diozu?

Ingura ezazu biribil batez

-5 -4 -3 -2 -1 0 +1 +2 +3 +4 +5

Zure ustez, elkarriztatuak ondoko adina duke:

- 16tik - 23raino.....
- 23tik - 31raino.....
- 31tik - 39raino.....
- 39tik - 47raino.....
- 47tik aurrera.....

Zure ustez elkarriztatua:

- emakumea da.....
- gizona da.....

Zure ustez elkarriztatua:

- hiri handi batean bizi da.....
- herri handi batean bizi da.....
- herri txiki edo baserrian bizi da.....

Zure ustez elkarriztatua lanbidea duke:

- Esku langilea.....
- langile espezializatua.....
- Arrantzalea edo Baserritarra.....

- Goi mailako kuadro teknikoa (ekonomista, inje-  
niadore, peritua, medikua, abokatua), irakaslea,  
kazetalaria, etab.....
- Behar mailako kuadro teknikoa (Bulegolaria, idaz-  
karia, ajentea etab).....
- Entrepresa txiki baten jabea.....
- Maizterra.....
- Goi burjesia.....

na konponduko dutela herriarengan  
beti beraien begiak eta beraien helbu-  
ruak dauzkate eta.

### \*Zeintzu izen aipatuko zenituzte gustora? Zergaitik

Mafalda, Asterix eta obelix, Baku, Kar-  
kaitz, Zakilixut, Carlitos, Snoopy, Pin-  
poil eta abar eta abar...

Ongi dago —nire buruan behintzat—  
munduko jende jakintsuenak direlako.

### \*Zer nolako literatura gustatzen zaizu?

T.V.E.rena eta panfletoarena, literatu-  
ra gehiegi daukate eta.

### \*Zilegia al da belaunaldi biziak etor- kizuneko eugatik sakrifatzea?

Ez dakit komeni de, baina egiten ari  
da. Adibidez, Suarez, Garaikoetxea  
eta beste gizaixo pilo bat (nahiz eta be-  
launaldi bat izan) haien bizitzak sakrifi-  
katzen ari dira guregatik eta etorkizu-  
nekoengatik —hori esaten dute  
behintzat— Eta guk ere bai sakrifizio  
handi bat egiten ari gara Lemoizen.  
Guk bakarrik energia aterako dugu eta  
datozen belaunaldirentzat Zentrale  
Nuklearren ondorio dotore batzu utzi-  
ko dizkiegu. Horrexegaitik bakarrik egi-  
ten da, etorkizunaz pentsatzen.

### \*Gizona ezagutzeko aski al da nor- bere burua ezagutzea?

Norbere burua eta gizona ondo eza-  
gutzeko, hobe ireki ezazu, medikuntza  
liburu bat, ondo ikas dezakegu nola  
garen.

### \*Zer pentsatzen duzu iraultzari bu- ruz?

Esan dut nik ez dudala pentsatzen.  
Baina ikusteri dudana hauxe da:  
"Iraultza", bizitza baten zehar berari  
buruz hitz egiten egoteko gauza on bat  
dela.

### \*Euskarak etorkizunik al du?

Bai noski, hauteskundeak izan baino  
lehen beti aurkitu ahal izango dugu  
euskararen etorkizunaren agintzea, al-  
derdi polikoen programaketan.

Beste alde batetik Suarez euskara ikasi  
arte, jende asko jarraituko da euskara  
ikasten.

### \*Anaitasuna aldizkariari bagagoz- kio, gai berririk sartuko zenuke?

Zertarako gai berririk, ez badut ia ezer  
ere ultzen.

### \*Anaitasunaz balorapen bat egin ezazu mesedez.

—Serioegi zaretela—

# HARRI BATEKIN HASI ZEN



zure aurrezkien banketxea



**BANCO DE BILBAO**

**gizaldiz gizaldi aurreratzen**



# ANAITASUNA

## 400



**ANAITASUNA** laurehugarren zenbakira heldu da?

Bai! ba dakit mila hutsune dituela. Ba dakit, propagandan esaten denaren kontra, "ahaldenerokoa" dela, azken batez berau ere "arinaiztarra" baita (beste zentzu batetan, noski). Baina, nolabait esateko, superbizi egiten da. Eta hori, gaur eguneko denboratan, "nahikoa baino areago, "tumatxa", "gehiegi" dela esango nuke. Bai horixe: laurehun zenbaki, "eta gero hau"!

Nik neuk sekula jantzi ez dudan txape-la, erantzi egin behar izaten dut, ia-ia airetik soilik bizi direnen aurrean. Horregatik, bertso berri batzu prestatu dizkiot ANAITASUNARI, ongi mereziak dauzkala uste baitut. Hamarreko txikiko edozein musikarekin kanta daitezke; adibidez, "Bizkaiko txerriaren" doinuarekin. Eta ez dezala inork txartzat har txerriaren kontu hori, ANAITASUNA Bizkaian egiten bada ere.

Azken batez, txerriengandik dena baita probetxagarri...

Hementxe dituzue zenbait bertso berri irakurleentzako entretenigarri. Laurehun zenbakiak kalean ezarri, zinez hori bai dela txit ohoragarri. Hemen geratzen gara milaren egarri.

Anaitasunari guk txaloak derrigor, beti portatu baita euskaldun ta jator Nahiz makina hutsune aurkitu sarri hor; erabat perfekturik ote dago inor? Zeuen lanari ekin eta jarrai gogor.

Goi aldetik hodeiak behetik sasiak, burruka gogorrean baikaude hasiak. Euskararen aldera jarriarik biziak, apur egin ditzagun kate ta hesiak. Gure neke guztiak ditu mereziak.

Euskaldunok, halere, ixilik ahotsa. Telebista ikusiz urtu zait bihotza. Ezer ez duenari beti latigo-hotsa Hartzen dugun laguntza erabat da motza. Sarritan galdetu dut: Non da hoi en lotsa?

Kalera atera da laurehugarrena; poztasuna sartu zait buruan barrena. Aldizkaritan ez da segur ederrena, alderdi batzutan da motel ta herrena, baita Anaitasuna maita dut aurrena.

Bizirik ikusteak dirudi ametsa. Laguntzarik ez dauka, non nahi du ezetza. Hainbeste euskaldunek emanik saihetsa, ateratzeak berak eman du zer pentsa. Modu tristean dabil gure euskal prentsa.

Euskal hizkuntza dabil irtenbide bila, bestela herri zahar hau laster dago hila. Informabideetan daukate ixila. Zuk daukazun bizia luzatu dadila, laurehun egin eta denborakin mila.

Zeruko Argiagaz gogorki zaitugu, euskararen ahalmenen betiko testigu. Euskaldun alferrari harturikandartu, gogor indartu arte ez dugu sosegu, bestela hiltzorian laster baikaude gu.

Bertsoen omenaldiz hartu nahi dut parte eta aldizkarian horritxo bat bete. Lanean dabilzala dira hairbat urte; gure laguntza dena merezi dute. Segi gogor, Euskadi euskaldundu arte!

Laurehugarren hori duzue atera, zinez kulturarentzat ez dator kalera. Indartu behar dugu guztiok batera, garestituz joan arren moldeko papefa. Gure aldeko jende asko ez ote da?

Diglosia gogorra gure lurren jabe, erresistentziaren hegalean gaude. Euskararen kontrako hainbat gizasuge, harroki ari dira berbaz lotsagabe: "Euskarak zapaldurik" gaizki omen daude.

Hogeigarren mendearen laurogei ba dira eta Anaitasuna Oraindik bizi da. Baina motelki dakut beraren dirdira; denon artean eman deiogun segida, inola joan ez dadin lurraren azpira.

Txepetxa.



# HAMAR URTE ANAITASUNAREKIN

BETI BERDIN

195. alean Irakur Genezake

BILBO

Telebisioa

"Estudio abierto" izeneko programak emisio bat eskaini dau Bizkaitik.

Programa honekin, bizkaitarrok ez gara pozik geratu. Ez dau gaurko Bizkai kulturala ta musikalaria zer dan erakutsi. Folklorekeria hutsean ibili zan.

Adibidez, Txomin del Regato. Gizon honek, hainbeste miloiren aurrean, lotsagarri imini ginduzan. Ordua da, jaun horri EZETZ biribil bat emateko. Hobe leuke, jaialdian lelokeriak esaten eta egiten ibili barik, etxean gertzea.

Eta adibidez, "Los Chimberos" eta "Anaiak" taldeak. Honeen abestiak ez dira gaurko bizkaitarren euskal kantu berria. Modaz pasatuak dira.

"Mocedades" taldearen "Oi Pello, Pello" eta Jon Libaroren "Aizea bare bare" alde batera utzita, beste guztiak ez ziren gure abestiak; eta kantari batzuk ere, Salomé eta Pardo, ez ziren gureak.

Elkarrizketak, txarto aukeratuak, Berba egin eben guztiak, Zunzunegi eta abar, Bizkaiko erdaldunak ziren. Non egoen Bizkaiko euskal kulturaren errepresentazioa? Bizkai osoa erdalduna bakarrik da ala?

Beraz, EZETZ biribil bat "Programa abierto" horri.

197.

## DURANGOKO LIBURU AZOKA ONDOREN, HAUXE DINOT: NOIZARTE HOLAN?

Azoka guztia arakatu ostean, hauxe nabaritu neban: "Gure" erakunde nagusiak, "gure" lau Diputazioak eta Bilbo ta Gazteizko Aurrezki Kutxak eta baita Sociedad de Amigos del País -koak bere, euren standak ipini zituela. Holan begiraturik, eredu ederra. Baina..., betiko bainak. Guztien artean, erakunde horreen artean esan gura dot, 275 liburu presentatu zituen; eta euren artetik bat bakarraq zan euskerazkoa. Nafarroako Diputazionak argitaratukako "Prosistas Navarros Contemporáneos en Lengua Vasca". Noizarte holan?

203.

## INIGO EZJAKITUN

Joan dan abenduan, 20an hain zuzen ere, esaten eban Iñigo musikariak Bilboko "La Gaceta del Norte" egunkarian: "Luis Llach se presentó en Madrid... Cantaba en otro idioma (katalanez)... Luis tiene, suponemos, sus razones para seguir erre que erre cantando en catalán". Horixe "uste dau" Iñigo jaunak. Ba, oraindik zu ere ikasi beharrean ote zagozan "uste dogu" guk ere.

353. IRAKUR DEZAKEGU

EUSKARA BAI

Euskara ulertzeko gai diren ala ez, leporatu diguten preautonomiaren arduradunei esan nahi diegu, ondoko hau: EUSKARA BAI.

Ofizialkidetasuna ikusi nahi dugu, orain eta hemen. Telebistan erdaraz adina eta ordu guztietan euskara ikusi nahi dugu. Honetarako ez dago eperik. Ez dago konponbiderik. Gure arima ez da inon saltzen. Ez da truketarako gauza. O.N.U.ko erregalapena eta giza eskubideen erregalapena eskuan dugu. Bai ala ez erantzun diezagukete. Besterik ez. Kanale biek nahiko ez bada, hiru edo lau jar dezaten. Honela ez bada ez da hemen inolako euskaldun demokraziarik egongo, eta zapaltzaileen kontra edozein gauza ona izan liteke.

397.

## "DURANGOKO XIV LIBURU ETA DISKO AZOKA"

### EUSKAL LIBURUGINTZA OFIZIALTASUNERANTZ

Zer esanik ere ez, Azoka honetan aurkezten zaizkigun argialetxe eta liburuak buruz. Aspaldi batean Kritikatzen ziren "La Gran Enciclopedia Vasca" bezalako liburu apaingarriek gaur egun kopurua gehitua ikusi dute beste argialetxeetako diren "Historia General de la Guerra Civil en Euskadi (I, II, III, IV)" "Geografía de Euskal Herria", "Poemak" eta abar liburuekin. Eta honekin ez dut esan nahi Aresti, bere obra guztiak, larru gorri argitaratzeko adina ez denik. Baina ofizialtasunak aberastasuna ere ba dakar, hau garrantzitsuenak izan ez arren. Bestela nola uler daiteke hau: Argialetxe berdineko liburuak, "Karitate", 140 horrialde, 300 pzt, "Arnas Gaiztoa", 156 horrialde, 300 pzt, "Dekameron ttipi bat", 160 horrialde, 400 pzt.

Telebista eta irratiz esan beharrik ere ez dago ez dutela ezer jasotzen hurrek, ez baitago euskal telebistatik eta dagoenetik zerbait jasotzekotan beharbada, gauza kaltegarriak euskarerantz. Irratizkoari dagokionez, euskarazko saiok dauden arren, batetik, nik uste, ez dute programa egokirik adin hoietakoentzat eta bestetik, haurren sasoi dela eta, programa egokirik izan litekeen arren ez dira erakargarri haurrentzat eta ez dute entzuten beraz.



### EUSKAL JAIA DONIBANE LOHITZUNEN

Lapurdiko Donibane Lohitzunen, Euskal Jai bat ospatu izan da, ikastolari laguntzeko dirua batzeko. Parte hartu eben Ziburuko "Arrantzaleek", Sarasola, Eñaut, Larralde eta Benito Lertxundi katariek, eta Xanpun eta Esponde bertsolariek. Ikastola horretan 22 haur dabilta.

#### EZ BETI BERDIN

#### 198. ZERUKO ARGIA ETA EUSKARA

Hizkuntzaren aldetik, txit ximplea da. Arteche-k nobela honetan, Zeruko Argian euskeraz bezain hizkuntza pobrea darabil nekez erderaz. Seguru asko ez da hau bere kaso bakarra, eta egitate soziologiko bati obeditzen dio; ez dakit asko erratuko naizenik, baina susmoa eta aierua ukan dut beti, gipuzkoarrek, gaztelaniaz hasten direnean, bizkaitarrok baino azkozaz habilitate apurrigoarekin maneiatzen eta eskuztatzen dutela hizkuntza; konpara bitez, esate baterako, Unamuno eta Baroja, Zuntzunegi eta Artetxe, Otero eta Zelaia. Agian, gipuzkoarren euskalduntasun haundiagoaren seinale bat dateke hau, baina Zelaia eta Baroja ez dira Otero eta Unamuno baino euskaldunagoak.

#### 185 EUSKALTZAINDIA ETA DIRUA

Euskaltzaindiaren etxea barrizatzeke, «Ego Euskaltzerriko Ebangeliozko Eliza»-k bost mila peseta emon ditu. Eliza honek, esan dogun izen hori dauka; eta Donostian, Secundino Esnaola kaleko etxe baten egiten ditu bere elizkizunak.

197

#### ANAITASUNA aldizkariaz

Lehenengo galdea: **Zeintzuk dira gure aldizkarian gehien gustatzen, jatzuzen gaiak?** Erantzunak oso desberdinak dira. Hala ta guztiz ere, idazlanik atseginenak honeek dira: «Euskaldungoa» «Ikasi zeure hizkuntza» eta gaurko problemei buruz idatzitako lanak.

Bigarren galdea: **Zer kenduko zeunskio anaitasunari?** 21,28% konforme dagoz oraingoarekin 78,72% aldakuntza batzuk nahi ditue, jarraian ikusiko dozuenez.

Hirugarren galdea: **Zer gehitu ANAITASUNA-ri?** Hona hemen erantzunak: Euskaldun berrientzako toki berezi bat euskera errazez egina, umorezko sail bat, ikastoletako arazoak, gazteentzako orri bat, euskal kondaira, aktualidade internazionala, poemak, zelan idatzi euskeraz (gramatikazko dibulgazioa), emakumeentzako zati bat, eta abar.

#### Erligioaz

Lehenengo galdea: **Fededuna zara?** Ez 17,20%. Jaungoikoagan sinesten dabe, baina ez Eliza Katolikoan 9,88%. **Bai**, fededunak dira 72,92%. Itau honi erantzutean, askok ez dabe **Bai** edo **Ez** soil bat eman. Gehienek Eliza santuago bat eskatzen dabe, eta Euskal Herriaren alderako jokaera garbiagoa.

Ez erantzun dabenen artean, 12,50% dira 25 urtetatik gorakoak, eta 87,50 gazteak, hau da, 25 urtetatik beherakoak.

Bigarren galdea: **Atsegin dozu liturgia berria?** Ez 6,88%. **Bai** 72,24%. Ezer erantzun ez dabena 20,88%.

Hirugarren galdea: **Ongo ikusten dozu apaizak sotanabarik ibiltzea?** **Bai** 82,80%. Ezer erantzun

#### IRAKUR DEZAKEGU

#### adiskide,

Garai honetan, SEASKA Batasuna, kinka txarrean dago. Horregatik, aurten ere, **IKASTOLA BIZI DADIN, EUSKALDUN BAKOITZAK 5 LIBERA** Kanpaina egitea, erabaki dugu, Ikastolak zutik atxiki behar ditugu, eta hortarako denon laguntza beharrezkoa zaigu.

395-37

#### URREZKO ASTABELARRIAK

Urtarrilaren astabelarrigarrien artean "Anaitasuna" 393-394. delako aldizkari zoragarria gertatu da irabazle. Zein polita den errua besteen buruan ikustea eta ez norberarenean. Euskara batuaren etsai amorratu guztien zoritxarreako bihoazkigun honetan belarriak guri ez baita euskara, ez batuaz ez pikutako euskalkiaz ondoan doakizun hainbeste esaldi:

- GUTUWA
- HILENGANAKO ERRESPUTUA
- "Askoz positiboagoak izango ginatete hor bertan. Politiko eta frustrantean baino".
- "Fonetikaren horietan gertatzen bada"

...eta halako beste hainbeste bitxi. Den denak erredakzioideok ikusi ez ditugunak baina inprimaturik gertatu direnak.

Datorrenean, astabelarriak inori eskeini baino, gure probak mila aldiz irakurriko ditugu. Amen!

#### 376-16 EUSKALTZAINDIA ETA DIRUA

#### "BAI EUSKARARI" KANPAINAREN ONDORIOAK

Euskaltzaindiaren faborez eraturiko "Bai Euskarari" kanpainak fruitu galanta eman dio, gure hizkuntza zaintzeko ardura duen erakunde horri. Bildu den dirua guztitara, 41.230.000 dela azaldu berri digu gure Akademiak. Zorionak honegatik Euskaltzaindiari eta Euskal Herri osoari.

Urte honetarako, bere lan arruntak betetzeko egin duten presopostua 30.700.000 pezetatakoa da, beraz, hor joanen zaio gure akademiari kanpainan zehar bildutako dirurik gehiena. Eta datorren urtean zer? Espero dezagun aurrerantzean, Euskaltzaindiak izango duela, bere egunkizunetarako beharrezko duen diru guztia, kanpaina berririk antolatzeke premiarik gabe. Espero dezagun, behin eta betiko, euskaldunok ordaintzen ditugun zergen diruaz, mantendua izanen dela gure Akademia.

#### PORNOGRAFIA ANAITASUNAKO ORRIALDEETATIK?

Eta serio ari garenez, esan dezagun irmo, pornografia arazoa bi aldiz planteiatu dela gure bileratan. Bietan azkenez, postre gisa, gure erroiluen kontsolamendutzat, ez baitugu oraindik asuntu guzti hau kontsolagailutzat hartu gure bileretako azken minutuetan.



Hirugarren galdea: **Ondo ikusten dozu apaizak sotana barik ibiltzea? Bai 82,80%. Ezer erantzun ez dabena 17,20%. Ez da ezezko erantzunik hartu.**

Laugarren galdea: **Ondo ikusten dozu fraile ta monje kolejoetan euskerarik ez erabiltzea? Ez 100,00%. Bai. 0,00%. Hemen ere ez dabe erantzuleek Ez bakarrik esan. Askok eta askok kolejoetan euskera ez erabiltzearen kontra idatzi dabe, fraile ta monje aurka hitz gogorak esanez. Exenplotzat, erantzun bi aukeratu ditugu. Hogei ta bat urteko unibersitario batek hau dino: «Fraileak eta monjak kapitalismoarekin dagoz, eta hareentzat euskerak ez dauka ekonomiazko trazendentziarik». Hirurogei ta hamabost urteko gizon batek: «Barrabasak dira horreek».**

199-8

### KARGU BERRIAK ARABAN

Alfredo Zabala, Gasteizko San Kristobaleko diakono. Jabier Biteri, Gasteizko San Frantzisko elizako diakono. Luis Miguel San Juan, Gasteizko San Joseko diakono. Jesus Isidro, Gasteizko «Escuelas Profesionales» datakoan irakasle. Jabier Arregi, Abetxukoko diakono. Fernando Hueto, Gasteizko «Nuestra Señora de los Remedios» elizako laguntzaile. Pablo Bujanda, Santa Cruz de Fierroko kargudun. Jose Ramón ortiz, Zanbrano kargudun. Segundo Otxoa, Añuako kargudun. Juan Ibañez, Egiletako kargudun. Pedro Jabier Ruiz, Abetxukoko laguntzaile. Juan Villanueva, Herediako kargudun.

Pedro Perez, Erentxungo kargudun. Valentin Vivar, Abetxukoko Kargudun. Alejandro Illanas, Labastidako erretore. Felix Uriarte, Seminario Txikiko irakasle. Jesus Marauri, Aprikanoko erretore. Camelo Martinez, Gopegiko erretore. Fernando Perez, Gasteizko «San Peder Apóstol» elizako laguntzaile. Miguel Angel de Paz, Oiongo erretore. Jose Astorkia, Olasako erretore. Florencia Unzueta, Bizkiko Ubideako erretore. Andres Agirre, Gasteizko Seminario Nagusian filosofoaren irakasle. Faustino Herran, Gasteizko Seminario Txikiko irakasle. Ignacio Elgea, Seminario Txikiko irakasle. Felix Fernandez Elorriagako kargudun. Juan Olarte, Arkaiko erretore. Benedicto Arrieta, Arkauteko erretore. Cruz Briones, Navaridasko erretore.

Jose Markiegi, Aramaioko Uribarriko erretore. Felipe Urretavizcaya, Arejolako erretore.

### KARGU BERRIAK IPAR EUSKAL HERRIAN

Lapurdiko Itsasun, Chalet jauna izendatua izan da bertako parrokiako erretore. Herrian sartu zanean, alkate jaunak egin eutsen ongietorria, hainbat heritarren aurrean.

Nafarroa Beherean, Ganix Ibarburu izendatua izan da Bidarraiko erretore. Hemen ere, alkate jauna buru zalarik egin eutsen ongietorria. Bidarraiko eliza berriztatzen ari dira aspaldion.

### «FEDEDUNAK» ELKARTEAREN BATZAIRIA DONAPALEUN

Elkarte honen helburua eurek dinoenez, «Euskal kulturaren sustengatzea eta erlijioko gaitan aitzinaraztea» da Urriaren 4-ean egin izan dabe batzar bat Baxenabarreko Donapaleun: Meza Santua, urteko gorabeherak, egindako lanak, erabakiak, galde-erantzunak... eta iluntzian aforia.

199-5

### KATOLIKOAK ETA PROTESTANTEAK ELKARREKIN

Gipuzkoako Ondarabian hitzaldi bana eman ekien ekumenismoari buruz Carlos Morales artzain protestanteak eta Miguel Garijo apaiz katolikok.

Erredakzio kontseiluari, hitza bera erabiltzea ez zitzaion gustatu. Burjeseriaren tranpan erortzea izanen litzateke. Eta bera aldaketa inposatzekoa zenez, produktu berbera presentatzeko, ba, bazterrak zaindu behar. Hitz kamuflatu asko presentatu ziren. Erotismoa, bizitzaren ikuspegi... latza, ... (Muja Herzog-en bat biluzik atereaz noski) edo eta ikuspegi berezi bat... (pantaloiak kenduta, pentsa ezazu Anaitasunako irakurle hori, nolako argazki bereziak izanen liratekeen Anaitasunakoak). Beroriekin batera zelako trabailu eta nekea gurea, gizon guztiak alde aurretik pantaloiaz jantzi behar, Anaitasunan emakume fotorik asko ez baitago.

Bileraren amaieran beraz, huntaz eta soilik huntaz mintzatu zen. Gero, geroak etorri... ez pentsa gaizki Anaitasunako irakurle maitea!... gainera nahiz eta ongi pentsatu, idazleok idatzi egiten dugu soilik... Beno, eta gero zer?

391-9

### LONDRESKO HELBIDEAK

Bizkaiko Emakumeen Asanbladak argitaraturiko txosten batetik, gure irakurleentzat interesgarri gerta daitezkeelakoan honako helbide hauk atera ditugu:

Corner of Arodene Road S W 2 LONDON.

Gaztelaniaz egiten dute. 14.000 pzta.

Pregnancy Consultation Services 40 Mortimer Street. LONDON. Tfnoa: 01-580-9001.

Marie Stopes Clinic. 108 Whitfield Street. LONDON W 1. Tfnoa: 01-388-0662

British Pregnancy Advisory Service 131 Dyke Road. Brighton Road. SUSSER. Tfnoa: 0273-509726.

36 - 1977

### EUSKAL «GAY»AK, GHETTOAREN KONTRA

Geure eguneroko munduan ba ditugu tabu diren gai batzu. Ukitu behar ez diren gai hauek murraila batez inguraturik egoten dira eta isiltasun orma apurtzea zaila izaten da. Gaur gai tabu horietako bat dakargu lerro hauetara. Homosexualitate da, hain zuzen. Orain dela ale batzu euskal homosexual argitaratu genuen eta, egun batzu barru, telefonoz deitu gintuzten, beren arazoak elkarrizketa bat izateko. Bilboko bar normal batetan gelditu ginen eta homo hauetako hiruk beren egoeraz hitz egin ziguten. Batek euskara dotoreaz, erdaraz besteak. Hona hemen beraien esandakoak.

Orain urtesura arte, Euskal Herrian eta Estatu honetako gainerako herrietan sexuaz aritzea eta berari buruz eritziak azaltzea guztiz bekatua zen, tabu, mamua. Ez da hitzik nahiko egonen tabu honek gure eguneroko bizitzan nola eta zer moduz moldatu gaituen jakin dezagun. Ba dirudi hazie bete zena, solairuak, satorren gisa, egiten ari zaizkigu. Usteltasunaren estalkia jasotzen da pixkanaka aitortezina azaltzen da. Egongo gara behintzat, gure seme-alabek, eginezina zena pozik eginen dutelako esperoan. Seme-alabak diot, eta diodanez konturatuzen naiz gure gizarteon sexua sakralizatu egia dago eta.

### EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

Berritoki behar dot gai hau: emakumearen eskubideak. Mito bat legez aipatzen da egunero gure gizarteko emakumearen egoera. Asko idatzi da aurten eta asko idatziko da oraindino, baina egia askorik ez da esango. Eskribu asko propaganda hautsa izango dira.

Lehenengoan, Mari Anjeles Zarraonaindiak ere horixe egin eban: propaganda hutsa emakumearen alde, bera emakumea da ta.

Emakumearen alienazioa, gaurko emakumearen alienazioa aipatzen da. Alienazioa, Jainkoari eskerrak, ez da aurkitzen emakume askoren artean. Andrerik gehienak zindoak dira gure artean. Iritzi batzuk azaldu dira, hala ere, zera esaten dabenak, emakumea alienazio baten menpean dagoela eta alienazio hori gizonaren erruz sortu dela.

Iritzi guztiek merzei dabe gure errespetua; baina, gai honi buruz, berritoki esan behar dogu, hainbeste alienaturik ez dala aurkitzen gure artean. Beharbada, alienazio gehiago dagoke Estatu sozialisten menpean. Estatu horrek emakume eta gizonaren eskubide gutxiago onartzen dabelako.

Sozialistek, gaurko sozialistek esan gura dot, teorian eskubide danak onartzen ditue; baina praktikan, gure antzera edo gutxiago.

### EMAKUMEAREN EGOERA

Mari Anjelesek idatzi eban lehenengoan, gaurko emakumea gizonaren menpean dagoela. Ba leiteke. Baina andre asko euren eskuko dira leku askotan, eta beharbada gizon asko dago emakumearen menpean. Esate baterako, Bilbon, andre bat da alkate, eta beraren menpean milaka gizon dagoz. Arteagan ere berdin. Ubidean eta beste leku askotan ere beste hainbeste gertatzen da.

Lantoki askotan, emakumearen eskubideak gizonaren bestekoak dira. Lan berdinez irabazi berdina dabela esan nahi dot.

Gainera, lanarekin lana sortzen da; eta gizon eta emakume gehiago lanean ari badira, lan gehiago sortuko da. Ez bildur izan, emakumeak. Berriketak alde batera utzi eta lanean hasten badira, edertoago biziko gara.

### EMAKUMEAREN ASKATASUNA

Orain asko ez dala, Ipar Amerikan, emakumeek, kalera iritenda, eskubide gehiago eskatu dabe. Eskubide horreen artean, azkontza hausteko eskubidea dago. Orain italiako legeak esango dau azkenengo hitza.

Amerikan, andre askok, umeak galtzeko eskubidea eskatu dabe, eta lortu ere bai New Yorkeko estatuan.

Askatasuna sistema guztietan lortu leiteke. Sistema batzuen barnean, beste batzuetan baino errazago; baina guztiek jartzen ditue behar diren kondizioak. Lortze hori bakoitzaren nortasunari dagokio, pertsonaren nortasunari; sistemari ez hainbeste.

Gizonaren askatasuna nahiz emakumearen askatasuna, nortasunaren ezagugarri berezia da, besterik ez: Nortasuna, gizon nahiz emakumearen berezitasuna, inork kendu ezin leikena.

### EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

Gizon justiziak ez gaitu defendatuko; ez burjeseriarenak ez langileenak; Françoise d'Eaubonne-k esaten diguna har dezagun buruan:

"Emakumeok, geure justizia eta honen defentsa seguratu behar dugu. Autodefentsa, primeran dago, baina lehen urrats bat bezala. Bigarren urratsa, Holandako "Dolle Mina"-k eman dute. Amsterdam-en gauez, lehen baino seguragoa da emakumeentzat, BORTXATZAILE BATZU KANALERA BOTA ZITUZTENEZ GEROZTIK. Geuk defendatu behar dugu geure burua.

Gure zanpatzaileentzat, AMNISTIARIK EZ, faxismoak aski amnistiatu ditu eta... BORTXAKERIA MATXISTA ZANPATZAILEAREN AURKA, EMAKUMEEN INDAR IRAULTZAILEA!

Geure defentsa behar beharrezkoa dugu. Garbi ikusten dugu "gizonen" alderdiei, "gizon" iraultzaileei, "gizon" langileei... emakumearen aurkako bortxakeria bost axola zaiela; hauetako batzuk gainera, oso ondo "konprenitzen" dutela bortxakeria hau, egilaentzat amnistia eskatuz eta guzti...

Donostiako emakumeen asanbladan parte hartzen duten zenbait emakumeek, beste batzuekin batera, lesbianen talde bat eratu dute. Norbaitek, bazterturik aurkitzen badu bere burua gure herria honetan beste inork baino gehiago lesbianak sentituko du egoera honen zama. Duela denbora gutti hasi bagara homosexualitateaz hitz egiten, gai honetan ere, gehienetan gizona izaten da protagonista.

Kontratuak erabaki dute emakume hauek, mugimendu feministaren parte izatea eta gizonen "Gay" mugimenduetarekin taktikoki lan egitea —manifestapenak, hitzaldiak, etab. direla— baina ez bere erakundearen egituretan sarturik, herriaren ere betiko gizon-emakume harremanen kontrastesan agertzen direlako, hain zuzen ere.

Hala ere, feministen artean, eta bere problema bereziak dituztenez, talde bezala autonomikoki jokatzen dute.



## HAMAR URTE ANAITASUNAREKIN

### GAZTEAK UMETZAT EZ HAR!

Gazteak dira gure euskalduntasunerako arriskurik haundiena, "sorgin ihiztari" batzuen iritziz behintzat. Gure gaitzik haundiena eta periltsuena.

Nik ez dut uste, berriz, gaurko kinka "conflicto generacional" delako bat datekeenik. Gazte ta zaharren arteko burrukaz kanpo, ba daude, gaurko egoeran, beste istilukausa asko, zibilizazioaren salto edo mutazio batean garen zere gero.

Gazte izatea bekatu izango ote da? Ba dirudi, astakeria hori ez duela inork esaten; baina jansenista batzuek baldintza bat jarri nahi omen diete «zintzo» direlako gazteei: alegia, gazteen pentsaera, izaera ta egiera, zaharren pentsaera, izaera ta egiera berbera izan daitezela.

Libiako esaera zahar batek honako hau dio: «Putzu-ituritik edan, eta zure tokia besteei utz».

Gazteak umetzat hartuko dutugu? Ez al dugu ikusten, gizaki helduak direla, eta beren xanda aspaldidanik ailegatu dela?

Matematikaren historian famatua den «Essai sur les coniques» liburua, hamazazpi urte zituela argitaratu zuen Pascal jakintsuak. Hamazazpi urte, laster esaten da gero!

Hogei ta bi urte zituen Alexandro Haundiak, Dario erregearen gaineko garaitzapen izugarria lortu zuenean. Bonaparte Jeneralak, Italiako gerran, 28 urte zituen, Rivoli, Arcole ta beste toki askotako bataila oroigarriak irabazi zituen.

Eta hain urrutira joan beharrik gabe, nahiz eta beste maila batekoa izan, hor dugu Sabinoren esanplua, hogei ta bi urteko zelarrik idatzi baitzuen bere «Gramática elemental del euskera vizcaino» famatu hura. «Ume bat» zen eta gainera euskaldun berria, Lasa Kalonjearen terminologian bigarren mailako euskaldun zela esan nahi duena.

Ez gaitezen izan Cervantesen baratzainaren zakurra bezalako. Zakur hark ez zion beste inori jaten uzten berak jaten ez zuena.

KARLOS SANTAMARIA

### MUNSTRO BAT, BI MUNSTRO

Bigarren mailako hiru euskaldun gentozen Mauletik Bilbaora, automobil izeneko katxarro zahar batean. Leihaitiletako kristal zikinetatik zehar, euskal zazpi probintzieta-ko ikus-pegia iragaten ziren agudo; gaua zen, eta gau iluna (izarreztatua, baina batere ilargirik gabekoa). Lambroa noizean behin, portuetan zarragoza, eta ene bihoztzean mingostasun bortitz bat. Gartzelaxka mehar hartan sarturik, ez genituen geure buruak bular-barreneko gartzela meharragoan hertsu nahi, eta nor bere buruaz mintzatzen hasi zen. Gainerako guztiak kanpora atera eta ederki aireztatu ondoren, geure euskal esperientziez mintzatzen hasi ginen.

Ez dakit egiazko bigarren mailakoak garen; guri behintzat ez zaiku horrela iruditzen. Euskaldun berriak primerako euskaldunak izateko gara; zeren amaren ditietatik esnearekin batera (esne on nahiz esne xarrarekin batera) euskera edoski eta hartu (heredatu) dutenek, zer meritu dute? Euskaldun jaiotzea kasualidade bat da, berdin jaiotze bilerdun, eskimal, satero edo sagu-xar. Baina guk euskalduntasuna hautatu dugu; eta irabazi dugu. Euskera gurea da, geure bekokiko izerdiaekin irabazi

dugu. Gu euskaldunak gara, eta ez kasualidade bategatik, gure borondatearen hautaera libre eta neketsu bategatik baizik.

Baina, dena den bezainbatean, eta zein-nahi izan dadin gure maila, duda batere ez dago maila berezi batekoak garela masoneri-antzeko gorputz bat osatzen dugula; bi edo hiru euskaldun berri elkarrekin juntatzen garenean, berehala hasten gataizkio elkarri kontatzen zein izan diren gure gaitzasunak, zerekin egin dugun oztopo, zeren kontra behaztopatu garen, zein bide izan diren eroso eta zein nekoso, eta abar, eta abar. Batzutan gerra luze bateko gogorregi batean hainbeste urtetan ikas-kide egon zirenen antza ematen dugu.

Bertan genbiltzanok, hirurak ginen adin diferentetakoak nor bere mendearen hamarren desberdinean zegoen. Ni, zaharren hau, jadanik Kristoren eta Danteren edadearen ukondoa doblaturik, neure laugarren hamarrenean nengo. Bigarrena, ezkon-berria, bere hirugarrenean. Eta hirugarrena, mutil oso gaztea, oraindik biloaren itzala nekez agertzen zitzailela musuaren larruan, bere bigarren hamarrena arditu-berri zegoen. Nik neure neke guztiak kontatu nizkien, denbora bateko maisu-falta, euskal liburuen eskastea eta eskastasuna, euskal intolerantziaren izugarriaren izugarria (intolerantzia horrek bere azken arnasak ematen ditu orain), eta beste mila zehaztasun nekagarri, zeinbat ikasi behar ukan nuen gero desikasi eta ahazteko... Neugandik bigarrenari hamar urte zihoazkion: bera hasi zeneko, hamar urteko eboluzioa gertatu zen euskal jendartearen, baina ez hain funtsezkoa, ez hain sakona, eta haren gaitzasunak apurrigoak izan baziren ere, gaitz-xamarrak izan ziren haek ere. Eta hirugarrena bere bideak kontatzen hasi zeneko, ez genuen kontuan hartu zer eboluzio behin-eta-betikoa gertatu den Euskalerrian, gure mende honetan 60-tik 70-era iragan den hamarrenean; eta orduan, hain itxuroso eta korrontoso euskeraz mintzatzen bakarrik urte-betean ikasi zuela esan zekuneari, bioi atera zitzaikun arimaren zolatik aldarri sentitu hau:

«Baina, hi munstro bat haiz!»

Urte-betean! Eta gurekin barra-barra mintzatzen egon zen bi egunetan; dialekto guztietako mintzatzaileekin egon zen gure aurrean mintzatzen batere gaitzasunik gabe. Esate baterako, zuberotar baserritarrekin hobeki entenitu eta konpondu zen Gipuzkoako euskaldun zahar (eta xit zahar!) guztiak baino.

Eta oro, gaurko euskaldun berriok asmatu dugun euskera «berri» honi eskerrak. Euskera «batu» honi eskerrak, antzinateko iturburuetatik eta herriaren ahotik edan dugun hizkera noble, trebe eta aberats honi eskerrak.

Eta orduan, gorputzeko begiak hertsu eta arimakoak zabaldu nituen, eta neure barrenean amets gozoak kulunkatu nituen. Eta hainbestetan profetizatu dudan etorkizuneko Euskal Herri zoriontsu harek gorputz bat hartzen zuen. Laredotik Ejeara eta Oloroetik Beloradora gure euskera orokor eta bateratu hau urte-betean ikasitako mutil galant eta neska ponpoxez populatutako lur bat ikusi nuen.

Hasi nintzen kontatzen; Munstro bat, bi munstro... bi milioi munstro, denak ene lagun Andolin Eguskitza mutil gaztearen federekin eta nobleziarekin.

Eta behingotz, zoriontsu sentitu nintzen ni ere.

ARESTIAR

## AMAREN METODUA

Oraindik gogoratzen naiz, eta nekez ahazutko zait, lehen mailako ikasketetan niharduela eta etxerako lanak ematen zeuzkidatela, nola neure amak erdal aditza ikas arazten zeutan.

Ez nedukan nik, sasoi hartan, era guzti haiek gogoan hartzerik; baina amak, pazientzia ikaragarriaz, honetan ere beste edozenbat arazotan legez, bidea erakutsi zeutan. Berari etsi etsian jaramon eginez, lehenengo, aditz denbora edo aldi bakoitza eskola liburuan non zegoen ikasi nuen, eta gero zeintzuk era zeuden leku bakoitzean. Honela ikasi nuen, orriaren hasieran eta ezker aldean "Presente de Indicativo" delakoa zegoela, haren eskui-nean "Pretérito Perfecto", azpian "Pretérito Imperfecto", eta abar. Zer esan gura zuten eta zergatik ez nekien; baina itaun orduko ba nekien, goikoa ala behekoa, ezker ala eskuinekoa, zein zen erantzun behar nuena; eta horixe zen jakitekoa, ez besterik.

Ez dakit nik neure amaren "sistema" hark sikologiaren adletik oinaririk zedukan ala ez, eta zenbatetainoko kome-nigarria izan zitekeen. Izan ere, nahikoa zatekeen liburua aldatzea, neure jakintza guztia hutsean gelditzeko. Baina, hala ta guztiz ere, metodo bat zen, ona edo xarra, baina metodoa, beste edozein izan zitekeen moduan; eta meto-doaen balioa edo praktikotasuna bere ondorioetatik neurtzen da, bere ondorioren arauera hain zuzen. Eta ezin uka, nerekiko behintzat, amaren sistema hura onena, beharbada ezin bestekoa, zela.

Ez naiz ni logikaren etsai; ezta guttiagorik ere. Baina sari nere amaren metodo "xelebre" haren falta haundia somatzen dut gure artean, "nola" den aztertzea askoz ere praktikoagoa izanik, amorru haundiz ibiltzen baikara "zergatik" den ikertzen. Edozeri buruz, "zergatik" bota ohi dugu aurretik, hiru edo lau urteko umeak baina legetxe. Ez dagozkigun hamaikatxo buruhauste hartzen ditugu gure gain. Ez ote dugu lagatzeko ordua? Laga dezagun, bada, behingoan "zergatik" zoriarekoa eta lot gakizkion "nola" praktikoari.

Oraintsu argitaratu berri den liburu bat aipa genezake adigarri, hau da, **BATASUNAREN KUTXA**. Xarra edo ona, berdin zaigu, haren ontasuna judikatzeke garaia oraingo heldu ez baita; baina metodo bat da, eta ez da berau gutti. Edozein metodok ukan ohi dituen abantailen-kin, gainera; irakasle nahiz ikaslearentzat bide metodo-tsuek abantaila izugarriak baitituzte.

Baina jarraiki dezagun aurrera, amak erakutsi zeutan sistimarekin, metodo hutsa ezezik, beste zertxobait osagarritzat ba zedukan eta: hots, "bista", begien zeregina nagusiena baita. Estae baterako, nik neuk neure begiez aditzaren aldi bakoitzaren lekua eta erak ikusi beharrean, neure amak esan baleuzkit, hain erraz ikasiko ote nituzke? Ez, eta hamaika bider ez, mila azalpen eman baleuzkit ere. Ez baitago norberak ikustea lakorik. Inoren esanak,

norberak ikusteke, beti daduka badaezpadako izpiren bat. Tomas Santuarena: Zer ikus, hura sinets".

Honetan har dezagun lehenengo adigarria berriro ere, **BATASUNAREN KUTXA**, alegia. Nork uka dezake, liburu horretan irakurri ahal dugun edozenbat formari gezu- rrezko itxura deritzakegula? Enplastoak balira bezala. "Hum... honek behintzat ez daduka benetako kutsurik; asmazio hutsa ez ote da? Onenean ere, liburu zaharretatik galbahean hartutako erak izan daitezke; baina ba ote da benetan, horrela berba egin ohi duen herririk?" Honelako kezka etortzen zaizkigu. Kezka biziak, bidezkoak, giza- legezkoak.

Hilabete pasatua da, Nafarroan egon nintzela. Nere arreba, gure senar-emazteak eta laurok Baztenera joan- k ginen, handik ipar aldera iragateko asmotan; eta hantxe, inguru ikusgarri haietan, Auiñamendiko ipar nahiz hego hegaletan, badaezpadako hitz eta esaera askotxo egiazta- tzeke aukera ukan genuen. Huraxe poza! "Hau, hori eta bestea egia biribilak dituk", geniotsan elkarri, barteko ametsak egia bihurtuko bailiren. Harriturik ginen, entzun eta entzun aspertzeke, noiz itzain edo baserritar bat aurki- tuko, berarekin berrikerian egiteko.

Beharbada, hau guzti hau askorentzat gauza jakinekoa izan liteke. "Hura lelokeria, haraino joan beharra", esan- go daukute. Era berean, Ameriketara joan behar ote dugu, han dagoela sinesteko? Ez, egiaz ez; baina, oster- a ere, joan ez den inork ezin esan han ez dagoenik.

Azkenik, ama, Nafarroa eta herri berbetaz ari garenez, eta herri edo amaren hizkuntza modan bide dagoenez, hona hemen Zugarramurditar gazte lerdin betekin eduki- tako elkarrizketa. Heldu ginen herriko plazara. Herriak lotan zirudien; ez bide zegoen inor. Halako batean, ate batetik hamabost urte inguruko gazte bat ater- a zen. Begi urdin eta ile argi argiduna, turista horietako bat ater- a zen. Begi urdin eta ile argi argiduna, turista horietako bat bailitzen. Haratu nintzen, galdetzen niolarik (guztia hitzez hitz ez bada ere):

- Arratsaldeon.
- ... (burua agurtu ninduen).
- Zugarramurdiko lezea non da?

- Belaxe duzu. Aitzineko bide hortatik xuxen xuxen behera. Berrehun bat metrora bidagurutze bat duzu. Bata eskuin aldekoa; UTZ ZAZU BERE GISARA. Hartzu (?) ezkerrekoa. Bertan zara.

Hauxe hau esateko modua. Ez ote zen errazago, lehe- nengoz ezkerrekoa hartzeko esatea? Poeta samarra bide zen gure gaztea. Baina, hala ta guztiz ere, Lizardik berak ere ez zukeen halakorik esango, berba egiterakoan. Jaki- na, Lizardi eta Zugarramurditarra bi oloren xitak ditugu. Bakoitza bere amaren semea da, eta ama bakoitzak bere hizkuntza eta... bere metodoa.

# EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZEA.



© GRUPO

Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.

(2.000 a 100.000.) \_\_\_\_\_ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

**Ordaintzeko era**

Giro n.º \_\_\_\_\_ Cuenta corriente n.º \_\_\_\_\_

Bankoa \_\_\_\_\_

Deitura \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Hiria \_\_\_\_\_ Probintzia \_\_\_\_\_

**egin**

**HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.**





# INKESTA INKESTA INKESTA

1.- Anaitasuna irakurtzen duzu?

Eskuarki?

2.- Zure eritziz, Anaitasunak eraginik badu? Eduki du?

3.- Zer eman diezaioke Anaitasunak orain eta geroko euskal pretsari?

3.- Zer emen diezaioke Anaitasunak orain eta geroko euskal pretsari?

## BALERE BAKAIKOA

1.- Bai. Oso gustora irakurtzen dut, horregatik nauzue harpide azken hamar urte hauetan eta jarraitzeko asmoa ere badut.

2.- Zalantzarik, ez, Anaitasunak eragina duela. Eta handia ere. Badaukagu aste-kari bat, Zeruko Argia, aste barruan ematen diren gertaerak eta gure herriko ekintzak kulturalak ezagutzeko, egunkariak ematen dizkigute baino sakontasun handiagorekin aztertuak. Hortik aparte, Anaitasunak, hamabostekari bezala, gure herriko eta atzerriko gertaerak batik bat denbora luzea irauten dutenak, erreflesio, komentario edo kritika beharrez aurkitzen dira eta hau, gehienetan, oso zaila gertatzen zaie egiten astekari edo egunkariei. Beraz, paper hau bete du eta betetzen jarraitu beharko luke.

3.- a) Hizkuntz periodistikoak sortu, euskaraz ez dagoena.

b) Hizkuntz periodistiko hori landu, alde guztietatik.

c) Hizkuntza hori herriari bidali, honek ere erabiltzen ikas dezan.

d) Epe luzeagoan, euskara normalizatu, beste hizkuntzen parean ezarriaz, masakomunikabideetan euskaldunok ez gaituzen beste hizkuntz baten beharrez aurki gure artean komunikatzeko.

e) Baldintza horiek betetzen doan eran eta beteta ere: **INFORMAZIOA EMAN.**

f) Eta azkenik, idazle berriak eta euskal eskola bat sortu...

## ARANTZA URRETAVIZCAIA

1.- Irakurtzen dut, hamabostero, gaineratik... Batzutan artikuluren bat mantxoago...

2.- Ezin dut ondo erantzun. Nere inguruko jendeak ez du irakurtzen. Batetik, hamabostean behin ateratzea, apur bat aldebera iruditzen zait. (Ez astero, ez ilabetero...)

3.- Presentzia bera.

Eta ahal balitz... euskal periodistak sortzeko laguntza.

## TXILLARDEGI

1.- Ahal dudan guztietan irakurtzen dut, eta ahal bezain zehazki. Baina, hori egia izanik ere, ezin esan nezake "Anaitasuna" nahi bezain ongi ezagutzen dudarik.

2.- Zail da erantzuten. "Anaitasunak" gainerako prentsa guztiak bezala, galdu egin duke (eraginari dagokionez). Baina, oker ez banago, bai hizkuntzaren aldetik, bai ideien aldetik ere, bere kutsua utzi du euskaltzale gazteen artean.

3.- Euskal munduaren berri eman (idazten dugunok ongi dakigu zenbat aldiz hutsune osoan erortzen diren gure lanik mañatuak!), euskaltzaleen lotura izan, idazle berrien saialekua izan, euskararen aldeko burrukan laguntzaile gertatu, eta hitz batez, gure arteko "anaitasuna" zuzpertz.

## JON MARI TORREALDAY

1.- Zenbakiero irakurtzen (hobe, ikusten) dut. Gainbegiratu bat eman behintzat, beti. Artikuluren bat edo beste arreta handiagoz irakurri ere sarri. Hala ere, nahiz eta gaia berez interesatu, dakarren atzerapenagatik, askotan gaurkotatzen bakarrik ez baino interesa ere galdu egiten du.

2.- Eraginik? Nork jakin! Nik uste dexte gehiago zukeela lehenago, sortu ohi zituen iskanbilak lekuko. Lehen, uste dudanez, euskal prentsak, izan ere, protagonismo gehiago zuen. Baztertuago dago orain.

Gainera, eragina jakiteko, irakurleria ere ezagutu beharko litzateke. Nago ANAITASUNAREN irakurleria neurri on batetan aldatu egin dela azken urteotan. Agian, arrakasta gehiago du gaur lortu berri duen irakurle goan, aspaldikoan baino.

3.- Zer eskain diezaiokeen euskal prentsari ANAITASUNAK?

Euskara, hasteko. Euskal prentsaren errebindikapena.

Eta baita: alderdi eta talde politikoaren mota askotako dirigismoak al dagokeen prentsa-organu bat.

Ahots askotariko euskal prentsaren plataforma gisa ikusi nahi nuke ANAITASUNA.

Joan Mari Torrealday

## HARITXELAR

1.- Bai. Agertzen denean irakurtzen dut, etxeratzen baitzait.

2.- Ez da aize erantzun horri erdiestearen zeren eta zuek behar duzue jakin zer nahi zenueten eragin eta, zuek behar duzue ikusi ea eduki duzuen ala ez. Uste dut prentsa batek ez duela berak beren ekintzen ondorioak neurtzen ahal.

3.- Nire ustez behar duela segitu orain daraman bidea. Bat, zabaltasuna, erran nahi dut horrekin gai guztiak proposa-

tzen dituzuela aldizkari hortan, bai gizartea, erlijioa, politika, artea, literatura, zientzia. Euskal Herria osoki dago aldizkari hortan, baina ez bakarrik Euskal Herria baina mundu osoa. Botatzen duzue ikuspegi bat orotara eta, hori egiten duzue askatasun eta libertate osoan, erran nahi dut horrekin ez bakarrik espiritua baina bihotza oso zabalik duzuela. Hartzen dituzuela ikuspegi guziak, eritzi guziak, hala nola emakumeen problemetan eta zabaltasun hori da nire ustez aldizkari bat oso irékia, munduari oso irekia, Euskal Herriari irekia eta oraiko problema guziei irekia.

Bertzaldetik nik uste dut ANAITASUNAn irakurtzen den hizkuntza Euskaldunok ulertzen dugu osoki, nik eta uste dut besteek ere osoki ulertzen dutela Anaitasunan idatziak daudela artikuluguziak.

## B. ATXAGA

1.- Egia esateko, afiziyuak galtzen nau, eta herri txoro honetan argitaratzen diren errebista gehienak erosten ditut, zuena tartean, eta erreparatzen diet sikirra gainetik, esperantza ez baita nolanaht galtzen, eta kortesia zor baitiet euskal prentsañ iharduten duten zenbait laguni. Batzutan, aszensore izorratu batetan itxita gelditzen naizenetan-edo, punta batetik besterainokoa izaten da enen irakurketa (trantzeta hoietan beti bakar bakarrik aurkitzen bainaiz, eta ez telebisioan bezala, galtza bakeroak kentzera dedikatzen diren emakume blondie hoietako batekin). Behin batean, fisika hiztegiari buruzko lan bat irentsi nuen, bere egileak, labaina zorrotz bat eskutan, horretara behartuta. Euskaraz egindako artikulua, gainera, aparteko xarma daukate niretzat, eta huts tipografikoak bilatzen saiatzea, esate baterako, zakur bati arkakusoak kentzen ibiltzea baino askozaz entretinituagoa da. Lehengo egunean EREN topaturiko bat ia marabiloasoa da. Hala dio Cestonako zine topaketei buruz: "Topaketa hau lortu dute garrantzizko beste gauza bat ere: euskal zinemagintzaren inguruan dabilen jendea inguratzea eta HILTZEA"... ez al da marabiloasoa?... kristalezko bolarik gabe, kikara hondoan geldituriko tia kondarren azterketan saiatu gabe, euskarazko lanetan sartutako akatsetan etorkizunari igerrri ahal izateà, ez al da gauza haundia? ... ni baieztokoa nago.

Beraz, badakizue, Bilbon saltzen den ale bakarraren eroslea ni neu naiz, ez la rritu gehio, ez nekatu, ez luzatu zuen azterketa. Ez enplegatu detektiberik ale bakar horren nondik-norakoa jakitearren. Errepetitzen dizuet: ni neu naiz ale hori eskuratzen duen izaki bitxia (sentitzen dut aberlatxe ez izatea, ez dakit zer pentsatuko duzuen honetaz).

2.- Izango ez du-ba, nondik deskonfiantza hori?... zenbat andereino eta irakasle ez ote dira enamoratu "utziko al didazu aldizkari hori, mesedez:" batekin hasi eta "eske tren honetako aulkipetan dagoen kalefazioak ipurdia erretzen baitit" batez

segituz, eta zenbat aldiz ez ote zaio Anaitasunari paper hori suertatu? (zere, horixe bakarrik falta litzateke, ez baitago funtzio horretarako "As" edo "Guia gastronómica de Guipuzcoa" delakorik utziko duen euskaldunik). Beste eratako eraginik ere izan bide du, eta bada, adibidez, irrifar klase bat "Anaitasunan lan egin dutenen irrifarra" deitzen dena, ezpainak erantsita eta ahoa pixka bat okertuz (musean medik adieraztean bezala, hain zuzen) egiten dena bera. Irrifar hau, niri behintzat, euskal herriaren salbaziorako antolatzen diren hitzaldi, mitin, komunilaukatu, eta iuramentuen berri izaten dudana bakoitzean ernetzen zait. Adolezenteak ez naute konprenituko, baina irrifar horren jabe izateak alegantziz betetzen nau, eta bizi naizen artean eskertuko diot zuen errebistari negan izan duen eragin hau.

3.- Zuek negarrez jarri nahi nauzue, beste esplikaziorik ez zeok, edo bestela presumitzen ari zarete zorioneko "liezaioke" horrekin (ezagutu nuen andereino bat holako adizkerak ezin ikasiz nerbiotatik jarri zena, zuek ikusi). Zer eman; ez zekiat baina, ene ustez, hoberena ezer ez ematea izango duk. Begira, datorren urteko harpidetzak kobratzen dituzue-nean, hartu dirua eta izkutatu nonbait, izenaz aldatu eta konprobatu, hondartza exotiko baten ertzetan, zein ondo bizitzen den karlistarik gabeko herrietan. Ez horregatik.

## JOSE MARIA SATRUSTEGI

1.- Bai. Zenbaki gehienak ikusten ditut, eta osorik ez bada, mami gehiena jasotzen dut.

2.- Bai, noski. Eragina izan du eta bada. Baina oso ezberdina. Alde, diferentzia handiak ikusi ditut ANAITASUNAn. Nolabaiteko gaurko mugimendu bat sortu nahi du eta, agian, sortzen ari da, baina azken aldi hontan gogorregi zaigu. Euskal prentsa indartu behar dugula uste dugulako hartzen dugu, baina bere oraingo giroa ez zaigu atzean.

3.- Ez dugu euskal prentsa gehiegirik eta ANAITASUNAgalduko balitz gutxiago izango genuke. Nola edo hala, jarraipena eman behar zaio. Bide berriak lortzean dago, beharbada, bere etorkizuna. Garai batez irudi zuen, nolabait, pentsalarien aldizkari bat izan zitekeela. Hori orain ez da gertatzen. Beste bide "bitxi" batzuetatik jo du.

## EGIN.- (Salbador Garmendia)

1.- Bai, erabat irakurtzen diat, beti.

2.- Ez diat dudarik egiten eraginik ba duela eta izan duela, euskaldunoi dakoizkigun gai asko ukitzen baititu. Euskararen aldetik eraginik izan du ene baitan. Uste dut, agian politika aldetik bide hestu xamarrean sartu dela azken garaioan. Dena den, eragina izan du eta bada zeren ANAITASUNAREN bidez ikasi ere egin baitu.

3.- Kontuan izanik 5.000ren bat ale zabaltzen direla eta hamaboskari dela, nere ustez, artikuluko kritikoak argitaratu beharko zenituzkete, ale bakoitzean zenbait puntu eta gai ukituz, baina sakonki; azterketa batzuk eta horrela, eta ez dibulgazio edo berriemate bederen. Artikulu kritikoak baina grinarik eta pasiorik gabe. Kultur munduari ere gehiago lotu, euskal kultur munduaren berri zehazki emanez, inportanteena bederen. Adibidez, nonbait mahainguru interesgarriak, edo kongresorik, bada, horren berri luzezabal eman. Elkarrizketa gehiago euskal kultur munduko pertsonekin, euskal liburuaren kritika ona, baita arte, teatro, zinemako artikulua elkarrikusken bidez, batez ere. Euskarari buruz, ene ustez, ANAITASUNAKo euskara zehatzago eta teknikoago izan behar luke, EGIN eta DEIAegunkarietako euskara baino; gure hizkuntza kultur mailara jasoz.

## ZERUKO ARGIA

1.- Bai, noski.

2.- Euskal prentsak duen eragin mugatuaren barruan, noski izan duela eta ba duela eragina. ANAITASUNAK. Garai batetan, beharbada, kultura aldetik batez ere —ezin ahaztu bertan idatzi izan duten eta idazten duten kultur gizonak— eta gaurregun arlo zabalagoetan ere bai. Bestalde, irakurlegoaren aldetik, Bizkaian agian Gipuzkoan baino eragin handiagoa du, gauza normala, Bilbon ateratzen denez gero.

3.- Orain, periodizidate edo aldizkatsun berdinarekin jarraitzekotan, azken boladan hartutako bidea, hau da, lan informatiboak baino sakonagoak ematea batez ere; baina aldi berean, zuek eta gu egiten hasten ari garen euskal —euskarazko— kazetaritza landuz, horren oinarriak jarri, garai hobek eta etorriko direnaren itxaropenean.

## ERE.- (Andu Lertxundi)

1.- Edozein aldizkari moduan. Interesatzen zaizkidan artikulua irakurtzen ditut.

2.- Eragina ba du eta eduki du. Beste gauza bat da ANAITASUNA lehen eta orain desberdina izatea, baina hori beste arazo bat da. Azkenean, leioak zenbateraino zabaltzen direneko kontua da. Baina badirudi, Herri honetan, komunikabide bakoitzak bere oinarri ideologiko propioa duela eta zergatik ANAITASUNAK ez.

3.- Galduta hau hiru puntutan erantzuten dut:

a) Euskara hutsean egiteak dakarren aboangardi beharrezkoa, helmuga begibistatik gal ez dezegun.

b) Euskararen normalizapena.

c) Funtsezkoena, informazioaren tajuketa objektiboa. Objektibotasun honen alderdi erlatibo guztiak kontutan hartuz, noski.



# ANAITASUNAREKIN HIZKETAN



**ANAITASUNAKO 400. alea dela eta, hortxe hortxera, Zabalbide kalean dauden bulegoetara abiatu ginen nolabaiteko el-karrikuska bat egiteko esperantzarekin. Ez nekien nik el-karrizatzen zutenak elkarritzaturik izateko umoretan ba zeuden. Ez zirela haiek ANAITASUNA, ANAITASUNA kolaboratzaile eta idazleek egiten zutela erantzun zidan berehala Jonek eta ekarrikuska bat egiterakoan idazle eta kolaboratzaileekiko harremanak eduki behar nirela gehituz.**

**ANAITASUNAKO gorputza, bilatzekotan, gorpurik ez balego behintzat horko arduradunekin nolabaiteko berbaldia edo hitz— mitza edo dena delakoan, beraiekin egin nahi nuen egitea azaldü nien, eta ANAITASUNA edo dena deneko Zabalbide horretako zenbait arduradunekin harremanetan egon nahi nuen. Azkenez Tomasen bulegora pasatzeko abagadunea eduki dugu, jesarri egiten gara eta Jose Ramon-i hastenzaio telefonatzen. Ez dagoela etxean baina "nahi baldin baduzu has zaitetzke". Zelakok izan diren galderak, itaundu egiten dit, ...normaleenak nik, kasu hauetan erabiltzen direnak. Hona hemen kondatu ditugutena:**

**A.- Hasteko zure ustez zer da Anaitasuna?**

**T.T.-** Aintzina, anaitasuna soila, oraindian nolabait ahizpatasuna sartzen ari zaigu. Ez pentsa askorik. Anaitasunak ez du gorputzik, elementuak ditu... ba dago gero elementu eta lehengai, beste-la Kintanaren hiztegia edo eta Muxikarena azter. Etxe honetako historia ere azter zenezake.

**F.A.- Ez baina serio...**

**T.T.-** Hori oso seriotasun guztiekin esan dizut. ANAITASUNA euskal arren edo ar euskarazale askoren eriztoki izan da. Garai historikoetan apaizek egiten zuten aldizkari bat. Geroaren geroaz beste moietako jende bat infiltratu zen pixkanaka. Ba dakizu, Vatikanoko bigarrena edo, hala ere, salbuespenak kendurik, filosofoak izan, sozialistak izan, apaizak izan, denok vatikanistak besterik ez ginen. Ni orduan ez nintzen ANAITASUNAN baina vatikanista nintzen. Garai hortako galderei erantzuteko hobe beste bati galdetzen diozun, objetibitate gehiagoz erantzun liezaizuke.

Bitartean Jose Ramon Etxebarria agertu zaigu, honi beraz zuzentzen diot ene lehen galdera.

**F.A.- Nola ikusten duzu zuk ANAITASUNA historian zehar? Zeintzu lirateke zure ustez orduko karakteristikak aipagarriena?**

**J.R.E.-** ANAITASUNA beti izan da inguruko gizarte eraldunaren kontrako ahalegin bat. Ezinaren aurka aitxatu den esperantzaren leihoa. Egia esan, urte luzetan aldizkari honetan lan egiten ari naizela, sineskaitz egiten zait bizirik ikustea. Airetik bizi daitekeela esan daiteke.

Ezaugarriak aipatzeko esaten didazu eta, nire ustez, duenik eta ezaugarriak garrantzikoena euskal idazle berrien plazarabidea izan dela, dela eta, agian, izango dela esango nizuke.

Bestalde buru eskasez baina bihotz handiz jokatu dugula eta jokatzen dugula esango nuke. Bestela, buruz jokatu izan bagenu, seguruen aspaldi hila zatekeela.

**F.A.- Eta orain zer? Zer da ANAITASUNA?**

**T.T.-** Eritzi ezberdin asko egon daiteke. Denak serioak, jakina. Baina seriotasunak ikuspegi asko eduki dezake. Euskal parlamentua eratu zenean, oso gauza serioa zelako, batzuk kompletoz jantzita joan egin ziren. Beste batzu ez ziren joan, oso serio-serio hartu baitzuten. Seriotasunaren ikuspegi berezia. Hara hor esaterako, Leireko zina, zinez oso serioa izan baitzen, tamala Monzon

Don Kixotez jantzita ez agertzea! Baina tira hurrengoan daiteke. ANAITASUNAKO idazkuntza zin horietan egon da, batzuk notak hartzen, beste batzuk txokolateta erretzen. Zer da serioena? Ez dakit nik bada, ez baitago ANAITASUNA bat.

**F.A.- Eta ANAITASUNATAz zer?**

**J.R.E.-** Ahaztu zait. Anaitasuna, euskaraz argitaratzen den noizbehinkari bat dela. Bertan edozein artikulua topatzeko gauza zara eta topatu nahi dituzunak maizetan ez dira agertzen. Eman dezagun saio bat dela. Saio serioa eta lehen baino desmitifikatuagoa. Aldizkaria da, aldizka argitaratzen baita, baina niri noizbehinkaria deitzea gehien gustatzen zaidana da. ANAITASUNA zer den jakiteko, gure etsaiei eta gure adoratzailei galdetu beharko zenieke, niri ez behintzat.

**F.A.- Nola definituko zenuke oraingo ANAITASUNA, Joserra?**

**J.R.E.-** Bizirik iraun nahi duen ahots motel bat bezala. Barruan gaudenok —neuk behintzat— egiten den esfortzua oso garrantziko dela uste dugu. Guztiz beharrezkoa, euskarazko kultura eta gizartea inoiz ezer izango badira.

Ni neu seguru nago izango direla eta horregatik nago hemen. Baina, nolabait esateko, oreka ezegonkorrean gaude, inguruan mila arrisku ditugula. Beti bezala, arrisku handienetakoa profesionaltasun osoaren falta dela. Gaur egun, lauzpabost pertsonak egiten dute lan ANAITASUNAN langile bezala; eta gero, nola esker daitezkeen ez dakidan idazle "zoro" batzu daude. Eta guztion lanez, nola edo hala bizirik diraungu. Dena den, egiturazko trutsune handiak ditugu oraindik.

**F.A.- Eta zuk Millan nola definituko zenuke oraingo ANAITASUNA?**

**M.A.-** Nola defini nezakeen? Hara, aldizkari bat gastronomiko, klandestino, pornografikoa.

Gastronomikoa, zeren eta normalean hartan agertzen diren artikulua erroilu hutsak, buru-jaleak baitira. Buruaren gastronomikoa dugu, alde batetik eta bestaldekik, Tomas Trifolien "sukalderako saltsak". Hauek direla medio, "burujan saltsaduna" presta genezake, euskaldun irakurle goaren janaririk preziatuena inoiz janen balute (burua jatera utziko baligute). Tira, barreguira txokoan utzita, esan dezagun azkenaldi honetan zuzerpertuz doala eta noizbait irakurtzea merezi duela, euskara ahantz ez dakigun bederen.

Zergatik esan dudan klandestinoa? Hona, bada, zergatik. Ez dago debekaturik, baina kalean, beste prentsaren artean ikusten zail delako. Oroitz naiz nola

**Ba dakizu halako kartetan zer esaten dena. Ideologia pixkat, sexu pixkat, eta abertzaletasunaz apur batzurekin, kristoren euskal saltsa deliziosa egiten zuen hark. Haren ustez Torrealday eta Itziar Urtasun amoranteak zirela eta konfesetan egoten ziren denbora guztia.**



egun batean tabernan nengoela (non izanen ote nintzen, bada, beste biltokirik ez badugu) ANAITASUNA bat topatuen apal batetan. Hura poza! Hura oi-hua! Euskal Mahabharata aurkitua nuen! Txantxetan ari naiz baina barka nazazue. Hemen, Bilbon, erdaldungoaren eta txinboen hirian, ikusi ohi da kioskoetan beste aldizkariekin "anaiturik" dagoela. Erosiko duten ala ez ez dakit. Beste eltzeoko babak lirarteke holakorik jakitea. Hala nola, gero irakurtzen ote duten. Azken hontan ez deritzot hola nik neuk. Zenbaitek posta bidez, hola azaldu du.

Bai. Pornografikoa. Eta eritzi hontan tarte luzeko eritziak sar daitezke, hala-koak baitira, erlijioaren kontrakoa (erlijioaz trufaz ari garela), amoral, etikaren aurkakoa. Azken batean "underalua" (underground) gogorarazteko. Zer deritziot arlo hontan ANAITASUNARI? Ba, pornografia, (bere zentzu propioan uler ezazue, zakilixutok!) gehiago sartu beharko litzatekeela, ea noizbait deserre-primitzen garen edo hanka tartetik hiltzen.

**F.A.- Lehen Tomas etsaiak aipatu dituzu. Etsairik ba al daukazue?**

**T.T.-** Ez. Ez dugu etsairik. Duela bi urte

gutti gora behera aste guztietan amodiozko kartak hartzen genituen. Bidalzaileak Torrealday-ri igortzen zizkion. Gizaraixoak ez zekien aspaldian utzia zuela hark ANAITASUNA. Eta Torrealday-ri bidaltzen bazion, "frailea" zelako bidaltzen zion hain zuzen ere. Hau guztiau, komunismo internazionalaren euskal abangoardila zela, denok marxista borrokatuak omen ginela, iraultzaileen bilkunea eta abar luze bat. Ba dakizu halako kartetan zer esaten dena. Ideologia pixkat, sexu pikkat, eta abertzaletasunaz apur batzurekin, kristoren euskal saltsa deliziosa egiten zuen hark. Haren ustez Torrealday, eta Itziar Urtasun amoranteak zirela eta konfesetan egoten ziren denbora guztia. Hortxe nonbait haietako batzu gordeta dauzkate baina ez dugu sekula publikatu; ez izan zezakeen edukiarengatik baizik eta hari gizonari kanpaia jotzeko plazerrik ez ematearren. Bestalde batetik, euskara batuaren etsai trogloditikoek Kintana beti mamutzat hartu dute. Askorentzat Kintana zen errudun nagusia. Orain zoritxarrez ez dugu kartarik hartzen. Ea bidaltzaile ez ezagun horrek animatzen den eta zer edo zer, baina graziarekin gero...., bidaltzen digun, nire aldetik zin dagit argitaratuko dugula!

**F.A.- Orduan ez daukazue etsairik orain?**

**T.T.-** Etsairik ez. "Gure linearekin" ados ez daudenak bai.

**F.A.- Baja askorik eduki duzue?**

**T.T.-** Ez. Azken bi urteotan oso gutti. Altak baino guttiago. 77ean baja asko eduki genuen. E.A.J.-ren harpidedun guztiek hartu zuten baja, Kintanak idazten zituen artikuluen aitzakiarekin "Deia, Euskadi" eta hainbeste berripaper argitaratu zuten, EAJko goikoek ANAITASUNA uzten erabaki zuten eta herriz herri ANAITASUNA gehiago ez hartze-ko ordenu hitza pasatu zieten beheko. ZERUKO ARGIRI berdin gertatu zitzaion.

Behin gogoratzen naiz, Bergarara joan ginela suskizio batzu kobratzera. Gure kobratzailea guztiz harrituta zegoen. ANAITASUNAKO zerrendetan nortzu egon eta BERGARAKO UCĐKO erre-presentagarrienak. Gainera batzuk ez zekiten tutik ere ez euskaraz; guzti horiek Frantziskotarrek eginiko suskizioak ziren.

**M.A.-** Baja hartu zuten horietako 3%k ere, ez zuen normalean aldizkaria irakurtzen. Euskara zegoelako hartu egiten zen bakarrik. ANAITASUNA hartzeak frankismoren kontrako erresistentzi-ekintza soilu suposatzen zuen. Orain ba dago holakoren bat, baina askoz guttiago. Zenbait jende euskaraz dagoelako hartzen segitzen du baina gero ez du irakurtzen, irakurtzen ez dakite eta. Gainera orduko denboretan erdi dohainik bidaltzen zen ANAITASUNA.

**F.A.- Erdi dohainik bidaldu?**

**T.T.-** Askori, oso osorik. Harpidetza asko kobratuz gabe gelditu zen. Begira hemen auzoko asko daukagu eta ba dakizu... Mintzo eder batzuk berehala ikusten dituzten besteren aitzakiak, oso polito eta berbaro elikatzen dira eta halako jarrera intelektual batetik lepotik behera so egiten dizute. Baina gauzak dauden egoeran badaude, kausa batzu eduki beharko dituztela uste dut nik.

Anaitasuna aspaldidanik, nik ezagutzen dudantek hona behintzat, halako tapagailutzat hartua izan du zenbait politikaririk. Ba aldakizu zenbat jende egoten zen ANAITASUNAKO nomina barruan orain hiruzpalau urte? 11 pertsona, guttienez bai. Denak EHAS-ekoak omen, EHAS-eko liberatuak eta ANAITASUNAZ arduratzen ez zirenak, hain zuzen. Eta noski beti bezala, tonto bat edo biren lepora ardura guztia. Lehengoz, Iñurri-tegi-ri, Kintana-ri, Alvarez-i. Guk ANAITASUNA atzeman genuenean, lehengo arduradun teorikoak 7 milioi zorra zeukala esan zigun. Hor dauzkagu paperak gordeta. Zergatik utzi zen ANAITASUNA horrela? Nork eman zion?, zertarako? Erantzunik gabeko galderak. Beno hari-ri, garai horretan 6.000 eta piku harpidedunak erdiakere ez zuten pagatzen hain abandonu itzelean egon zen etxe hau.

**F.A.- ETA orain konpondu al da buruhauste hori?**

**J.R.E.-** Konpondu ez bada ere, konponbidean jarri nahi genuke. Kontuak ia egunera ipinirik daude. Zulorik ez dugu egiten behintzat. Inprimategiei behar bezala ordaintzen zaie. Eta langileei —beste mundukorik ez bada ere garaiz Ordaintzen zaie. Edozertara ere, subsistentzia-ko ekonomia dugula esan behar. Horrela ez da harritzeakoa, burubelarri ari diren langileak nekaztea eta dena baztertzeko tentazioa edukitzea.

Nik neuk ez dakit zer demontra pasatzen den euskaldunekin. Alperrak direla —garela— esatera ausartuko naiz. Ene ustez, Euskal Herri euskalduna izan daitekeenik ez dute gehienek uste, eta praktikan euskarazko (euskara hutsezko) prentzas arduragabeziak jokatzen dute. Nik ordea, izan daitekeela uste dut, sinesten dut, sinetsi gura dut.

**Baina argi esan behar dugu, guk ez, dugula zentzurarik ezartzen. Gurpil ero bat agertu dela esango nuke. Tendentzia batzutakoek utzi egin diote ANAITASUNAn idaztearrik. Eta bestelakoek idazterakoan, ba dirudi hori inposatzen dugula. Gu, ostera, idazle berrien zain gaude, edonolakoak direlarik.**



**F.A.- ANAITASUNAK ideologi hildorik al du?**

T.T.- Ez eta bai. EHAS-ek kontrolatzen zuenean orduan, ez omen zuen, edo bazuen denak poz pozik. Euskadiko Ezkerra eta Herri Batasuna sortu zirenez geroztik ba du. Bai mirari! ANAITASUNAK duena zera da, artikuluburua baina ez ideologi hildorik. Ideologi hildorik edukitzeak medio asko suposatzen du. Kazetari bloke bat edo eta hildo edo zentzura bat. ANAITASUNAn ez dago halakorik. Gure kolaboratzaileen artean nahiko ezberdintasun ideologiko dago. Gure artean ere, beti eztabaidatan gaude, zer nahi duzu euskaldunok gaituzu! EREK esaterako, edo PUNTO Y HORA bñ dute ideologi hildo zehatza. Denok dakigu zeini dagozkion. ZERUKO ARGIAk ba al du ideologi hildorik? Guk baino guttiago, ez baitute artikulubururik argitaratzen hala ere taktika ideologikoa ba du eta ikusten da. Guri ere ikusten zaigu. Baina hori oso normala da. Gainera ANAITASUNA ez da ez vatikanoa ez EGIN edo DEIA. Azken batez ideologi hildo bat edukitzeak euskal prentsaren garrantzitasuna eta gure pisutasun berezia izatea suposatuko luke baina zoritxarrez Euskarak ez du halakorik eta baldin bageunka edo eta partidu baten adierazpide soil soilak eginen bagenitu erridikulua ere egiten egongo ginatke.

J.R.E.- Zer esanik ez, zerbait ba dugu, beharbada kontzienteegia ez bada ere. Esaniezadazu nork edo nortzuk idazten duten eta esango dizut zer hildo daraman.

Baina argi esan behar dugu, guk ez dugula zentzurarik ezartzen. Gurpil ero bat agertu dela esango nuke. Tendentzia batzutakoek utzi egin diote ANAITASUNAn idazteari. Eta bestelakoek idazterakoan, ba dirudi hori inposatzen dugula. Gu, ostera, idazle berrien zain gaude, edonolakoak direlarik, orain arte idatzi duten guztien lanak gustura hartzen ditugularik. Orain idazteari utzi diotenei dei zabaia egin nahi diet, berriro eta lehengo adre berberaz idatz dezaten. Gure irakurleek eskertuko diete, digute.

**F.A.- Zuek esango duzue nahi duzuen, baina orain alderdien ordenu hitzik errepikatzen ez baduzue nola konpreni daitekeen zuen Herri Batasunaren aldeko jarrera?**

T.T.- Etxe honetan lan egiten dugunok Herri Batasunekoak dituzu, bi publikoki gainera. Ni Herri Batasunakoa naiz baina ez oso katolikoa. Baina hori gure gauza pertsonala da. Ez dut uste nik Jose Ramon Etxebarriak idazten duen guztienetako 5% politikoa denik. Eta hala balitz zer? Hernen ez daukagu zentzurarik. Gainera gauzak senetik ateratzen hasi zara, ene ustez, gehiago konkretatzeko eskatuko nizuke ez bazaizu inportik.

**F.A.- Bai, estatutua zela eta, zelan artikuluz guztiak estatutuaren kontra eta estatutuaren alde bat ere ez?**

T.T.- Hori garbi azaldu genuen neuk publikatu nuen karta ireki batetan. Guk ez genuen estatutuaren alde artikulurik jazo, galde ezaiezu beraz ea zergatik ez zuten bidaldu. Eta hain zail da herri honetan konprenitzea jarrera guztiak ez direla amaitzen Herri Batasunarekin, EAJ-rekin edo eta Euskadiko Ezkerrarekin? Zergatik ez diguzu leporatzen ez dakit nik bada, ANAITASUNAKo idazkuntza, anarkista, autonomia dela? Bekaturen bat egingo al genuke?

**F.A.- Nahiko anarkistak ba zarete...**

T.T.- Un proletario ha de seguir hasta el fin para ser revolucionario (Lenin).

**F.A.- Zer?**

T.T.- Bat ere ez.

**F.A.- Eraginaren aldetik, eraginik galdu al du ANAITASUNAK?**

T.T.- Galdu ez, Gehitu. Begira, Francoren garaian, Franco eta Gobernadore Zibilek ez zuten Anaitasuna irakurtzen. Orain aldiz, Garaikoetxea edo eta Makuaren bulegoetan har dezakezu. Euskal Herri mailan ANAITASUNAK ez du sekula izan eraginik. Horiek guztioiek superjankintsuek burutzen dituzten irudiak dituzu. Herri honetan euskal kasta bat egon da, berdin euskararekin, euskaradunen kasta bat, euskaradunen kasta horretan beti eragina eduki du... ba dakizu, eragin eta egin edo egin eta jan. Gero, euskararen asuntua demokratizatu egin da zorionean, demokratizatu eta desmailakatu ere bai. Horregatik esan ohi da ez duela jadanik edukitzen zuen eragina. Ez benetan, ANAITASUNA gero eta guttiago dagokio euskal aristokraziari, gero eta gehiago herri xeheari, guri bereziki.

**F.A.- Baina orduantxe bahitua izan zen behin?**

T.T.- Bahitua eta debekatuta ere. Eta orain Iruñeko Aberri-eguna debekatzen dizute. Baina orduko denboratan euskaraz ama birjinari bertsoak aterratzea probokazio bat zen. Orduetik hona gure zapaltzaileek asko ikasi dute.

**Millan.- Argitaratzen dituzuen gaiengatik kioskoetan agortzea izan daiteke gure eraginaren froga bat. Azken aleak ia denak agortzen dira. Azken gabonetako ale berezia batipat. Horixe duzu eragina edukitzea. Gainerako beste lelo horietan ez gaituzu interesaturik.**

**F.A.- Orduan lehengo denbora zaharrak lohietara botatzen al dituzue?**

T.T.- Ez dago ANAITASUNA bat. Komienigarria da hau guztiau nire eritzia dela. Hala ere nik neure aldetik gauzok bereiztu behar direla uste dut. Gure santuei esker, Euskal Herri honetan jende askok euskara idazten eta berba egiten ikasi du. Haien ardura, lana, sakrifizioa, eta abar horiengatik, euskal literatura, euskara hitz guttitan aurreratu egin da. Nik ez dut pikutara bidaltzen eta ohore naiz, nola ez, Arestiz, Villasantez, Mitxelenez, Txilardegiz, Kintanaz, Lizundiaz, Santamariatz, Gereñoz, Berriatuaz eta abar luze guzti horretaz. Horiei esker, gazte eta hain gazte ez den hainbat euskara ikasi eta idatzi egiten du. Hori garbi dago. Baina gero euskal prentsari eta abar luze bati buruzko eritzi ezberdinak dituzunez denak errespeta garriak ba dira ere, batzuekin konforme egongo zarete eta ez horiek guztioiek. ANAITASUNARI bagagozkio, askoz ba-

lotsuagoak dira enetzat gure irakurle go  
"apalaren" eritziak.

**F.A.- Eta euskal kazetaritza, etorki-  
zunik al du?**

**T.T.-** Kazetaritza ez da literatura edo eta filosofiaz edo erlijioz soilik eta nagusiki aritza. Euskara etorkizunarik izanez gero, kazetaritza ere bai. ANAITASUNAren lehenbiziko betekizuna ez da jadanik euskal ortografiaren edo joskeraren eskola izan behar, ez da mundu osoan zehar euskaraz hobe idatzita dagoen aldizkari bakarra, ez da mila zuzentzaile eta inolako kazetaririk duen errebista bat. Denbora guzti haiek nahiko joanda zaizkigu. Alde batetik damu dugu baina bestetik poztu egiten gara eta poztu zeren eta aurrera bagoaz, milarik ez badugu ere, zuzentzaile eta kazetari ugari edukiko baitugu.

**F.A.- Eta kazetaririk baduzue?**

**M.A.-** Karnetarekin eta guzi oso gutti. la bat edo bi. Baina pixkanaka ANAITASUNAK zer izan behar duen gero eta gehiago konprenitzen dute gure kolaboratzaileek. Hala ere, gure artikulua, saioak izaten dira eskuharki. Noizbehinka erreportaiaren bat, elkarrikuska bi eta horrela. Dauzkagun medioekin gehiegi eskatzea litzateke.

tzen baitu lanbidea, eratzen baitu profesionaria.

**F.A.- Eta zergatik aldizkariaren atzerapena.**

**T.T.-** Koordinaketa falta batzutan. Denbora falta, guttietan. Maizetan arazo teknikoak edo diru falta. Dirurik asko edo dextente bagenu ez litzateke atzeratuko. Moldiztegi ANAITASUNA baino garrantzitsuagoa den zer edo zer egiteko beti beti daukate eta. Gu azken deituak izaten gara.

**F.A.- Eta zein da bakoitzaren funtzioa?**

**J.R.E.-** Oso egitura sinplea dugu. Jon ek eta Asenek administrazioko lana daramate. Kobraketak egiteaz arduratzeaz gainera, iragarkiak kontratatzeaz ere arduratzen dira. Horretarako zenbait laguntzaile hartzen dituzte. Tomasek eta Millanek erredakzioko lan nagusia daramate. Artikuluak biltzea, ordenatzea, zuzentzea, .... artikulua idatzi era egiten dituzte. Maketaziorako Ramon Zumalabek laguntzen digu, Ttua taldeak azalak eta zenbait irudi egiten dituelarik. Idazleak frankotiradore direla esango nuke. Orain ez ditut hemen aipatuko, baina horik gabe ezin gintezke bizi. Bukatzeko, ni neu nago koordinatzaile bezala edo.

**T.T.-** Idazkuntza batena litzateke. Guttigarelako betekizun asko daukazu, nahastakeria. Baina ANAITASUNA ez gara gu bakarrik. ANAITASUNA bereziki, idazleak dira, idazlerik gabe, bapo ANAITASUNA; ANAITASUNA Itziar, Maria Asun Landak, Borjak, Entziodok, Zabaletak, Sendagortak, Bixerrek, Santistebanek, Agirrebaltzategik, Txillardegik. M.J. Estebanek, Eguskitzak, Ramon Zumalabek, Ttua taldekoek, Xabi, Amaia etab etab luze batek osatzen du.

**F.A.- Eta Joserraren funtzioa?**

**T.T.-** Horren funtzio printzipalena denok animatzea da. Ni neurez pesimista itzela nauzu. Joserrak dakartzazu hona etorkizuna hobearren ikuspegia eta euskal kokainazko injekzioak.

**J.R.E.-** Egia esan, ez dut lan handirik egiten. Artikuluak eskatu eta bildu, idazle herriak animatu, problemak bai erredakzioekin eta bai administraziokoekin eztabaidatu eta zerbait idatzi. Horrelako sinplea da gure etxea.

**F.A.- Ikusten dudanez, elkarrikuska hau luzegia atera zaigu. Zuen betiko letra zopa, ea nola maketatzen duzuen, ezer gehiagorik gehi bazenuite, badakizue libre zaretela erantzuteko.**

**T.T.-** Guk daukagu boterea hemen gusatu ez zaiguna moztuko dugu, ja, ja, ! Beitu, hemen dator gure maketazailea, horrek esango dizu, horrek.

**F.A.- Ze kristo gertatu zaio gizaixoa-  
ri? Istripuren bat?**

**R.Z.-** "Como salí en una revista anterior tuve un accidente y me llevaron a Cruces para ponerme la dura, ahora la tengo dura permanente como cualquiera del ayuntamiento". (1)

**F.A.- Ikusten denez gizaixoa horrek ez daki euskara. Gizaixoa! Gogorra ba du bai, hanka gogorra zeren eta igeltsu batetan sartuta dauka.**

**R.Z.-** Por si acaso, mi telefono es 00311 Una de las ventajas que tiene el euskara es que abulta menos que el erdara. Aunque sois unos rollazos de texto me teneis hasta los test y culos. (2).

1) Lehengo aldizkari batetan atera zenez, istripu bat eduki nuen eta Kurutzetara eraman, eta, bertan guztiz gogortu zitzaidan. Orain gogor gogorra dauka Udal etxeko edonor bezala.

2) Ba ez bada, nire telefonoa hauxe duzue 00311. Euskarak duen abantailenetakoa bat zera da, erdara baino espazio guttiago hartzen du. Gaien aldetik nahiko takelak ba zarete ere, barrabiletarainoxe naukazeu.



Jende askok pentsa dezake eta pentsatu egiten du hala ere, oso ongi eta inolako faltarik gabe idatzi behar duela ANAITASUNAREkin kolaboratzeko.

Eta jende asko ez da ausartzen. Eta benetan, deia egiten diot nik hainbeste jenderi gurekin kolabora dezaten, ausart dadila jendea gurekin elkar lanean aritzeko, lanak eta eguneroko lanak sor-

**M.A.-** Ene eginkizuna zein den? Adarra jotzeaz, ixtorio gordinak kondatzeaz eta abarrez, bestalde, zenbait artikulua edo artikuluxka egitea, erdara saindutik euskaratzea, hiltzen zaizkigun artikulua eta berauek makinaz pasatutakoan zuzentzea ditut zereginak. Hala ere, eskuarki denetariko lanak egiten ditugu, elkarren laguntzaile eta lankide gara, etxe alu hontan den-dena egiteko baitago.

# ARRAULTZAK

Onerako edo txarrerako noizean behin Euskararen etorkizunaz galdezka etortzea zenbait euskalduni ohitura bihurtzen ari zaigu. Eta gisa da, honi buruz dena esanda ez dagoenez gero. Errealitatea aldakorra da eta, era batetako edo bestetako ikuspegiak onartzera bultzatzen gaitu.

**Gaurko hautagai erdaldun "abertzale"ak, "Parlamento vasco"an beren ipurmamiak ezarri eta, euskalzale sutsuak bihurturik, Euskaraz hasiko zaizkigu? Edo delako "presión lingüística" hitzetik hortzera, mitinetan bezalaxe jarraituko?**


Gauko gurea larria da: Autonomi Estatutoaren ondoko eta Euskal Gobernuko urte hauetanxe erabakiko da gure hizkuntzarena. Edo egintarien eta euskaldun bizi nahi dukeen euskaldungoaren arteko indarren orekan. Lehenengoei bagozkie, baikorra izateko arrazoirik ez dago, nabaria bait da, izan, gaurko politikero gehienek (biharko egunean herriaren ordezkariak, halegia) kasurik hoberenean Euskara edergailutzat jotzen dutela. Txarreanean, eragozpenzat edo politikagatik irri goxoa erakutsi behar zaion etsaia. Gaurko hautagai erdaldun "abertzale"ak, "Parlamento vasco"an beren ipurmamiak ezarri eta, euskalzale sutsuak bihurturik, Euskaraz hasiko zaizkigu? Edo delako "presión lingüística" hitzetik hortzera, mitinetan bezalaxe jarraituko?

Bigarrerari dagokionez, hots herriarengandik Euskararen aldeko sor daiteken indarrari, jadanik ezaguna den "Euskal Herrian Euskaraz" Elakartearen historia llaburra oso adierazkorra zaigula aitor beharrean nago. Euskal Herriko alderdian euskaltzaletasun ezak sortu duela esan daiteke hein batetan, hots erakunde hori osatzen dugunok geure agintari eta politikoen konfidantzaren izpirik bageneuka ez zatakeela jaio. Eta ez da guttiorako zeren abertzaleak gehiengo osatzen duteneko erakundeetan (Udalbatzetan esate baterako) Euskararen erabilpena Frankoan ia bezain zapalduta dago.

Egoera honelakoxea da. Hala ta guztiz ere Euskal Herrian Euskaraz Elkarrekin ez dute Bizkaian opa genien arrakasta izan. Zergatik? Konturatze falta? Euskalduntasun falta?

Hori bai, gero eta argiago dakusat lagun asko zorioneko "Decreto de Bilingüismo" hartaz hasi zela.

Hezkuntzaren munduan gabiltzanok,



**Ba zen egon naizeneko ikastola batetan bere haurrari ikastolakoekin izan ezik beste inorekin ibiltzen uzten ez zaion aita bat. Erdaraz hitz egin ez zezan, noski.**

**Hobe zukeen Euskaraz ikasi balu aita hark. Orduan bere semeak ikastolako lagunekin zerabilen hizkuntza Gaztelera zela jakingo zukeen.**

kontzientzia batzu baretzogatik ere, ez duela ezer konponduko ba dakigu. Areago, T. Trifoli eta Mikel Kalzakortari

arrazoia emanaz, erdal eta ez hain erdal lurraldetako ilastoletan ikasten den hizkuntzak Euskararekin oso antz eskasa duela ere bai. "Euskal Telebista bageneuka...!" zko hasperena entzuten da nonnahi, "300 millones" ikusteko daukaguna (daukatena hobe esan) piztuaz... Ba dago baina, geroko Euskal Telebista batetan oso itxaropen goibela duenik: nerau esate baterako. Delako Euskal Telebista hortan berriak Euskaraz ikusi ordez "Chomin del Regato" eta aiza ager daitezenean, nola jokatu, zer egingo dute Udalbatzen erdal inperialismoaren aurka porteztatuzera ausartzen ez diren euskaldunek?

Ez, ez dezagun geure burua engaina: Euskal Herriko euskaldunok ehunetik hogeita lau edo bagara, haietako erdi bat

guttienez ez du Euskararen aurkako zapalkuntzaren aurka borrokatzen. Haur honela delarik, hara nire galdera:



# SASKIAN

gainontzeko ehuneko hamarrok "bilin-guismoa" gainditzeko gauza izango gara? Bai: bilingüismo, elebitasuna da Euskararen min-bizia. Zorioneko Elebitasun honen izenean Euskara eta Erdara, David eta Goliat, ardia eta otsoa eskutik dabilta, bigarrena lehengoari musuka hasiko balitzaion bezala, jan egin beharrean.

Ba zen egon naizeneko ikastola batetan bere haurrari ikastolakoekin izan ezik beste inorekin ibiltzen uzten ez zaien aita bat. Erdaraz hitz egin ez zezan, noski.

bakar batengan elebitasuna posible ez dela. Erdal zinemara joan, erdal Telebis-ta ikus eta entzun, ikasketak Erderaz egin ... eta euskalduna izan ezina da. Azkenez erdaldundu egiten da. Nolabait esateko euskalduntasuna praxian datza.

Irtenbidea? Zinema, telebista, ikaske-tak, bizitza euskaldundu egin behar ditugula. Ahal izanez gero "erantsiko nuke nik, zeren ozta-ozta beren etxeak euskal-duntzea lortu duiturten euskaldunak gi-zarte osoa euskalduntzeko gauza izango dira

eta ez darabilte ez tabakorik ez ardorik ez indar elektrikorik. Baratziatik, ehun-gintzatik, eskulanetatik bizi dira, Telebis-tarik gabeko bake zoragarrian. Larunbat-igandeetan mundu zabaleko dantzetan libertitzen dira eta egunero egiten dituzte otoitz eta gogartea.

Beraiek diotenez ez dute gure zibiliza-zioaren abantailen falta nabaritzen. Be-netan norik amestuko luke "La casa de la pradera"z etxea belardi eta larreten ar-tea kokatzen bada? Eta zer kaskar geratzen diren zibilizazio kontsumatzaile honen gozapean haien kantu eta dantza ederren aldean!

Erdaldunak dira baina.

Horiek bezainbeste geure nortasuna eta hizkuntza defenditzeko egin bageneza, zer?

Euskara, besterik ez lukete entzungo ha-lako komunitate bateko umeek. Ez lirake-te erdal munduaz gozatu nahi duten eus-kaldunek ezinbestekotzat jotzen dute Gaztelararen jabe inoiz bihurtuko. "Ele-bitasuna"ren arriskurik ez legoke, Ko-munitatean bizi izateko Euskaraz soilki ari izateko baldintza jarriz gero. Euskal-dunak gutiengo, minoria direlako aitzakiaz ez lirakete zapalduak. Eta orain ba, halabeharrez edo gakoa agertu zaigula: euskaldunok gehiengo edo majoria izan gaitzkeeneko giroetan bizi behar dugu. Bestela zapalduta jarraituko dugu... hil arte.

Itzul gaitzen ba deskribatu dizuedan Euskal Arkadia horretara. Komunitate batez osatua izan beharrean, askoz bale-di, gero eta aberatsagoagoak izango lira-kete bere dantzak, musikak eta kultur adierazbideak. Eta bizitza bera euskal-dunagoa.

**Gainera zein hizkuntzataz arituko ziren "La guerra de las Galaxias" eta "La abeja maya" erdaldunak izanez gero? Telebista eta zinema kendu ote zizkion gixajoiari?**

Honela jokatu dugu ba euskaldun zent-zudun guztiok orain arte. Eta ez alferrik: hordaude UEU, Uzei, Ikastolak ber akat-sak eta guzti.

Ordua da baina geure buruari galdetze-ko honela jokatzean ez ote ditugun arraultze guztiak saski bakar batetan gorde egin, ingelestarrek lioketenez.

Ondo azter dezagun: saski bakar arraultze guztiak kokatzeak badu bere alde ona, arraultzeak non dauden jakite-arena halebegia. Baina arriskugarria da era berean, zeren, saskia erori eta zelan.

Hau dela eta ez dut uste nik arraultze guztiak saski bakarrean jarri behar dire-nik.

Aukera baten baino gehiagoren jabe izan behar delako alde batetik; etsaiari informaziorik eman behar ez zaiolako bestetik, bide berriak saiatu behar dire-lakoen nago. Hortarako hain zuzen

**"Ghettoa proposatzen diguzu" erasango didazue.**

**Ez dakit nik. Ez naute ni izenek beldurtzen. Errealitateak bai. Eta errealitateak erdal kulturak euskalduna laguntzen duen guztietan jan egiten duela erakusten dit.**

"Anaitasuna" k tribuna publikoa eskein dezake, ea zenbat eta nolako interbideak asma ditzakegun denon artean.

Norberak berea ematera bultzatze arren hona hemen nireak:

Bizkaiko komunitate batetan egon nint-zen orain dela hamabostaldi bat, egun pasa edo. Ez dut ez izenik aipatzeko baimenik. Senar-emazte bere hiru seme-alabekin, beste mutil bat eta bi neska di-rela jakitea aski bekigu. Erlijioak elkart-zen ditu. Indarkeriaren aurkakoak dira

"Ghettoa proposatzen diguzu" erasango didazue.

Ez dakit nik. Ez naute ni izenek beldurt-zen. Errealitateak bai. Eta errealitateak erdal kulturak euskalduna laguntzen duen guztietan jan egiten duela erakus-ten dit. norberaren indarrak neurtu behar dituela bakoitzak lagun kaskorrek lagunduta irten baino lehenago.

Hurrengo arte.

Borja Barandiaran



Hobe zukeen Euskaraz ikasi balu aita hark. Orduan bere semeak ikastolako la-gunekin zerabilen hizkuntza Gaztelera zela jakingo zukeen.

Gainera zein hizkuntzataz arituko ziren "La guerra de las Galaxias" eta "La abeja maya" erdaldunak izanez gero? Telebista eta zinema kendu ote zizkion gixajoiari?

Ez, hori ez. Ez zen ordea euskalduna bere ez izango.

Eta hauxe da gure problema: pertsona

**Por la  
libertad  
contra la  
barbarie.**

# LASAREN

## AMAIA

Olerkiburua bat hartzen de-  
nean eta astiro irakurtzen, filme  
on bat eta zirrargarria ikusten  
denean bezala, inguru errealetik  
kanpo ateratzen gaituen arte-  
obra batez gozatu garenean,  
sortu zaizkigun sendimenduak  
eta geure buruari hauteman diz-  
kiogun zentzazioak apur bat  
lausotu eta apaldu orduko, nork  
bere buruari, nik neure buruari,  
itaundu ohi dio zer ote den giza-  
edo emakume horrek erran nahi  
ukan diguna.

Amaiaren liburua, hirugarren liburua,  
"Nere paradisuetan" eskuartean eduki-  
ta, amaiera alderantz heltzen delarik  
erantzuna aurkitzen dugu, ez duenak  
nahi eta nahi ez benetakoa izan behar:

**Arratsaldeko  
seiretatik aurrera  
idazten duen  
poeta bat naiz ni.**

**Nihilismo erromantikoa da  
nere gaia.**

Agian hala dateke, nihilismo erroman-  
tikoa. Martin Ugaldek hitzaurrean,  
berriz, ematasunaren garrasi bakartia  
dela dio. Hala dateke ere. Emakume ba-  
tek maitasunaz egindako gogoetak, amo-  
dioaz zeredozertxo baino gehiago dakien  
emakumeak eginiko gogoetak ematen di-  
tuzte poemok. Poema bakun, labur eta  
hizkuntza errazeko, halaz ere erritmo  
ikaragarri batez hornituak eta guztiz  
xarmant, gehienetan ere amorru izu-  
garriaz idatziak. Emakume batek idatzi-  
riko amodiozko poemak, hain gauza  
zahar eta haatik hain berri, eta Amaia

### NERE PARADISUETAN



Lasak egin dituen moduan, hain hunki  
hunkigarri eta gogabera. Has egileak  
eta beraren boltsa handiak derabiltzen  
elkarrizketatik, eta arren kontrako ise-  
kaz aurrera:

**Arra eta emea  
gizarte hontan  
Inoiz?  
ulertu ez diren  
bi pertsona.**

emakumetzat bere burua ikusteraino eta  
beraren ekintzaren hutsala somatu arte:

**Ene paradisuetan  
zuhaitz asko debekatuak daude  
paradisu guztietatik  
jaurtikia izan naiz,  
borroka guztietan  
sartzen naiz,  
ifernu guztiak irabazirik.**

Eta ez da gero beldurtzen emakumeen  
arteko amodioa goratzen duenean, arre-  
ekiko esperientzia latzak direla zio eta  
alakuntza, nonbait.



# PARADISUETAN

Poemaño ederrak, beraz, xingle, hantusteriarik gabeko eta imajinetan ere ez lar, baina erabilitakoetan zehatz (begira Kaspio Itsasoari ekainitako bertsoa), egian lantzean behin arrunt, oso guttitan baina, eta liburu osoan zehar indarrez eta herraz. Politik, bestalde, Rosa Valverde liburuari jarri dizkion marrazkiak, bakan eta erakargarri, obratxoari zertan bat ematen diotenak aski atsegin izanda lortutako osotasuna Amaia euskal idazleetan emakume bakarretariko dugu, ez horregatik, baina, maila apaleko; arras bestela, hizkuntzaren jabea, sendimendu gaitzen eroale eta adierazle, eta oroz gainetik, indar ikaragarriko delarik ere, laztantazunez agortezina. Eta hau diot, liburu osoari darion xarmagatik, darion ezin defini daitekeen halako sorgindura eta lilura ederragatik, inoiz arnagabeko uzten hauen siratsa.

Oso liburu laburra izanik, obra guti horietako bat, gauza berri bat da euskal literaturan; berri hain gutxitan erabili den erotismoaz parrastaka baliatzen delako, eta berri ere emakume batek emakumeen alde egin oihu bat delako, beste edozein tokitan baino botere gehiago ukan arren, eta kanpotik ibili den edonork goma zezakeen hori, ez delako falta gure artean arrismo edo eta matxismo horren aztarnarik. Erotismoa lehenik, Etxepare eta Miranderen ostean bera delako

horretaz baliatu den euskal poeta bakarretariko, finki eta zuzenik eta beti atsegin, murrizaldi mentalik gabeko, behaztoporik gabeko eta libre. Eta horretan behinik behin ez da inoiz arrunt eta gustugabeko gertatzen. Emakumeak bigarrenik, emakumea izanda gizon askoz, nonbait, leporaino dagoelako eta aserik; eta hor ba da gogorra gero. Edozelan ere irakurtzeak merezi duen lana, oso dotore, Euskal Argitaletxeak publikatua.

Eta betiko legez, iruzkin xume honi giltzea emateko, hona hemen nire gustuko liburuaren olerkirik ederrena:

**Gauero desleial izanen nauzu, mugarik gabeko udazken gorritsu hartan maitasuna ukatearekin gaua erakutsi zenidalako, ni argiaren maitale nintzenari.**

**Luzaroko denbora iragan zuen Izadurrek, amodiozko dantzan.**

**Hainbat ordu.**

**Ttanttaka, ttanttaka, emeki, emeki, bere ametasuna isuri zuen, itsasoak jotzen zuen bazter guztietan.**

**Egun batean, udarako arratsalde batean, Izadur, askotan bezala, harkaitzak osatzen zuten xoko gozo hartara joan zen; bertan etzan eta egun eta betirako itsasoari so geratu zen.**

**Bere buruaz beste egin zuen, udarako arratsalde batean eguzkia itsasoan sartzen zen mementuan.**

## BASERRITARREK ERAKUTSI ZIDATENA. EUSKAL HERRIKO NEKAZARIEN ELKARTEA

-Goiz zen oraindik, eta baserritarrek Tolosako Leidor zinemaren ateetan itxoiten zuten.

Hamarretan gutxi gora behera, ateak iriki ziren eta pixkanaka pixkanaka baserritarrek hasi ziren esertzen.

Pantailaren aurrean mahai luze bat zegoen, eta bere ondoan txartel batzuk euskeraz idatzita: "Baserrian jarraitu nahi dugu", "E.H.N.E. zabaldu baserritarrek indartzeko", eta ikurriña txiki baten ondoan sindikatoaren izena "Euskal Herriko Nekazarrien Elkartasuna".

Mahaiaren atzean eserita elkartasunaren ordezkari garrantzitsuenak Dorrontsoro, Lekuona, Odria... eta publikoaren eserlekuetan buru txapeldun asko, besterik ez.

Martxoaren 23an, Tolosan ospatzen zen bilera hontan, E.H.N.E.ren II. batzarre nazionala zen. Bileraren bidez, baserritarrek dauzkaten arazo haundiak hasi nintzen pixka bat gehiago ulertzen.

Bere prolematika latzarekin batera, bere nortasuna, eta bere berezitasunak azaldu ziren bere mingostasun osoarekin, nire begien aurrean.

Batzarrea, haien prolematika bezain luzea egin zen, baina hala ere oso atsegina "iruditu zitzaidan".

Haien mingainetik ez nuen hitz bat erderaz entzun, eta lau ordutako bilera izan zen. Haien ahoetan herri zahar baten jakinduria osoa aurkitu nuen; jakinduria bat maltzurriarik gabe, guzurririk gabe... Haien hitzekin, bitzaren ezaguerak hitzegiten zuten.

Batzarre hontan ikasgaia handi bat erakutsi zidaten baserritarrek: "Euskeraren erabilera, bakarrik euskaldunen borontean datza", eta ez kalean erabiltzen diren teoria progre eta superiraultzaile hoietan. Jelkidismoa, marxismo-leninismoa, trotskismoa, maismoa, eta nik ez dakit zenbat "ismo" gehiago; Hitz asko, eta bakoitza bere arrazoteekin, bere egiarekin, baina progresiaren ahoan jarriak, hitzak, besterik ez dira. Eta gehienetan (beti ez esateagatik) erderaz eta erdararen alde.

"Por un bilingüismo eficaz en una Euzkadi independiente y socialista". "Gora Euskadi euskalduna". "El euskera es el idioma nacional de Euzkadi". "El euskera tiene derecho a una escolarización efectiva"... Noski baietz, baina ez bakarrik alderdi eta buruzagi politikoen hitzaldietan, geura kale, lantegi, eskola eta etxetan baizik.

Superteoria hoiakin ez dugu ezer egiten eguneroko praktikan ez badugu jartzen.

Euskal alderdiek gauza franko erratan dute haien mitinetan euskararen alde, baina ordua iristen denean, gehienetan erdaraz entzuten diegu. Hor gelditzen dira, beren asmo eta helburu guztiak.

Baserritarrek ez dute hortaz sekulan ezer esaten, ez dute hortaz txisturik gastatzen, baina euskara beti dago hizia haien mingainetan. Hori da teoria onena, praktikan jartzen dena.

Benetako harrirtuta gelditu nintzen ere, haien artean daukaten errespetua ikustean. Ez zen ez da txistu oihu bat entzuten, Lazkaoitxiki, Agirre, Koxme Lizaso eta Telleriak bota zizkiguten bertsoak, egitan mundu hontako edertasunez jantzita, iruditu zitzaizkidan. Hontaz ed-takit ezer baina segur nago ez zutela pezeta bat kobratu, eta bertsolari horiek bai herrikoiak direla.

Azkenean eta bukatzeko, euskal komunikabiderik ikusi ez nuela apetu nahi nuke.

Minialderdi edo minialdetxo batek egiten du bileratxo bat eta hor daude egunkari, aldizkari, eta irratiak, baina ikusten denez nekazariak egiten dituzten ekintzak, ez dute ezer eta inorentzat ere balio.

Bainan ze arraio, baserritarrek gaurko gizaritean lekuri ez ahal daukate?

Karlos Barrentroro.

# MALCOLM LOWRY

EPITAFIO BATENTZAKO IZENA

Malcom Lowry  
Boweryko defuntua  
Haren hizlauratsua zen,  
Eta batzutan hasarre egiten zuen.  
Bizi egin zen, gauzez, eta edan, egunez.  
Eta ukelelea joaz hil zen.



"Epitafioa" izeneko Malcolm Lowryren poema tipi hau hasieran ipiniz uste dut presentazio bitxia egiten dugula. Honez gain, esan behar da Malcolm Lowry dela mende honetako nobela handienetariko baten egilea, "Under the Volcano" delakoarena alegia. Eta nobela handi honekin batera "beste aintz gauza idatzi dituela, gehienak postumoak izan direla, eta hauen artean ipuinek eta poemek batez ere, mundu literario harrigarri eta hunkigarri bat sortzen dutela, mundu bikain bat non bizitza edertasunaren eta heriotzaren artea hatzematen bait da.

Malcolm Lowry irakurtzen badugu laster ohartzen gara haren lengoaiaren oparotasunaz eta lengoia oparo horrek sortzen duen mundu hunkigarri eta koloretsuaz, bizitzaren idurikoa ezik bizitzaren ordezkoa izan nahi duelarik. Malcolm Lowryren nobelak ematen digun mundua jadanik barrokoek emana zigitenaren gisakoa da, zentzuak nagusi direneko mundu oniriko bat alegia.

Baina, esan dudanez, ez bizitzaren idurikoa baizik eta ordezkoa. Malcolm Lowryren munduan eguzki eta enara egunak kausi ditzakezu, euria dakarten hodei

beltzen azpian itsasoko uhainen aparra hegatsez, atertu ondoren oihanean ikus dezakezu esperantzaren bat loratzen zilarrezko errainu batek zeharkatua, eta saguzahar eritu bat goiz horian.

Arratsaldeetako behelaino gorriskak ere idoroko dituzu ibarretan zabaltzen, baina orduan entzungo dituzun arnas hestuak ez duzu jakingo maitaleenak edo hiltzorikoenak diren, eta haurrak ikusiko dituzu noizbait zeure hilarria lantzen eta esku tipiez hanxe zeure izena eskribitzen, eta, honela, konturatuko zara isil-tasunera, erotasunera eta heriotzera kondenaturik zaudela labyrintho gaitzean.

Ezen suntsidurazko sendimendu hau Malcolm Lowryren azken pintzelada eta pintzeladarik gogorrena bait da bere idazlan guzietan, izan ere, literatura bizimodutzat hartzen zuelarik bazekien ez zuela bizitzan bezala literaturan ere sal-

**Malcolm Lowry irakurtzen badugu laster ohartzen gara haren lengoaiaren oparotasunaz eta lengoia oparo horrek sortzen duen mundu hunkigarri eta koloretsuaz, bizitzaren idurikoa ezik bizitzaren ordezkoa izan nahi duelarik.**

# Y LABIRINTA OAN

Malcolm Lowry nobelagile eta idazle deitu ohi den arren, esan behar da ez duela, darabilen tresneriaz aparte, zerikusirik ez antzik idazletzat hartzen den arketipoarekin. Izan ere, Malcolm Lowryren literatura bizitza hondatuaren botika moduko zeozer da edo, areago, eldarnioa.

baziorik idoroko. Eta, honetaz, Malcolm Lowry nobelagile eta idazle deitu ohi den arren, esan behar da ez duela, darabilen tresneriaz aparte, zerikusirik ez antzik idazletzat hartzen den arketipoarekin. Izan ere, Malcolm Lowryren literatura bizitza hondatuaren botika moduko zeozer da edo, areago, eldarnioa.

## BIOGRAFIA TIPI ANTZERA

Malcolm Lowry 1909ko uztailaren 28an sortu zen Birkenhead, Cheshire, Ingalaterran. Kotoi merkatari familiakoa zenez gero oztupoak izanen zituen gero bizimodu eroso utzi eta ogibidetzat literatura hautatu zuenean. Bestalde, 10 urtetatik 14 urtetara itsua izan zen, iritasun iragankor bategatik. Gero, Cambridgen ikasi zuen, bere gurasoak pozteko moduan, baina ez luzarorako. 18 urte zituela itsasoratu egin zen, kargero batetan, Soraldeko abenturarantz abiatzeko, eta geroztik mundu zabaleko ziudadanoa izanen zen.

Baina ez Joseph Conrad-en pertsonaien antzera, baizik eta ohorea begiratu gabe, Antillasetako burdeletan ukelelea

joaz edota Bostongo espaloietan horditua eta etzanik egunsenti urdinei begira. Ikasketak amaitu ondoren Iparraldeko itsasoetara abiatu zen eta hanxe idatzi zuen bere lehen nobela, eskuiskribua etxea erre zitzaionean galduko zen arren.

1933ko abenduan ezkondu egin zen Parisen, Jan Gabriel aktorea gaztearekin. Eta 1938ra arte iraunen zuten elkarrekin, ezen urte honetan, Mexikon, emazteak hautatzeko eman bait zion: bera ala alkohola. Eta nobelagileak ez zuen hautatu, zer hautatu ez zuelako, eta emazteak alde egin zion.

Beraz, 1936an "Under the Volcano" idazten hasi zen Mexikon, eta emazteak utzi ondoren Los Angelesera joan zen bizitzen, Hollywood non gidoiak prestatzen lan egin bait zuen. Hemen moldatu zituen gidoien artean "Tender in the Night" egin zuen, Scott Fitzgeraldt beste alkoholiko printzipalaren nobela.

1939an Vancouver hirira heldu zen, eta, hurrengo urtean, berriro ezkondu Margerie Bonner idazlearekin, zeinek ez bait zion sekula alkoholaren eta mai-

tasunaren artean aukeratzeko eskatu. Kanadako sartaldean bizi izan ziren, horditu eta idatziz.

"Under the Volcano" nobelaren lau garren bertsioa — ezen aurreko beste hiru edo editoreek onartu ez edo galdu egin bait zituen — amaitu zuenean Mexikora joan ziren. Mexikon gertaera kafkiano batzuren biktima izan ondoren bota egin zituen poliziak. Hemendik, Europara abiatu ziren, eta "Under the Volcano" argitaratu zen, aldiberean New York eta Londresen 1946an.

Malcolm Lowry, jadanik famatua, Europan bizi izan zen, aspaldian bezala, idatziz eta hordituz. Sussex, Ingalaterra hartu zuen bizilekutzat eta hemen hil zen — azken mozkorraldiaren ondoren — 1975ko ekainaren 27an.

## BIZITZAREN ETA LITERATURAREN LABYRINTHOAN

Hil ondoren gehitu egin zen Malcolm Lowryrekiko estima, ohi denez. Idazlan postumoak argitaratu ziren, erre izan ez zirenak, galdu izan ez zirenak bederen: narrazioak, poemak eta gutunak. Literaturaren Olympora igan eta azertua ere izan da, esate baterako Perle Epstein iparamerikarrak "The private Labyrinth of Malcolm Lowry" deritzan saiakera argitaratu bait du.

"Under the Volcano" da, edozelan ere, Malcolm Lowry ezagutzeko obrarik funtsezkoena eta argigarriena. Nobela honetan da bere obra guzua, eta bizimodu ere. Beste narrazioek obra handi



# GAIK LITERATURA GAIK LITERATURA GAIK LI

honen erangarriak dirudite, poëmak nobela honentzako glosak direla dirudi, eta idazlearen bizitza ere autobiografia bailitzan atzeman ahal da nobela xar-mangarri honetan.

Hain zuzen ere, bizimodua eta nobela bildu egiten ditu Malcolm Lowryk. Nobelagintza bizitzagintzaren heinean sortzen da, hau da, bizi hala idazten da nobela, idazlearen bizilekua eta mundua bere nobela delako. Hauxe da "Under the Volcano" nobela honen funtsa, bizitza norberak idazten diharduen nobela izatea, eta honela iristen da Malcolm Lowry halako metafisika literario batetara.

Bada, Malcolm Lowryk bizimodutzat hartzen zuen literatura, baina jakinik ez bizitzan bertan ez literaturako bizitzan ez zuela salbaziorik kausituko. Eta, orduan, literatura herbesteratzearen antzerakoa da, hots, atzerrirabide amaigabe bat, labirinto gisakoa, labirinthoa non sartzen diren gerlariak, poetak eta beste abenturagileak, amaierarik ez edota amaieran isiltasuna, heriotza eta erotasuna kausitzeko. Labirinto honetan irteerarik ez, bizimodu merkatarira itzultzea saldu, eta irteera hau are eta urriagoa, Hau da, bada, Malcolm Lowryren mundu da, edo labirinthoa eta — poema batetan dioenez — gartzela, zeinetan gauza ederrenei ere funtsezko gabezia eta suntsidura bait darie.

Lurralde argitsuak, bai, baina barnean etsipenez nahiz koloretsu azalduko hutsalak eta kondenak. Ameriketan eta Europan, lehorrean eta itsasoetan barrena



abiatuko da Malcolm Lowry, paradisu zoriotsuak bilatzeko lehian, bere infernu pribatuak itzalaren antzera darraiola.

Orduan, herabea izanen da. "Liverpoololeko kaleok, egin ezazue nigar nigatik!" oihukatuko du etsipenez. Eta arrakastaren tenorean ere, "Under the Volcano" argitaratu ondoren ospearen musu traidorea senditzen duenean eta onartu gabe sufritzen duenean, idatzi egiten du arrakasta kondenazioa dela, erakutsi egiten bait du hain gauza urri batentzako bakarrik lan egin duzula hainbeste. Eta bere benetako patua onarturik, ospearen musu traidorea senditzerakoan, aihenaka esaten du laby-

rintheko nobelagileak, tekila trago bat edan orduko: "Aineza betirako ilunpetan geratu, hondatu eta frakasatua".

Joseba Sarrionandia

## PENTSATZEN GELDITZEKO ASTIRIK GABE

Hurrengo tragua da esperantza bakarra. Laket bazaizu, paseatu egin dezakezu. Pentsatzen gelditzeko astirik gabe, hurrengo tragua da esperantza bakarra. Alferrik zalantza mugan, Alferra baino txarragoa mintzatzeko guzi hau.

Hurrengo tragua da esperantza bakarra. Laket bazaizu, paseatu egin dezakezu.

## POEMA BAKANA

Bihotzik gabeko gizon bat ezagutu nuen:

Haurrek atera izan omen zerakoten, Eta otso goseti bati eman Zeinak hartu eta ihes egin bait zuen.

Eta ihes egin zuten haurrek, heuren ugazabak, ere, Oso hurruti abiatu zen piztia, Eta haren atzetik, persekuzio berezia, Bihotzik gabeko gizonak zalantzan zirauen.

Lehengo egunean ezagutu nuen gizon hau harrotasun groteskoa paseatzen. Bere bihotza berriztatua, aurpegiera alaia, Otso amultsua bere alboan:

Malcolm Lowry

**AUZMENDI**  
Sastre on baten izena.

Vergara, I.  
Donostiako estiloa.

Zure arazoak  
sentitzen ditugulako


BETI GAUDE  
GURE ZERBITZUAK  
BEHAR DITUZUN  
TOKI ETA MEMENTUAN



*BILBAO/VIZCAYA*  
*Talde segurtatzailea*



Beti zeure eskura



# DEMOKRAZIA EDO FAZISMOA

Paul Goodman-ek zioen bezala, gaurko demokrazietan dagoen ezintasunaren sentimentuak, fazismoarantz eramaten gaitu. Baina fazismo hori ez da, ezagutu ditugun fazismo historikoen erakoa. Demokrazien aurka jeiki ordez, instituzio eta gizarte demokratikoa deuseztatu ordez, demokraziarekin nahastatzen da, iturri berdinetatik hasirik.

Onerako edo txarrerako noizen Euskararen etorkizunak galdezka etortzea zenbait euskalduni ohitura bihurtzen ari zaigu. Eta gisa da, honi buruz dena esanda ez dagoenez gero. Errealitatea aldakorra da eta, era bate-tako edo bestetako ikuspegiak onartzera bultzatzen gaitu.

Hauteskundeetatik datorkigun sistema demokratikoa apurka apurka onartzen dugun fazismo moeta batean bilakatzen zaigu. Bilakabide horren lehen pausua,

Bernard Vincent-ek dioskun bezala, Maurice Duverger-ek definitu zuen oso argi: mendebaldeko demokraziak, *monarkia republikanoetan* bihurtu dira. Itsuak ez ba gara, erraza da konturatzeari, gaurko politikoeak eta hautatuak diren *herriaren ordezkariak* ze botere izugarri batu dute beren eskuetan. Boterearen bilketa eta zentralizapen hori, historian izah diren tirano eta diktadore handienek ere ez dute ezagutu, ez dute lortu. Gaur egun ikusten dugun bezala, lehendakari batek edo Estatuko gizon batek, edozere erabaki dezake, popularen baimenarekin gainera, norabide bateko erabakiketa bada. Hots, zentralismoaren bidekoa bada, giza bakearen bidekoa bada eta produkzioaren handiketaren bidekoa bada.

Gidari politiko modernoak, *mass media-k* lagundurik, sinadura batez edo erabaki batez, herri oso baten etorkizuna konprometi dezake, gerla batera abiatu herri osoari, eta hau da txarrena, herriko jendeari zorutzen eta atzetik eramaten, prozesu guztian parte hartu ezin arren.

Demokrazia den sistema politikoa, hauteskundeetan inarrizten da, hots, herriaren nahimenaren erakusketetan. Sistema honek, mendebaldeko gizarteetan aktu politikorik garrantzitsuena da, men-tema proletarioarekin dagoen desberdintasuna erakusten. Azkeneko honetan,

*alderdi bakarraren* sistemak arazo guztiak desegiten ditu, problema guztiak desagertzen, noski.

Ba hauteskundeak gero eta gehiago, rito batean bihurtzen ari dira, giza bizitzaren aktu garrantzitsuena izan ordez. Gainera gertaera horik oso tartekatua izaten dira, tarte horretan aukeratuak izan diren politikoeak haien xedeak eta gurariak bakarrik betetzen; Parlamentua, ikusten den bezala, garrantzi guttiago izaten gobernuaren ondoan, hots exekutiboaren ondoan.

Beste aldetik ere, politikoeak proposatzen dituzten egitarau politikoeak, beti, Sistemaren logikan mugitzen dira, hau da, zentralismoaren logikan, handitasunaren eta hazieraren logikan: produktu gehiago, eskola gehiago autobide gehiago, lantegi gehiago etab., populua behar duen bizitzaren logikan ordez.

Krisisa edo larrialde honen urteerarako zein da proposamena? Argi dago: inber-sioa, lantegi eta enpresen salbapena, langileentzat ordulanak lortzea, ordu-extrak ahal ba dira ere, etab. Inola ez bizi kualitatearen hobakuntza edo aldaketa kualitatiboa.

Politikoeak aukeratuak izateko, *Estatutu sentitua* eduki behar dute, eta "bizitzaren mailako" defendatzailea izatea behar du.

Sistemak aukeratzeko libertatea iger-





LOPO...  
...  
...  
...



# MO ONHARTUTA?

tzen digu eta hain hestu izaten Sisteman bidea, berdin zaigu nor aukeratzea, pertsonal balioa badu edo ez. Kritika honek, ez du zalantzan ipintzen boto demokratikoaren beharra baina beren guttiegiatasuna eta desnaturalizapena nahi du Salatzea.

Jefferson-ek pentsatu zuen demokraziak, gobernatzera irakasten zuen herriari eta arazoko administrabidea berari ematen, erresponsabilitateko iturriak ugaritzen zituen, polemika ere sorrerazuten, herria bere buruaren jabea izan zedin saiatzen. Baina gaur ditugun instituzioek, herriari engainatzeko konspiratzen dute eta ezjakina eta jopua bihurtzeko lantzen dute.

Politika,espezialisten eremu bat bihurtu da. Lar konplikatuak izanik politikaren jokua, jadanik, beheko herriak ezin du parte hartu bere desarroluan. Langile eta kontsumotzaile bezala beheratu, gaurko gizona, konformista eta jopua, fazismorako oinarria egina dago.

Oinarri hau, Sistemak bazterreratu duen jendez betetzen da edota bazterreratzen ari denez: negozioetako gizonak, etxejaun ttipiak, inflazioaren ainitz biktima, baserriar hiriratuak, gudari burjesttipiak, bihurtu diren langileak, hots: beldor denjende guztia, mehatxatua eta kompleodun jendea etab. Jende guzti honi, gizartetik kanporatuta daudenei, beste hauk irastan ba diegu, : Gazteak,

langabezituak, defentsa gabeko zaharrrak, etab, gehiengo isil bat edukiko dugu, gertu dagoena, gobernu gogorra eta autoritario bat onartzeko, edo obeki esanda, aukeratzeko.

Prozesu horrerantz eramaten gaituzten zioek eta egoerek, ez dugu pentsetan eremodiorik ez dutela. Gizonak Sistema alda dezake, hola nahi badu. Baina gertatzen den bezala, denok pentsatzen baldin badugu egoera hau aldaezina dela eta igururutzen gaituen sistema naturala edo beharrezkoa dela, orduan bi bihurtuko da zerbait benetazko aldaezina eta betikoa.

Jon Sendagorta

Zera guztiaren azpian dagoena, Bernad Vincent-ek dioskuena da eta hau dugu, gizon modernoak ez duela ezertan sinisten: ez bere buruan, ez besteengan, ez bere lanean, ez bere gizartean eta bere komunitatean, ez gizonarengan, honela hartuta, izaki gisa. Ez da ere, jainkoan eta ez de-abruarengan. Azken finean, arazo politikoa laguntzaile bat dauka eta hori, krisis erlijioso bat da, eta larrialdi hori, gure zibilizazioaren sintoma sakonena da.

## SINETSI BEHAR?

Errazegia gertatzen da esatea, askok egiten duten bezala, munduaren azkenean bizi ari garela eta jadanik ez gaituela inork salbatuko datorkigunik.

Tabernak, jaletxeak eta lanik egiten ez den bulegoak sasizoiologoz beterik daude. "Sasi" hauek izugarri saiatzen dira gure gizartea, zibilizazioa, irtebide gabeko bidetzar batelara jaurtitzeko. Baina honelakoxe ur nahastutan murgiltzen direnak, denek daukate kidetasunezko karakteristika bat: nahiz eta gugandik hurbil-hurbil itzeleko katastrofeak ikusi, ez da horietako inor gauza sumendi hau leher ez dadin zer egin behar litzatekeen imajinatzeke.

Edonor, itsuegia ez bada, kontura daiteke Carter ezjakin zapuztu bat dela; Giscard hipokrita bat dela; Thatcher anderea ez dakit zein mendetik ihesiriko harpetar bat dela; Brezhev hilik —edo hiltzeaz— dagoela; sandia diktadore odol-egarritsua dela; Juan Carlos pailaso hutsa dela... Baina oso zaila gertatzen da gaurko egunotan, momentuotan, bidagurutzaz honelarako ihespeda idortzea. Gure planeta konplexuegia da, izan.

Aintzina, notizia batek itsasoa zehar zezan sei hilabete edo behar zirenean, ba zegoen denbora horren buruan albistea errealtaterik ikusteko posibilitatea. Komunikabideek ez zuten gaurko zabalpen-ahalmena. Beraz, gizonen beren bandoa edo taldea hautatzen zuten eta hartan geratzen ziren. Egun, alternatibak, opzioak, modalitateak... ezin zenbaizekoak dira; eta nahasterik handiena agertu da ideien munduan.

Inperialismo hitzak adierazten duena, argi zegoen Bigarren Mundu Gerraren aurrean. Orduan, inperialistak inperioren bat zeukatenak ziren, Britania Handia kasurako; eta inperialisten kontraskoak, inperio hauen kolonien bizilagunak. Jaun batzuren kontra burrukatzen zuen Kenyako gazte bat, antiinperialista zen. Gaur egun, Eritrean etiopiar, soviatar eta kubatarren kontra burrukatzen dutenak, antiinperialistatzat dauzkate beren buruak.

Eta Eritrean esortzen diren kubatarrek ez ote dute usteko inperialismoaren kontra ari direla? Ez ote dukete hori berberori uste izan Angolako oihanetan bildako kubatar soldadu berberak?

Ikuspuntu ezberdinak. Arbas bestelakoak.

Ba dira hitza gizonaren esarik printzipalena dela pentsatzen dutenak...

Hainbeste informazio ezberdin iristen zaigula geure garunetara, askota? ez dakigu zertaz sinetsi, nori jarraitu. Egunero erasolzen diguten mass mediek ez dute inolako begirunerik. Guk ezer esan gabe iraun behar dugu. Eta hauteskundeetan ikus ditzakegu argiagoxe hitzaren askotariko asanahiak. Hitz bakar batek hiztegi oso bat dakar bere atzelik; eta hizkuntz anitz jakin behar dugu hitzaren esangura bere osotasunean aditzeko.

Hala ere, zer edo zertaz, nor edo nortaz fidatu behar gara; behar larri hori ezin uztekoa egiten zaigu. Bestela zokorik ilunenean aurkituko dugu geure burua.

Gero eta zailago ikusten dugu geure bidea.

Geroago eta iluntzenago geure erabakien argikusmena.

Honexegatik errazagoena eta aproposagoa, agian, dateke —gehienetan— ixiltzea honelakoxe amaraunetan.

Karlos Santisteban

# anaitasuna

COORDINAKETA  
J.R. Etxebarria

IDAZKUNTZA  
M. Aldana, T. Trifol

IDAZKUNTZA KONTSEILUA  
J. Agirreazkuenaga, M. Aldana  
A. Eguzkitza, J.R. Etxebarria,  
M. Izagirre, J. Llerandi,  
J. Sarrionandia, T. Trifol, I. Urtaun  
I. Zabaleta

ARABA  
K. Mendia

BIZKAIA  
J. Llerandi, T. Trifol

GUIPUZKOA  
A. Oiartzabal, I. Urtaun

IPARRALDEA  
M. Lanatua

NAFARROA  
B. Zabaleta, I. Zabaleta

NAZIOARTEKOA  
M. Aldana, M.J. Esteban

IDAZLEAK  
P. Agirrebaltzategi, J.L. Alvarez, J.  
Artzelus, J.M. Artzubiaga, J. Azur-  
mendi, F. Alaña, J.J. Bakedano, B.  
Barandiaran, J.R. Bilbao, A. Eguzki-  
tza, E. Entziondo, J. Etxebarri, J.  
Iturbe, M. Kaltzakorta, X. Kintana,  
S. Laffite, M.A. Landa, J. Mendiza-  
bal, J. Orbezuza, M. Otazurialde, M.  
Pagola, X. Portu, K. Santisteban, J.  
Sarrionandia, J. Sendagorta.

LANKIDEAK  
K. Arko, X. Gomez, J. Idigoras, L.  
Trask

FOTOGRAFOAK  
A. Alday, Imanol, Txaber, R. Zarra-  
beitia.

MAKETAPENA  
R. Zumalabe

KOMIKIAK  
X. Etxenike, Gentz, Monty, B. Zia.

MARRAZKILARIAK  
Ttua Taldea

PUBLIZITATEA  
ETA  
HARPIDETZA  
J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA  
Zabalbide 68-entlo. BILBO 6  
Tfnoa: (9-4) 433 5808

MOLDIZTEGIA  
Estudios Gráficos  
lege G.D.L. Bi-1753-1967  
PRINTED IN BASQUE COUNTRY

# ANTROPOLOGIA ETA

## PREHISTORIARI BEGIRA

Marta Moia antropologa Euskadin egon da. Zenbait lekutan hitzaldiak eman ondoren, Donostiako Emakumeen Asanbladak Martxoko 8aren inguruan, antolatutako ekintzetan parte hartu zuen, Antropologia eta emakumeari buruz hitzaldi bat emanaz.

Jakina denez, antropologia arloan, interpretazio ezberdinak eman ohi dira. Datuak, gutti izanik, antropologo bakoitza bere balorapen eta interpretazioa emateko beharrean aurkitzen da. Hau da, Marta Moiak ez zigun, agian, datu berririk eman, interpretazio berri bat baizik. Ohizkoa den bezala.

Beno, eta zer axola zaizkigun guri prehistorian gertaturiko kontuak, galdelezake norbaitek. Erantzuna erraza izango litzateke: Prehistoriara jotzen dugu, historia bera ulertzen ez dugulako. Emakumeen zapalkuntzari dagokionez behintzat, derrigorrezko galderak bururutzen zaizkigu: Betikoa al da zapalkuntza hori? Patriarkagoa nola sortu zen? Ezagutu al du emakumeak "urrezko harorik"? Eta abar luze bat.

Historiak berak ezin die galdera hauei erantzunik eman. Historiak erakusten digunez, emakumea gizarte guztietan izaki zapaldua agertu izan zaigu. Leku, denbora eta zibilizazio guztietan. Ez dugu emakumeen zapalkuntzarekin topo egiteko gizarte kapitalista ezagutu behar. Gizon ezkoen boterea eta emakumezkoen zapalkuntza klase borroka baino



Emakumeek ez dute izan iñon, sozio-ekonomiko eta politikorik botere. Ez zutela izan beharrik, somatzen du Martak. Nondik datorkigu matriarkago fantasma horren beharra?... Patriarkagoa justifikatzeko agian? Patriarkagoa, emakume eta gizonezkoen arteko boterezko burruka baten ondorio bat bezala agertzeko nahian?

## EMAKUMEA: Marta Moia

lehenagoko giza eraketa dugu. Historian zehar, patriarkagoa beste zapalkuntzan ororen oinarri eta eredu dela esan genezake.

### MATRILINEAR GIZARTEA

Beraz, Prehistoriara jo behar, ea patriarkagoaren jatorriaz jabetzen garen. Eta hasieran esan dugun bezala, hemen ere datu gutti eta interpretazio ugari.

Baina, garai batetan, gizarte antolaketan matrilinearra zela, egiaztat jotzen dute antropologoek. Hau da, aintzina, emakumeen bidez osatzen ziren senitarteak eta emakumeen bidez igortzen ziren ondasunen heredentziak, aitek ez baitzekiten enaltze prozesuan hartzen zutela parte.


Halako matrilinear gizarte batetan, kanpoko gizonezko zirkulapen libre bat zegoela dio Marta Moiak. Eta hau, an-

me-alaben JABE, bihurtzen da. Eta patriarkago egitura inposatzen da eta matrilinear egitura suntsitzen da.

### MATRIARKADO DELAKOA

Matriarkagorik?... Ez, erantzuten du Marta Moiak.

Matrilinear gizarte ez zen matriarkago bat. Emakumeek ez dute izan inon, botere sozio-ekonomiko eta politikorik. Ez zutela izan beharrik, somatzen du Martak. Baina, ba dirudi boterezko harremanik gabeko gizarte bat imaginatzea, kosta egiten zaigula edo, matriarkagoaren ideia behin et berriro agertzen da. Ez dago frogarik, ez da inon arrastorik aurkitu. Nondik datorkigu matriarkago fantasma horren beharra?... Patriarkagoa justifikatzeko agian? Patriarkagoa, emakume eta gizonezkoen arteko boterezko burruka baten ondorio bat bezala agertzeko nahian?



tropologo estrukturalista eskolaren ideia baten aurka joaten da: Levy Straussek dioenez, emakumeak BETI izan dira gizonezkoen arteko truke balore bat. Marta Moia erantziz, emakumea gizonezkoen truke balore bat bihurtze hau, gero-gero gauza bat da.

Matrilinear giza eraketa, milaka urte iraun ondoren, eta zenbait aldatuta ezezagunen poderioz (hemen dago kakoa...) gizonezkoa, emakumearen JABE eta se-

Galderak besterik ez dira. Baina Marta Moia hitzaldiaren inguruan sortu ziren eztabaiden garaian, Louise Michelen esaera zetorkidan burura. Askotan mila buelta eman diodan esaldia:

“Emakumezkoak ez gara gizonezkoak baino hobekoak, baina botereak ez gaitu usteldu...”

Agur Marta, beste bat arte!

Mariasun Landa

## BOTILA

Botila guztiek izaten dute barneko “zer” berezi bat, ezkutuzko hondo barnegarri bat. Eta, naiz eta disimulatu ez aipatu, denok daukagu une jakin batzutan botilaren olatuetan murgiltzeko premia.

Handiak, txikiak; platikozkoak, beirazkoak; hutsak, beteak... Denek gordetzen dituzte, baina, botilatunaren ezagugarri nabarmentenak, behinenak.

Kortxoa ateratzen dugu eta..., berehalaxe ausnar dezakegu champagnaren burbuilen zotinezko dantzaldia; ardoaren laguntze-jorana; ur freskoaren kimikotasun adierazteazina...

Nik ez ditut hain errax ahaztuko maite izan ditudan botilak. Eta, ziur nago, betirako iraungo du nigan maiteago nuenaren gomutak. Aitortu behar badut, huraxe izan zen nire birjintasunaren himena apurtu zuena. Huraxe nire lehen ohelkidea. Eta, ordudunik, taigabeko hordialdi batetan nago. Niretzat jadanik ez dago klimaxik ez orgasmorik: nire botilaren oroitzapenarekin oro naiz klimax-orgasmo.

Ez dut inoiz igarri zer gordetzen zen botila haren altzoan, baina ba dakit, jakin, heren bat —gutxienez— ergia zela; eta beste heren bat —gehienez— gezurra. Gainerakoa, agian egia...

Ez, ez galdetu gehiago horretaz. Naizen hezalkoa nazue orain. Zertarako itaundu gehiago joandakoaz?

Lehen, bai. Ba ziren botilei buruzko ipuinak. Irla bakartietan botila omen zen naufragoen itxaropentxo bakarra. Gaur, aldiz, nolatan? Irla hutsik ez dago...

Irla hutsik ez dago  
eta denok gara  
munduan irla,  
nahi genuke  
ikusi,  
laster,  
ihespide geure ardoan;  
ardotan baikaude  
sartuta, hordi,  
biharkoaren  
itxaropentsu...

Karlos Santisteban

ZIN EGIN ALA LEYRE ZIRRI EGIN?

EN NOMBRE DEL PUEBLO TRABAJADOR VASCO, A LA CALLE, MANGARRANES!



IXILIK BUGRE HORI!

REVOLUZIOA  
ETA  
ZAHARRA  
LEGE

GORA EUSKADIKO LANGILERIA!

ETA ABAR!

ZER?



HERRIAREN AITAREN ETA ESPIRITU SANTUAREN IZENEAN

FOP ZORION ETA ZORRITSU-ON DAITEZEN


JUSTIZIARENGATIK SUFRITZEN DUTENAK!



EUSKADIZ  
EDO EUSKADIZ  
ZIN-EGIN EDO ZIN-EGIN!  
HAUXE ERABAKIA



KALEAN GORA ETA BEHERA HAUXE DUGU SEGURO ASKATASUNAREN BESPORA



NIK ZIST-DAGIT!



Oraingo honetan, etxeko trapu zahar-  
rak garbitzen hasi behar dut, izen pro-  
pio baten deklinabidetik abiatuz.

Aberri Eguna dela eta, egunkarietan,  
zenbait iragarkitan, honako hau irakurri  
izan dugu: "Denok Iruineara". Konkre-  
tuki, Herri Batasunak eginiko iragarkiez  
ari naiz. Eta zergatikoak eman aurretik,  
nik neuk "Guztiok Iruñera" idatziko nu-  
keela esango dut.

Izatez, arazo hauetaz lehenago ere  
mintzatu izan naiz sail honetan. Batetik,  
denok eta **guztiok** hitzen egokitasunari  
buruz. Eta bestetik, —hauxe da orain  
berraiatu nahi dudana— A letraz buka-  
tzen diren zenbait herri-izenen deklina-  
bideari buruz. Honetaz emaniko eritziak  
sakonkiago ikusi nahi dituenak, ANAI-  
TASUNA honetako 362. eta 363. zen-  
bakietara jo dezake.

Labur esanda, horrelako herri-izen ba-  
tzuren bukaerako A letra ez da organi-  
koa. Aldiz, itxura denez, aintzinako izen  
arunt bati edo dagokion artikulua bide  
da. Eta horrela, lekuzko kasuak deklina-  
tzean, A hori NON kasuan agertzen da  
soilik, beste guztietan desagertu egiten  
delarik.

Konkretuki, horixe gertatzen da ondo-  
ko izen hauekin: Bizkai(a), Iruñe(a),  
Deustu (a), Azkoiti(a), Azpeiti(a), Er-  
mura(a), eta beste askorekin.

Herri-izen horien kasuan, honela gera-  
tzen da lekuzko kasuen deklinabidea:

Non	Bizkaian	Iruñean	Ermuan
NOra	Bizkaira	Iruñera	Ermura
Nongo	Bizkaiko	Iruñeko	Ermuko
Nondik	Bizkaitik	Iruñetik	Ermutik

Ostera, lekuzko ez diren kasuetan, A  
hori ongi gordetzen da:

Zein	Bizkaia	Iruñea	Ermua
Zeinek	Bizkaiak	Iruñeak	Ermuak
Zeinen	Bizkaiaren	Iruñearen	Ermuaren
Zeini	Bizkaiari	Iruñeari	Ermuari

Beste ohar bat ere egin behar da. Zer-  
gatik Iruñea eta ez Iruinea edo Iruña?  
Honetaz ez dut beste arrazoirik Eus-  
kaltzaindiaren erabakiaz aparteko. Eus-  
kaltzaindiak Udal izendegia onartua du.  
Euskera aldizkariaren XXIII. Zenbakian  
aurki daiteke (1978-I) edo bestela "Eus-  
kal Herriko Udalen Izendegia" izeneko  
liburuskari. Bertan agertzen denez, Iru-  
ñe(a) izena onartu da.

Izendegi horretan, deklinabidean A ez  
—organikoarekin azaltzen diren proble-  
mak kontutan hartzeko, horrela adieraz-  
ten dira izen horik: Deustua-a, Bustu-  
ria-a, Iruñea-a,...

Beraz, hurrengorako ba dakizue:  
"Guztiok Iruñera".

## ANAITASUNAKO ANAITASUNEKO

Eta deklinabideko problematxoekin ari  
garenez, hona hemen idazleen artean  
agertzen den beste bat. Gure aldizka-  
riaren izena ANAITASUNA da. Nola  
esan: "ni Anaitasunako idazlea naiz" ala  
"Ni Anaitasuneko idazlea naiz"?

Batek baino gehiagok bigarren forma  
erabiltzen du. Zergatik? Hara. **Anaita-**  
**sun** hitz arrunta hartzen duelako; eta  
kontsonantez bukatzen denez, e bat ja-  
rri behar duela uste du.

Ostera, ene eritzi, **ANAITASUNAKO**  
idatzi behar da, ANAITASUNA hitza  
izen propioa delako, A eta guzti. Beraz,  
beti ere ene eritzi, bi gauza guztiz des-  
berdin dira batera edo bestera deklina-  
tuz gero. Hauxe da bakoitzaren esangu-  
ra:

**Anaitasuneko:** anaitasun hitz arrunta-  
ren singularreko deklinabideko kasua.

**Anaitasunako:** ANAITASUNA izeneko  
aldizkarikoa dena.

Eta etxe barneko kritikarekin bukatze-  
ko —oraingoz, behintzat—, Herri Bata-  
sunaren izenarekin ere berdintsu gerta-  
tzen dela esango nuke. Hots, izen pro-  
pio delarik, ene ustez bloke bezala hartu  
behar dela esango nuke. Hau da, nik  
neuk honela esaten dut: "Horik Herri  
Batasunakoak dira" eta ez "Herri Bata-  
sunekoak". Bi gauza desberdin direla  
uste baitut.

## IRUNEKO ANAITASUNAKO

Esandakoak entzun ondoren, batek  
baino gehiagok zera pentsa dezake: Ez  
ote dago kontradikziorik, "Iruñeko" bai-  
na "Anaitasunako" idaztean? Hau da,  
lehen kasuan A hori desagertzean eta  
bigarreanean gordetzean?

Ene ustez, arazoak azalpen erraza du.  
Lehenik aipaturiko herri-izenen proble-  
man, A hori haztarna arkaikotzat jo de-  
zakegu. Eta hori azaltzeko, aintzina izen  
arruntak izan bide zirela esaten dugu.  
Baina gaur **Deustu**, **Bizkaia**, **Iruñe**,...  
ez ditugu izen arrunt-tzat. Ostera, **anai-**  
**tasun**, eta **batasun** hitzak arrunt bezala  
hartzen ditugu. Eta hortik datorkigu izen  
propioaren eta izen arruntaren arteko  
desberdintasuna egin beharra.

Eta ez dakigu abertzaleak direnentz. Abertzalea daiteke Txinako bat? Bilbon biziz gero edozein gauza. Benetan pozgarria euskaldun tripadunontzat. Euskaraz menu guztia. Joan hadi gero hortik, abertzaletasuna nabaritzen den toki horietara, batzoki, euzko etxe, edonora. Ternera en saltsa, kallos, merluza a la koskera, filetia, almejas a la marineria, saltxitxia, cuajadia, ez, barka nazazue, mamia, mamia. Ea ba jattetxe abertzale, euskaldun, jator eta abar abarrekoak mamia non dagoen ahazten ez zaien. Oso abertzale, izigarri euskaltzale lirateke.

V. AVES EGAZTIKIAK POULTRY VOLAILLE	
70. Pollo agri-dulce Mingar ollazkokia Sweet and sour chicken Poulet aigre-doux .....	190
71. Pollo frito Ollazkoki prejidua Fried chicken Poulet frit .....	200
72. Pollo chop-suey Ollazkoki chop-suei Chicken chop-suey Poulet chop-suey .....	180
73. Pollo con setas chinas y bambú Ollazkokia, Txinako perretxikoak eta bambua Chicken with Chinese mushroom and bamboo Poulet aux champignons chinois et bambou .....	240
74. Pato con salta china Atekie eta Txinako saltsa Duck with soy sauce Poulet à la sauce chinoise .....	250
75. Pato con frijoles Atekie eta intxabak Duck with bean shoots Canard aux haricots .....	250
76. Pato con piña Atekie eta piña-alea Duck with pineapples Canard à l'ananas .....	250
77. Pato con salsa curry Atekie eta kurri-saltsa Curry duck Canard au curry .....	250
78. Pato con setas chinas y bambú Atekie, Txinako perretxikoak eta bambua Duck with Chinese mushroom and bamboo Canard avec champignons chinois et bambou .....	280
79. Pato Pekinera, Atekie Pekin Pekin duck, Canard Pekin .....	600
VI. CARNE DE CERDO TXARRIKIAK PORK PORC	
80. Cerdo agri dulce Gozo eta mingar txarrikia Sweet and sour pork Porc aigre-doux .....	190
81. Costillas fritas Saieski prejiduak Spare ribs Côtelettes frites .....	210
82. Carne picante con ajo Mingar okela eta berakatzak Hot pork with garlic Viande épicés à l'ail .....	190
83. Cerdo con frijoles Txarrikia eta intxabak Pork with bean shoots Porc avec haricots .....	190
84. Cerdo con pimientos verdes Txarrikia eta piperrak Pork with green pepper Porc avec piments verts .....	190
85. Cerdo con salsa curry Txarrikia eta kurri-saltsa Curry pork Porc au curry .....	190
86. Cerdo chop-suey Txarrikia chop-suei Pork Chop-suey Porc Chop-suey .....	180
87. Cerdo con champiñones Txarrikia eta txampiñonak Pork with champignon Porc avec champignons .....	220
88. Cerdo con setas chinas y bambú Txarrikia, Txinako perretxikoak eta bambua Pork with Chinese mushroom and bamboo Porc avec champignons chinois et bambou .....	240
VII. TERNERA TXALKIAK BEEF VEAU	
90. Ternera con setas chinas Txalkia eta Txinako perretxikoak Beef with Chinese mushroom Veau avec champignons chinois .....	240
91. Ternera con bambú Txalkia eta bambua Beef with bamboo shoots Veau avec bambou .....	230
92. Ternera con salsa Sa-Cha Txalkia eta Sa-Cha saltsa Beef with Sa-Cha sauce Veau à la sauce Sa-Cha .....	210
93. Ternera con salsa ostra Txalkia eta maskor-saltsa Beef with oyster sauce Veau à la sauce d'huîtres .....	210
94. Ternera con champiñones Txalkia eta txampiñonak Beef with champignon Veau aux champignons .....	210
95. Ternera con salsa curry Txalkia eta kurri-saltsa Beef curry Veau au curry .....	190
96. Ternera con salsa picante Txalkia eta mingar-saltsa Beef with hot sauce Veau à la sauce piquante .....	190

**Anaitasuna**

ALDIZKARI hau IRAKURRI NAHI baduzu, bete ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide honetara:

ANAITASUNA

ZABALBIDE 68., BILBO-6

POSTA KAXA : 495

Tfno. bakarra: 94-4335808

Izen deiturak.....

Bizilekua.....

Herria eta Posta Barrutia.....

Bankua eta kontu irekia..... Tfnoa.....

# Bizkaiak beti izango du bere Kutxa



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**



**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA

Laguntza handi bat



## Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

**H**orrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.

  
**LA CAJA TRABAJA POR GUIPUZCOA  
Y PARA LOS GUIPUZCOANOS.**